

"Gazteek lan egin beharko dute munduan barrena"

Fermin Garmendia | LKSko zuzendari nagusia | 8



Bete-bete datoz San Juan jaiak Arrasatera

ORRIALDE BEREZIAK BARRUAN | 35



157 debagoiendar bihar Quebrantahuesos proban | 28



Bailarako bertsolari onena etzi erabakiko da Arrasaten | 32



Bigarren eskuko autoen lehen azoka bihar goizean Bergaran | 11

Begarako San Martin ikastetxeko ume koadrilak gozatu ederra hartu zuen eguaztenean.






## FRESKO-FRESKO



Eguaztenean ireki zuten udako bainu denboraldia Begarako kanpoko igerileketan, eta besteak asteburuan batuko zaizkio: Arrasateko eta Eskoriatzako kanpoko igerilekuak bihar zabalduko dituzte; baita Oñatiko berdegunea ere. | 2

MONIKA BELASTEGI

### SINADURAK

-  ANDONI URZELAI | 6
-  6 | JON BEREIZIBAR
-  ANDRES OSA 'SAKONA' | 16
-  23 | GORKA ETXABE
-  AINTZANE OIARBIDE | 64

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | GUTUNAK 7 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 59 | EZKONTZAK 60 | ESKEKAK 61 | NON-ZER 38

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia



**OPARIA**  
Indukzio-plaka  
uztailaren  
15a arte

**IKER**  
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

SEAT  
IBIZA



9.900  
eurotik aurrera

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





# Asteburua ezkerro, Debagoieneko igerileku guztiak zabalik daude

- ▶ Usakon, datorren astean hasiko da lanean soroslea
- ▶ Uribarri-Ganboako urtegian hasia dago denboraldia
- ▶ Berritasun gutxi dakar aurtengo bainu sasoiak



Umeak primeran ibili ziren eguaztenean Bergarako Agorrosin igerilekuan. | MONIKA BELASTEGI

## LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bergarako kanpoko igerilekuek inauguratu zuten Debagoieneko udako bainu denboraldia, baina, oraingo aste bukaeran bertan, besteak batuko zatzaizkio: bihar, zapatua, irekiko dituzte Musakolako kanpoko igerilekuak eta barrukoak itxi; Eskoriatzako kanpokoak ere zabalik geratuko dira egun berean; eta Oñatiko berdegunea (bakarrik barruko igerilekuak daude-eta han) ere zabalik geratuko da, bainutokiaren osagarri.

Bestalde, oraingo astean ere zuten igerilekua zabaltzeko asmoa Arrasateko Udala auzoko Uxarte jatetxeok: "Hotz handia egin du, baina ume batzuk dagoeneko etorri zaizkigu bainatu guran", esan zigun Uxarteko Maria Jesus Juantorenak.

Oraindik erabakitzeke du Aramaioko Udalak umeendako igerilekutxo instalatuko ote duen abuztuan. Iaz hala egin zuen, lehenengo aldiz, eta sekulako arrakasta izan zuen.

## Ohiko zerbitzu guztiak

Berritasun nabarmen barik dator udako denboraldia bainulekuetan. Ohiko zerbitzuak izango dira: berdeguneak edo eguzkia hartzeko lekua, hamakak eramateko aukera, taberna igerilekutik gertu... Arrasateren kasuan, oraindik ez dute lortu kioskoa eramateko inor. Iaz Gureak enpresak eramane zuen, baina aurten ez da zerbitzu hori eramateko inor aurkeztu. Eli Roncero udal teknikariak, dena dela, esan du oraindik aurkezteko epea zabalik dagoela.

Beste kiroldegietan, kantina edo kiosko barik, jatekoak-eta kiroldegiko tabernan erosteko aukera dago. Agorrosin kasuan, Bergaran, maiatzean obra txiki bat egin zuten, soilik tabernako

bezeroak zirenei igerilekura sar-tzea galarazteko. Igerilekura doazenak tabernara sartu ahal izan-go dira, baina ez alderantziz.

Bestetik, berdegunearekin zeuden arazoak konpontzeko, ureztagailuak aldatu egin dituzte, sistema berriarekin, eta belar guztia berriz erein dute. Igerilekuan bertan arazoak ematen zituen instalazio bat –elefante itxura zeukan tranpolin txiki antzeko bat– ere kendu egin dute.

Bestelakoan, iaz bezala, ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte dinamizatzaile bat egongo da kanpoko igerilekuan, bi orduan, arratsaldeetan. Kirol teknikari Unai Asurmendik honakoa dio: "Ume dezente etortzen dira, eta

gainezka egoten da kanpoko igerilekua; baina barruko biak hutsik geratzen dira". Hori saihesteko eta igerilekuko instalazioetan une berean erabiltzaile asko ego-tea saihesteko lanean ibiliko da dinamizatzailea.

Azkenik, aurten sarrera berdin ordainduko dute Bergaran erroldatuek zein gainerakoek: 3 euro 3-17 urte artekoek eta 6 euro adinekoek, eguneko sarrera.

Agorrosin kanpoko igerilekua irekitzen lehena izatea ez da kasualitatea, seguru asko. Unai Asurmendik esaten duen moduan, "ikastetxeek eskatuta" egin dute hala: "Joan den astean, eskola-orduetan etortzea eskatu ziguten, eta horregatik ireki genuen eguaztenean".

## DEBAGOIENEAN BAINATZEKO LEKUAK

HERRIA	ZER	ORDUTEGIA	PREZIOA	BESTELAKOAK
ARRASATE	Musakolako kanpoko igerilekuak	09:00-21:00 egunero	3,10 / 5,50 €	Eguzkia hartzeko lekua, kantina...
ARRASATE	Uxarteko igerilekua	10:00-20:30	Zehaztu gabe	Eguzkia hartzeko lekua, jatetxea...
ESKORIATZA	Kanpoko igerilekua	10:00-20:00 (astelehena-zapatua); 10:30-14:30 (dom.)	2,34 / 4,26 €	Berdegunea, hamakak...
ESKORIATZA	Barruko igerilekua	08:00-21:00 (astl.-egubak.); 10:00-20:00 (zap.); 09:30-14:30 (domeka)	2,34 / 4,26 €	Berdegunea, hamakak...
OÑATI	Zubikoako barruko igerilekua	07:30-21:30 (astl.-egubak.); 10:00-20:00 (zap. eta jaiegunak)	3 / 5,65 €	Berdegunea, taberna...
OÑATI	Usako presa	Soroslea: 15:00-20:00	Doan	Dutxak, iturria
BERGARA	Agorrosingo igerilekuak	09:00-20:00	3 / 6 €	Berdegunea, hamakak eramateko aukera, tabernara sarrera...

## Hamakak, etxetik

Hamakak uzten dituzte Agorrosin; hango hamakak erabili daitezke. Bestalde, norberak bere hamaka etxetik eraman dezake, bai Bergaran, bai gainerako herrietan; hori bai, egunero bueltan eraman behar ditu erabiltzaileak, ezin ditu berdegunean utzi, ez eta kiroldegi osoan ere.

Uxartekoa kasu desberdina da: jatetxea denez, hantxe bertan eros daitezke ogitartekoak, edo bertan bazkaldu. Hantxe bertan ipintzen dituzte mahaiak eta jesarlekuak, baita eguzkitakoak ere. Maria Jesus Juantorena uga-zabak esaten duenez, kokapenagatik, eguraldi ona dagoenean bailaratik kanpo, Elorriotik eta ingurutik, ere joaten da jendea han bainatzerara.

Bestetik, ziur Aretxabaletako bainuzale eta eguzkizale askoren bisita jasoko dutela batez ere Eskoriatzako eta Arrasateko igerilekuetan. Azaroan dira bukatzekoak hango kiroldegi berriko lanak.

## Herriko jaietan, itxita

Azpimarratzekoa da igerilekuok egun osoan egongo direla zabalik, eguerdian itxi gabe, eta berandura arte: 20:00etatik 21:30era bitartean ezarri dute ixteko ordua.

Herri batzuetan, ordutegia berbera izango da astelehenetik domekara bitartean; beste batzuetan, zapatuetan eta domeka zein jaiegunetan ordutegi txikiagoa izango da, kasuan kasu.

Eskoriatzan, San Pedro jaiak direla-eta, hilaren 28an goizez bakarrik irekiko dute, eta ekainaren 29tik uztailaren 1era bitartean itxita egongo da.

Oñatiko kiroldegia itxita izango da ekainaren 26an ere, Korpus eguna ospatu ahal izateko.





## Bost autobus egunero Zarautzera

Aurten ere, azken urteotan egin duen bezala, Pesa garraio enpresak Debagoienetik Zarautzera joateko autobus zerbitzua indartu egingo du udan, geltoki gehiagorekin. Hala, dagoeneko badago egunero autobusa Arrasatetik eta Bergaratik Zarautzera (Bergaran gelditzen da, Arrasatetik irten eta ordu laurdenera), baina, uztailearen 1ean hasita, Eskoriatzatik eta Aretxabaletatik ere joateko moduan egongo dira.

Hala, uztaila hastearekin batera, astelehenetik egubakoitzera bitartean, egunean barrena bost irteera izango dira Arrasatetik, eta horietatik bi Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik ere pasatuko dira, bertan geldialdia eginez.

Zapatuetan eta domeketan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako bi irteerei eutsiko diete, eta horrez gain hirugarren autobus bat ere irtengo da Arrasatetik.

Ohi bezala, Zarauzko suhiltzaileen egoitzaren pareko biribilgunean geldituko da autobusa. Buelatzeko geltokia leku berean izango da.

### DATUA

# 7

IGERILEKU

Debagoienean bainua hartzeko zazpi igerileku daude; horrez gain, Usako.

### ESANAK

**"Lehenago ireki dugu, eskola-orduan etor zitezene umeak"**

UNAI ASURMENDI  
BERGARAKO KIROL TEKNIKARIA

Bergara eta Eskoriatzaren kasuan, barruko eta kanpoko igerilekuak, denak egongo dira zabalik udan. Ez da hori kasua Musakolan. Eli Roncero arduradunak dioenez, "kontuan hartu" dituzte hainbat herritarrek egindako eskaerak barruko igerilekuak ez ixteko, baina "oraingoz, ezinezkoa" dela esan du. Hala ere, biak zabalik eduki ahal izateko "lanean" jarraituko du Udalak.

### Usakon, arratsaldez

Igerilekuez gain, Oñatin Usako presan ere jende asko ibiltzen da, oñatiarrak zein kanpokoak. Goienaspotek kudeatzen du zerbitzu hori, eta aurten iaz bezala antolatuta dute, desberdintasun batekin: soroslea goiz eta arratsalde egon beharrenean, arratsaldez bakarrik egongo da, 15:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Soroslea hilaren 25ean, zapatua, hasiko da lanean, eta irailaren 11ra arte izango da zerbitzu hori Usakon. Dagoeneko badira hiru urte Usakon instalazio berriak eta zenbait hobekuntza garrantzitsu egin zituztela, oraindik gustukoago lekua eginez.

### Desfibriladoreak urtegietan

Uribarri-Ganboa urtegietan joan den astean hasi zen udako denboraldia, eta irailaren 4ra arte iraungo du. Berritasun bat dago: urtegi guztietan izango da desfibriladore bat eta anbulantzia ibiltari bat.

Dena dela, bainatzeko aukera ez da urtegi horretako erakarpen bakarra. Urtetik urtera, Arabako Foru Aldundiak urtegi inguruko aisialdi eskaintza hobetu du. Hor ere, berritasunik badago: Garaion, bizikletak mailegatzeko eta interpretaziorako guneak estalki berria dauka, bistetaz aterpean gozatu ahal izateko. Bizikletak egunero mailegatzeko etzi, domeka, hasiko dira. Azken urteotan emandako zerbitzu guztiek ere jarraitu egingo dute: besteak beste, Garaioko informazio gunea, ibilbide berdea edo Mendixurko parke ornitologikoa.

Ekainetik abuztura arte, sorosleez eta bizikleta maileguaz gain, informazio zerbitzua zabalik izango da egunero eta hezkuntza eta ingurumen interpretazio zerbitzua ere emango dute: bisita gidatuak, diaporama emanaldia eta umeendako udako tailerrak.

## Urtegietan, jende asko iaz ere

Uztail osoan, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagatik pasatuko da egunero Uribarri-Ganboara autobusa.

Arabako Foru Aldundiak esan duenez, iaz 233.658 bisita izan ziren Garaion, Landan eta Mendixurren, udako bainu eta aisialdiarekin eta natura eta hezkuntza eskaintzarekin lotuta; 2009an baino %12 gutxiago, euri egun gehiago izan zirelako. 1.972 bizikleta-mailegu izan ziren, 2009an baino %5 gehiago.



Landako urtegian, udaz gozatzen. | GOIENA

## Orain Seat León TDI autoa

Aleaziozko lllantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



0 km-ko autoa estreinatzeko

15.000 € baino gutxiagotatik

## ... edo Seat Exeo ST TDI autoa

Aleaziozko lllantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, argiaren eta euriaren sentsoreak, aparkatzeko atzeko sentsorea, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



0 km-ko autoa estreinatzeko

21.000 € baino gutxiagotatik

**AUTO KOPURU MUGATUA**  
**ASEGINOLAZA**

Urteaga kalea, 37  
BERGARA  
Tel. 943 761 250





# Hilaren 30era arte eman daiteke izena 'Debarroa, menditik itsasora' ekimenean

Landa ingurunea gertutik ezagutzeko aukera dago Debemen eta Deba Garaiak gertatutako kanpainarekin

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Dagoeneko izena eman daiteke Debemen eta Deba Garaia elkarrekin antolatutako *Debarroa, menditik itsasora* ekimenean; ekainaren 30era arte dago zabalik izen-ematea. Kanpaina horrek landa ingurunea gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen du hainbat ibilbide didaktikoren bidez. Antolatutako ekintzetan parte hartzeko, interesatuek Landalurko 946 30 07 30 telefono zenbakira dei dezakete.

Proiektuaren helburuetako bat landa ingurunearekiko kontzientzia eta hurreratze jarrera sustatzea da. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklotako ikasleei zuzendua, 2011-2012 ikasturtean eskolako ordutegiaren barruan, esandako bi eskualdeetako baserrietan ikustaldiak eta tailerrak egingo dituzte.

## Debagoiengan, lau bisita

Zortzi bisita gertatu dituzte; horietako lau, Debagoiengan. Batetik, Antzuolako Lapatza baserria bisitatzeko aukera egongo da, urtarritetik maiatzera. Nekazaritza



Besteak beste, Gomiztegiara joateko aukera izango dute ikasleek. | GOMIZTEGI BASERRIA

nola izan zen eta gaur egun nekazaritza ekologikoaren bitartez nola egiten jarraitzen den ikasiko dute han. Aretxabaletako Areantza-Etxeberri Elkartea ustiatzea ere sasoi berean bisitatu ahal izango da. Esne-behi azienda duen ustiategi bat ezagutzeko dute, eta giza jardura ingurumenarekin erres-

petagarri izan daitekeela egiaztatuko. Hirugarrenik, Leintz Gatzagan, historian zehar gizakiaren elikaduran gatzak izan duen garrantzia aztertuko dute, eta Jakion enpresa bisitatu. Urte osoan egin ahal izango da hori. Azkenik, Arantzazuko Gomiztegi baserrian gaztagintza jardura nagusia duen

ardi ustiategi baten zeregina ikusteko eta gazta egite prozesua ezagutzeko dute apiriletik ekainera.

Programaren finantzaketa eta antolakuntza Debemen eta Deba Garaia kargara izango da, garraioaren gastua izan ezik; ikastetxeek ordaindu beharko dute hori.

## Barazkiak, hegaluzea eta esnekiak, jardunaldi gastronomikoetako izarrak

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko VIII. jardunaldi gastronomikoak egingo dituzte gaurtik uztailearen 31ra. Betiko moduan, menu bereziak eskainiko dituzte; oraingoan, baratzeko sasoiako barazkiak, hegaluzea eta esnekiak erabiliko dituzte parte hartuko duten zortzi jantzetan. Hain justu, Oñatiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta; Bergarako Lasa eta Zumelaga; Leintz Gatzagako Soran; eta Arrasateko Hilarion, Santa Ana eta Hamalauk; azken hori lehen aldiz izango da.

Eguaztenean egindako agerraldian, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek azaldu zuen bezeroei inkesta bat bete dezaten eskatu-

ko zaiela, eta haien artean bi lagunendako afaria zozketatuko dutela.

Bestetik, bertako produktuen jatorria ezagutzeko aukera egongo da, Antzuolako Lapatza, Bergarako Boluberri, Arantzazuko Gomiztegi eta Leintz Gatzagako gatz museo eta Jakionera egindako bisita gidatuen bidez.

## Pintxo banaketa gaur

Jardunaldien aurkezpen moduan, gaur, 19:00etan, pintxo banaketa egingo dute Arrasateko Seber Altuben. Jatetxe bakoitzak pintxo bana gertatuko du. Jardunaldien gaineko informazio gehiago gura dutenak [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com) webgunera sar daitezke.



Mankomunitatearen egoitzan egindako aurkezpena. | MIRIAN BITERI

## Rebeka Ubera elgetarra da Gipuzkoako Batzar Nagusietako idazkari berria

M.B. | ARRASATE

Astlehenean eratu zituzten Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Lohitzune Txarola (Bildu) hautagaia aukeratu zuten presidente; Rebeka Ubera (Aralar) elgetarra, ostera, idazkaria izango da. Mahaian alderdi guztiek ordezkariak izatea adostu zuten; itun hori dela-eta, Eusko Alkar-

tasuneko Txarola izan zen presidentegai bakarra.

Bederatzi dira batzarkide debagoiendarrak: Bildutik, Martin Garitano, Ander Rodriguez, Mikel Biain, Goizane Arana eta Amaia Larrañaga; EAJtik, Aintzane Oiarbide eta Ainhoa Galdos; Aralartik, Rebeka Ubera; eta PSE-EETik, Rafaela Romero.



JAIONE CARPINTERO

## Tavexeko langileak protestan

Bergarako Tavexen Gabiria Dorreko egoitzaren parean batu ziren atzo, eguena, enpresa horretako langileak. Aurre-erretiro batzuen gainean dagoen "gatazka" salatu zuten elkarretaratzean. 27 kaltetu daude eta enpresak "egin duen bakarra bizkarra ematea" izan da.



Aitor Otxoa. | AITOR OTXOA

## Aitor Otxoa

| 'Imagine' programako ikaslea

## "Enpresa aurreratuenen jakinduria bereganatuko dut AEBetan"

M.B. | ARRASATE

Europako beste 11 ikaslerekin batera Silicon Valleyra joango da Aitor Otxoa arrasatearra uztailean. Biziko duen esperientziak hitz egin digu datozen lehenetan.

## Zertan datza Imagine?

Hilabete bateko mintegia da, Silicon Valley bailaran. AEBetako San Frantzisko ondoan dagoen ingurune horretan mundu mailako enpresa garrantzitsuenak daude, hala nola Google, Facebook eta Apple.

Lehiaketa baten modukoa da *Imagine*, Europako unibertsitate ikasleei aukera ematen diete hara joateko eta enpresa aurreratuenen jakinduria bereganatzeko. Horretarako, lau proiektutan egingo dugu lan.

## Zeintzuk dira horiek?

Bat BMW enpresarena da. Mugikortasunaren etorkizunaz jardungo dugu horretan. Bigarrena Everis enpresak eskainiko du. Inteligentzia kolektiboaren eta etorkizuneko heziketaren gainekoa da proiektua. Hirugarrena McCann taldeak proposatzen du; publizitatearen etorkizuna garatzean datza. Laugarrenik, arropa inteligenteen gaia jorratuko dugu; hain justu ere, zelan egin arroparekin poltsikoko telefonoa kargatzeko edo horren bidez lokalizatuta egoteko. Stanfordeko unibertsitatean egongo gara hilabete horretan.

## Noiz zoaz?

Uztailaren 1etik 31ra iraungo du programak. Asteburu honetan, dena dela, Kataluniara noa; proiektuan parte hartuko dugun ikasleen arteko lehen hartu-emanak izango dugu.

## Nolatan sortu da egitasmoan parte hartzeko aukera?

Oso prozesu luzea izan da. Apirilean San Frantziskon egon nintzen, eta programaren arduraduna ezagutu nuen. Europa mailako unibertsitatei zabaltzeko asmoa zuen. Probak gainditu eta Orbea taldeak eskaintutako laguntzari esker joango naiz.



# Atzegiren 'Gogoko ditut astelehenak', martxan

Adimen urritasuna duten pertsonen enpresa arruntetan praktika kontratuak lortzea du helburu

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Atzezin iaz hasi zuten adimen urritasuna duten pertsonen lan munduan integratzeko proiektua. Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko, 50 pertsona enpresa arruntetan kokatzeko helburuarekin hasi ziren lanean. Urtea amaitu aurretik lortu zuten helburua eta dagoeneko 64 pertsona inguru dabilta lanean edo praktikatan. "Hala ere, ez gara zenbaki horretan geratuko", gaineratu digu Jokin Antxiak, Atzegiko Debagoieneko arduradunak. Helburua uste baino lehenago bete arren, lanean jarraitzeko asmoa azaldu dute.

Orain arteko esperientziak "oso positiboak" izan direla esan digu Antxiak. Ekimenaren bitartez, lan egiteaz gain, adimen urritasuna duten pertsonen integratzeko eta garatzeko aukera dute. Gurean, Mizpirualde zaharren egoitza, Arrasate eta Bergarako udalarekin eta Iturbide egoitzan izan dira adimen urritasuneko pertsonak lanean. Bai-



Tolosako Topic CITen lanean dagoen Miguel Herreras. | ATZEGI

na kopurua "laster handituko dela" esan digu Antxiak. Atzegirekin batera, Foru Aldundiak, Lanbidek eta Gureak taldeak egiten dute posible proiektua.

## 'Pauso berriak' programa

Atzegik eta Gureak taldeak *Pauso berriak* programa jarri dute martxan, praktiketan den pertsonaren prestakuntza euren gain

hartuta. Laneko prestatzaile bat jartzen diote, eta lan egiteko behar dituen gaitasunak hartu arteko denbora osoan haren ondoan egoten da.

Asteburuan, Debagoieneko herrietan kartelak jarri eta informazioa banatuko dute. Hala ere, sarean dago ekimenaren informazio guztia, [www.meencantan-loslunes.com](http://www.meencantan-loslunes.com) webgunean.

# Enpresen artean 400 milioi banatuko ditu Jaurlaritzak

Besteak beste, Danobat Railway Systems, Fagor Arrasate eta Cegasak jasoko dituzte laguntzak

I. GALLEGO | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiekin adostu ostean, EAEko motor diren enpresei 400 milioiko abalake ematea erabaki du. Fondo hori ez da berria; 2009an, Gasteizko gobernuak 39 milioi euro zuzendu zituen mota horretako txoke-abaletan, 5 proiektuentzat. Hurrengo urtean, diru partida handiago egin zuen Jaurlaritzak, eta, 161 milioi inbertitu zituen arren, guztira 882 milioi mobilizatu zituen.

Beste enpresa garrantzitsu batzuen artean, gure inguruan Danobat Railway Systems, Fagor Arrasate eta Cegasak jasoko dute diru partida horren zati bat. Dagoeneko lortu dute partida horiekin enpresa bakoitzak aurkeztutako proiektuaren heren bat finantzatzea, eta, gehienez, 15 milioi euroko laguntza izango dute.

## Proiektu berezietarako

Erkidegoko enpresa gakoak izateaz gainera, guztiek ez dituzte dirulaguntzak jasoko; izan ere, beharrezkoa da proiektu handi baten barruan egotea edo maki-

naria berritzeko fasean egotea.

Dirulaguntzak Europako Batasunak baimenduak izan dira, eta Jaurlaritzako Industria Saileko bozeramaileak argitu nahi izan duenez, "krisiak sortutako egoerari aurre egiteko jarri dira martxan eta ez dira betiko luzatuko". Krisiak hobera egiten duen heinean, laguntzak eskatzeko parametroak zorrozten joango dira.

400 milioiko dirulaguntza horiekin, Eusko Jaurlaritzak erkidegoarentzat premiazkoak diren industria sektorearen emaitza positiboak bermatu nahi izan ditu.

DATUA

15

MILIOI

400 milioiko aurrekontua eduki arren, enpresa bakoitzak gehienez 15 milioi jasoko ditu.



Aukerazko

## IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS

2011 | Diesela | 0 Km

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g ARRASATE  
943790744 • [www.mugarri.es](http://www.mugarri.es)

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €  
2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €  
2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €  
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Kuga TDCI 140 ZP 28.900 €  
2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak SPORT 18.900 €  
2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 105 ZP Sport 11.700 €  
2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €  
2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 167 ZP 17.500 €  
2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Peugeot SW Sport Pack 2000 HDI 9.800 €  
2007 | Diesela | Grisa | 90.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI 41.500 €  
KM 0 (Berria) | Diesela | Plata edo aukeran



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPf AVANT

2010 | Diesela | 29.649 Km

**Udalaitz**

- Audi A3 1.9 TDI E DPf ATTRACTION 18.400 €  
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €  
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €  
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €  
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPf 26.900 €  
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €  
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPf REFERENCE ST 20.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €  
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36  
ARRASATE • 943 71 18 70



17.250 €

> Citroen C5 HDi Premier 110

2009 | Diesela | 38.000 Km

**CHAPIME**

SAN ANDRES AUZOA 5.  
ARRASATE  
TEL.: 943 79 45 22.

**CITROËN**  
Debagoieneko  
Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 1.6 HDI Sport FAP 6 vel 11.850 €  
2008 | Diesela | Beltza | 59.000 Km
- Peugeot 307 SW 1.6 HDI Pack+ 110 12250 €  
2008 | Diesela | Beltza | 37.100 Km
- Citroen C3 1.4 HDI Cool 8.999 €  
2009 | Diesela | Gris argia | 33750 Km
- Citroen C5 1.6 HDI S 17.500 €  
2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- Citroen C5 2.2 HDI Exclusive CAS 31000 €  
2010 | Diesela | Gris iluna | 1000 Km
- Citroen C4 1.6 HDI Sport 17500 €  
2011 | Diesela | Txuria | 1250 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO HDi 110 65000 €  
2007 | Diesela | Nocchiola | 65000 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO CMP 138 14500 €  
2007 | Diesela | Alumium Grisa | 53300 Km
- PEUGEOT 807 SV HDi 136 14500 €  
2007 | Diesela | Alumium Grisa | 53300 Km



## ZABALIK

ANDONI URZELAI  
'http://goiena.net/iritzia/'



## M-15

**D**ela mundu zibernetikoak jada edade batekin harrapatu nauelako, edo dela erabat ezjakina naizelako informatika kontuetan, gauza da erabat mesfidatia izan naizela ni Internet eta Interneti lotutako kontuekin.

Hara, sarea pornoan nabigatzeko baino ez dut erabiltzen nik. Gustuz, gainera, kanpaia jotzeko sekulako aukerak ematen baititu, eta, gainera, hain zen aspergarria bideo-klubetara ia ezkutatuta joan behar ziztrin hori... Baina, badiotsuet, gainontzean niretzat mundu arrotza eta zeharo hutsala da. Eta mundu horrekiko ikuspegia, ostera, erabat apokaliptikoa.

Ba, begira, ez dut esango orain "integratu" bihurtu naizenik (ez bizitza honetan behinik behin), baina, tira, nire ikuspegia zertxobait aldatu dela aitortu behar dut.

Estatu osoan eman den haserretuen mugimendu horrek erabat txundituta nauka aspaldiko partez.

Neu, behintzat, hunkitu egin nau horrenbeste pertsona zutik ikusteak, bazen garaia. Zutik injustiziaren kontra. Zutik adarra jo ez diezaguten kontra. EZ ozen bat betikoez BAI esan diotenari.

Eta are gehiago harritu nau mugimendu horrek sarea erabili izana gorpuztu eta eratzeko. Akabo garai bateko panfleto eta deialdi indiskriminatuak. Akabo autoa hartu eta herriz herri propaganda banatzen ibili behar nekoso hori. Ziztu batean hedatzen dira orain ideiak, deialdiak, irudiak, berbak, eta nago, ni bezala, boteretsuak ere joko kano harrapatu dituela jokaleku birtual berri honek. Gora sarea, beraz.

Bide batez, askok, betiko kluxe zaharrak erabiliz, zera diote mespretxuz: EZ esatea dela errazena, ezaren atzean proposamen seriorik ez dagoela adierazi nahian bezala.

Hauei, nire lagun batek Abiadura Handiko Trenaren kontra esandakoa: BAI Abiadura Handiko Trena EZ egiteari. Harrapazak, txiribiton!

## USTEAK USTE


JON BEREZIBAR | 'jberezibar@goiena.com'

## Euskara birtuala

**P**ozarren kontatu digute Jaurlaritzatik 200.000 direla egun Interneten euskaraz dihardutenak eta azkar asko nabarmendu dute zenbaitzuek herrikoan baino plaza birtualean egiten dela gehiago euskaraz. Temati ekin ohi diote erakundeetatik datu horiei distira ematen, baina Interneten erabileraren zabalkundeak berak datu horiek lausotzen ez ote dituen susmoa ere badaukat. Hain zuzen, zenbat hazi da gaztelerazko erabilera bera, zenbat dira Internet erabiltzaileak orokorrean? Euskarazkoak adina eta gehiago, ziurrenik, eta gora. Kale erabilerak ere gora egin du, halere, poztekoa, baina harrabotsik ateratzeko modukoa ez, ikusten denez.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Diskretu izatea

Leire Narbaiza Arizmendi  
http://eibar.org/blogak/leire/

Batzuek bertutea ikusten duten lekuan, nik akatsa.

Euskal Herrian diskretua izatea bertutea da; nabarmentzea, ostera akatsa, saihestu behar dena.

Berritsua edo alferra izatea bezain gaitzesgarria.

Hala ere, diskretutasun (edo diskretukeria) horren atzean, gizarte tradizionalaren betoa, tabua eta errepresioa baino ez dago.

Nortasuna izatea, desberdin izatea erreprimitu beharra dago.

Hobe masa, hobe artalde. Inguruan badituz

diskreziio hori goraiatzeko dituztenak: kolore diskretuak, barre diskretuak, elkarrizketa diskretuak... baina diskretua mediokrea da, erdipurdikoa.

Zer dira, bada, emaitza diskretuak? Hobetu beharrekoak!

Gure herrian, eta batez ere janzkeran, kolore diskretuak, estanpatu diskretuak, arropa diskretua... oso-oso erabiliak izan diren terminoak dira, horiek klasea edota dotorezia

emango digutelakoan.

Hain oker daude, ordea! Mediokritatetik eta originaltasun faltatik nekez sor bailiteke dotorezia.

Bestetik, kontrol soziala ere badela esango nuke.

Aipatu dudan moduan, berdindu baino elkarrengandik ez desberdintzera bultzatzen gaituelako; sena, gustua eta kreatibitatea zapalduz, gizakiak gris, triste eta uniforme bihurtuz.

Pertsonak jende bilakatu, berba baten.

Nabarmentzeari beldurra dionak, gaitz dauka indibiduo izatea.

Joerak erreprimitzen dituenak zail du libre izatea.

## Bunkerrak

Anjel Lertxundi Esnal  
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Iragan asteburuz, konpainia on batean nengoela euskara eta literatura gaitzat harturik, han bildutako lagunek liburu interesgarri bat oparitu zidaten naziek Hendaia okupatu zuteneko argazkiekin.

Erretiratu eta gero afari eta solasaldi atsegin baten ondoren, argazkiak ikusten eta oharrak irakurtzen ari nintzela, hango hitz batek piztu zidan arreta: *bunkerarqueologie*.

Industrializazioaren edo meatzaritzaren arkeologiek fabrikak eta meak aztertzen dituzte; bunkerren arkeologiak, aldiz, zementuzko gotorlekuak, bi mundu gerretan eraiki zituztenak batez ere.

Eta hartan, nazien argazkiak ikusten ari nintzela, bururatu egin zitzaizkidan guztiok ere bunkertxo bana eraikitzen dugula gure baitako gotor-muinetan, eta hori hala izanik, inauguratu genezakeela bunker psikologia izeneko diziplina akademiko berri bat, zorrotz aztertzeko nola eta zergatik biltzen garen gure baitara trikuak bagina bezala...

OHARRAK (Post scriptum):

Garai onak dirudite oraingo hauek gutariko bunkerretatik burua pixka bat atera eta, eskua kopetara eramanez bisera gisan, datorren aro berriari erreparatzeko...

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com


**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 1577-1210  
**Tirada:** 20.100 ale.  
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## GUTUNAK

## Euskararen debekuak

Alex Labaien eta Estepan Plazaola Bergara

Ekainaren 4an hitzaldi/mahai-inguru oso interesgarria izan da Bergaran Audientzia Nazionalari buruz. Hitzlariak: Mariano Ferrer, Artemio Zarco, Miguel Castells eta Juanjo Alvarez. Antolatzailea: Jose Luis Elkoro askatzearen aldeko plataformatik sortutako taldea.

Gutun hau idaztera eraman gaituena ekitaldia iragartzeko kartelean agertutako esaldi hau izan da: *"Hitzaldi honetako partaideek ez zuten Euskaraz ikasteko edo jarduteko aukerarik, garai hartan gure hizkuntza debekatuta zegoelako. Horregatik, hitzaldi hau Gazteleraz izango da"*. Eta oso garbi utzi nahi dugu: esaldi hori eta ez beste ezer dugula kritikagai.

Hitzaldiak erdaraz antolatu izana justifikatzeko behar bat sumatzen da esaldian eta justifikazio-bide oso okerra hartu dela iruditzen zaigu: erruduna kanpoan bilatzea.

Lehenengo eta behin, jakinekua delako hizlarien artean adin eta euskara maila oso desberdineko jendea dagoela; tartean, baita hitzaldia euskaraz emateko gai direnak ere.

Bestalde, badakigu euskararen historia debekuz eta zailtasunez bete egon dela eta dagoela gaur ere. Baina horrek ez du dena azaltzen. Bai azkeneko 70-80 urteetan eta bai lehenago ere denetik eman du euskararen historiak: beren seme-alabei euskara irakatsi ez dieten guraso

euskaldunak eta gurasoek euskaraz jakin gabe ikasi dutenak, euskara ez erabiltzearen poderioz ahaztu egin zaienak eta ahaleginaren eta erabiliaren poderioz euskaraz bikain ikasi dutenak.

Gaztetan berreskuratu zuen euskara Telesforo Monzonek, euskaldun berria zen Federiko Krutwig, etxetik kanpo ikasi zuen euskara Txillardegik, nahiz gurasoak euskaldunak izan.

Federiko Krutwigen proposamenez hasi ziren 1950 inguruan Euskaltzaindiko bilerak euskaraz egiten. Sorreratik 30 urtetan gaztelaniaz egin izan ziren. Frankismo garaian ere batzuek gaintzen zituzten zailtasunak.

Gaur egun 20.000tik gora dira 50 urte baino gehiagoko euskaldun berriak. Euskara ulertu eta zerbait egiten dutenak, berriz, 80.000tik gora.

Euskararen etorkizunaren ardura ez da gurea bakarrik baina, batez ere, gurea da, euskara maite dugunona, euskara geure sentitzen dugunona. Euskararen geroa gutariko bakoitzak ikasteko, dakiguna hobetzeko, erabiltzeko... egiten dugun ahaleginaren araberakoa izango da, neurri handi batean. Gure koherentzia da gako nagusia.

Bukatzeke. Ez genuen idatzi hau argitaratuko ekitaldia gaztelaniaz izatearren, besterik gabe. Edonola ere, honaino helduta, bi hitz esango ditugu horretaz ere. Ez dugu dudarik, aurrerantzean ere gure bizitzan presentzia handia izango dutela beste hizkuntzek: gaztelania, ingelesak, beste batzuek... Guztion artean pentsatu beharko dugu nola uzta

litekeen hori Bergaran euskara hizkuntza nagusi izatearekin, Bergara euskararen arnagune izatearekin. Seguruena, guztion artean formula berriak bilatuaz joan beharko dugu. Besterik ez. Besarkada handi bat Jose Luisi. Mugituko da!

## AUKEAri erantzuna

Ramon Barrutia Urreta (Arrasate Errugbi Taldeko presidentea) Arrasate

Pasa den ekainaren 8an AUKEAko presidentek publiko egindako prentsa oharrean adierazitakoak erantzuteko, Arrasate Errugbi Taldeko Zuzendaritza Batzordeak honako hau argitu nahi du:

1-Maiatzaren 20an, eta AUKEAko sarrera-zigiluan adierazten den moduan, Mojategiko instalakuntzak erabiltzeko eskaera egin zuen Arrasate Errugbi Taldeak, bertan burutu behar zen ikastaroaren nondik norakoak azaltzen zituen txosten ofizialarekin batera.

2-Eskaera hori maiatzaren 30ean AUKEAko Zuzendaritza Batzordeak egindako bilerako gai-zerrendaren barruan sartu zuten, eta bertan eztabaidatutakoaren inguruan ez du ezer adierazi nahi Arrasate Errugbi Taldeak.

3-Antzeko aurrekariarekin topo egiteko 2008. urteko iraila/ekainera jo behar dugu, orduan Arrasate Errugbi Taldeak Euskal Errugbi Federazioarekin batera hastapen ikastaro bat burutu baitzuen, eta orduan hori

burutzeko ezarritako doako baldintzak oraingo ikastaro honetarako eskatutakoan antzekoak izan ziren.

4-Intzidentzia hauen aurrean Arrasate Errugbi Taldearen aurreneko helburua AUKEAko langileen erantzukizuna salbatzea izan da, eta ondoren teknifikazio ikastaroa burutzea, bertan izena eman zuten pertsonen gatazka honekin inongo erlaziorik ez izanda euren eskubidea zelako.

Klubuen eta AUKEAren arteko harremana bere horretara bueltatzeko prest gaude, eta hori Udal Gobernu berriarekin lortzeko itxaropena dugu. Bitartean, Arrasate Errugbi Taldeak ez dio gai honen inguruko beste adierazpen publikori erantzungo.

## 25 urte sentimenduz

Leire Ibarzabal Beitia (Bergarako Orkestra Sinfonikoko kidea) Bergara

Urteak pasa dira Gabonetako kontzertu ostean izaten dugun afarian Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikari eta lagunentzako bertso hau bota nuenetik:

*"Urteak daramatzen Musika munduan Daukaken onena dun Izan zak kontuan Entsaio ugari eta Gogoz kontzertuan Lan borondate horreaz Ai, ai, ai, ai... Urte asko zegi zan".*

Oraingo honetan, 25 urte sentimenduz bizi arazi dizkidan orkestrari eta orkestrako lagunei zorionak

eta eskerrak bihotz-bihotzez eman nahiko nizkieke.

Zorionak, orkestrako musikariei, 25 urte hauetan ilusio eta gogo bizirik mantendu izanagatik. Zorionak, baita ere, orkestrak aurrera egitearen esfortzu, lan eta sakrifizio handiagatik. Zorionak eta eskerrak, orkestrak bere lehenengo urte luzeetan, edozein momentu eta tokitan, laguntzeko prest izan zuten lagun talde bereziari, gurasoei, Bergarako musika eskolari eta Bergarako Udalari. Zorionak eta eskerrak, 25 urte hauetan zuzendari eta maisu izan dugun Alfredori, berak orkestra sortu, martxan jarri eta aurrera eramateko egin duen lan handiagatik.

Burututako lanak astunak izan dira, baina jaso ditugun sari eta zorionak askoz ederragoak izan dira. Guztiok orkestragatik asko egin dugu, baina orkestrak guregatik gehiago egin duelakoan nago. Orkestrak lagun talde handi bat eman digu, denoi batera bizipen ederrak izateko aukera eskaini digu, bertan parte hartzen dugunon bizitzan eta bizitzeko eran indarra izan du eta 25 urte zoragarri sentimenduz bizi izateko aukera eman digu.

25 urte hauetan orkestrak izan duen ibilbide zoragarri eta hutsik gabekoak merezi du txalo zaparrada indartsua; beraz, miresmen, gogo eta ilusio handiarekin, txalo egiten diot orkestrari. Guztiok batera datozen urteotan orain arte bezalaxe Bergarako herriak merezi duen orkestra sinfonikoa izaten jarrai dezan lanean jarraituko dugulakoan, orkestra osatzen duten lagun guztiei besarkada beroa ematen diet. Zorionak eta eskerrak asko.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 0513

# PAZKOAK 2011

GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

EKAINAK 17, 22:15 | EKAINAK 18, 10:00 / 16:45 / 21:00 | EKAINAK 19, 14:00 / 22:30







Fermin Garmendia, LKS kooperatibako aholkularitza eta zerbitzu juridikoen alorreko zuzendari nagusia. | ENEKO AZKARATE

**Fermin Garmendia** | LKSko zuzendari nagusia

## "Oso inportantea da hemengo eredu aintzat hartu, aztertu eta zabaltzea"

- ▶ LKS kooperatibak 20 urte bete berri ditu eta bazkideekin ospatu du
- ▶ Negozio eredu eta eskaintza berriak abiatzea da taldearen erronka

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Bi kooperatiba oinarri ditu LKS taldeak: ingeniariaritza, batetik, eta aholkularitza eta zerbitzu juridikoen kooperatiba, bestetik. 20 urte bete berri ditu. Asko aldatu da Olandixon sortu zenetik. Munduan barrena ditu egoitzak gaur egun. Fermin Garmendia (Bergara, 1964) da LKSko aholkularitza eta zerbitzu juridikoen zuzendari nagusia.

### Zelakoa zen LKS duela 20 urte?

Lehenik eta behin, esan nahi dut ni ez nintzela sorreran izan; artean, ez nintzen bazkide. LKS sortu zen 1991ko maiatzaren 2an eta 49 bazkidek sinatu zuten sorrerako akta. Euskadiko Kutzako enpresa alorrekoak ziren bazkideak eta LKS sortu zuten proiektu berriari helteko. Gaur egun, ia 1.000 bazkide gara taldean. Horietatik, kooperatibetan, 500 inguru. Hazkunde, begi-bistakoa.

### Gaur egun, Garaia Berrikuntza Guneko egoitza nagusiaz gain, beste hainbat tokitan ere badauzkazue, ezta?

Bai, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Ipar Euskal Herrian, Kantabrian, Madrilan, Bartzelonan, Hego Amerikan... Beste merkatu batzuk lantzen hasi gara Txinan, Indian... Gure helburua da mundu osora

zabaltzea, nahiz eta Euskal Herria izan, gaur egun ere, gure jardun eremu nagusia.

### Batik bat, zergatik da ezaguna LKS?

Gure berezitasuna da zerbitzuak eskaintzen ditugula. Ez daukagu produktu konkreturik, beste enpresa industrial batzuen moduan. Bestalde, gure indar nagusia da kooperatiba izatea. Eta, horretaz gain, gure inguruan beste enpresa batzuk sortzen dihardugu: batzuk kooperatibak dira eta beste batzuk elkarte anonimoak, baina guztietan pertsonak dira erdigunea. Gure beste ezaugarri bat da jarduera ezberdinak ditugula: ingeniariaritza, aholkularitza, zerbitzu juridikoak... Horrek berezi egiten gaitu merkatuan.

### Egiguzu berba LKSren bi alor horien gainean.

Orokorrean, LKS ingeniariaritza etxegintzara edo eraikuntzara bideratuta dago; azkenaldian, baita zaharren egoitzen kudeaketara ere. Eta baita diseinu industrialean. Beste negozio eredu aholkularitzarena da.

### Zerbitzu juridikoak eta aholkularitza diozunean, zertaz ari zara?

Plan estrategikoez, negozio ereduez, produktibitatearen azter-

ketez, sistema informatikoez... Bestetik, juridikoki, eremu fiskalaz, prozesalaz, laboralaz... Atal ezberdinak jorratzen ditugu eta, ondorioz, profil profesional oso ezberdinak ditugu: ekonomialariak, abokatuak, psikologoak, ingeniariak, arkitektoak...

### Bi negozioetan doakizue ondo?

Oro har, ondo doakio taldeari azkeneko urteetan. Egia da ingeniariaritza alorrean sufritzen gabiltzala, baina, gure jarduera sakanatuta dagoenez, emaitza positiboak lortu ditugu. Krisi sasoi honetan, ondo aritzeko gakoetako bat zerbitzuak dibertsifikatzea da.

### Zein da aurreikuspena?

Gure helburu bat da zerbitzuen jarduera bultzatzea, bai LKSn eta baita, oro har, Mondragonen ere. Negozio berrietan murgiltzea... Aurten, esaterako, bi negozio berri sortu ditugu: batetik, hemengo enpresek kanpoan inbertitzeko aholkuak emateko eta, bestetik, finantza alorra kudeatzeko.

### Zelakoa izan da iazko urtea?

Oro har, ona; bereziki, sektorearekin konparatuz. Euskadiko merkatuan, gure posizioa nabarmen hobetu da. Eta 2009ko urtea

baino hobea izan da iazko jarduna. Krisia apurka-apurka gainditzen goaz. Ez ditugu berriro ere lortuko 2007 eta 2008. urteetako emaitzak. Aurrerantzean gogor borrokatu beharko dugu hobetzeko. Bereziki, ingeniariaritza alorrean. Bestalde, espero dugu 2011 iazkoa baino urte hobea izatea.

### Krisia zelan zabiltzate pasatzen?

Kooperatiba izatea abantaila da. Batetik, malguagoak gara merkatura jo eta eskaintza egiterakoan; eta, bestetik, barrura begira, errazagoa da gauzak azaltzea eta erabakiak hartzea. Bestalde, kooperatiba izateak ahalbidetzen du kontuak, irabaziak, kapitalizatzea.

**"49 bazkidekin hasi zen LKS duela 20 urte; gaur egun, 1.000 gara"**

**"Gazteek bidaiatu eta lan egin beharko dute munduan barrena"**

Guk ez ditugu irabaziak banatzen. Ona da krisiari aurre egiteko.

### Zeintzuk dira aurrera begirako asmo edo helburuak?

Taldea hazten joatea garrantzitsua da. 2010. urtea 1.000 bazkidekin amaitu zuen taldeak eta aurten espero dugu 1.100ekin amaitzea. Pertsona gehiago lortzeko gure enpresetarako behar dugu zerbitzu gehiago eskaintzea, negozio berriak sortzea... Eta gure borroka da hori zelan lortu.

### Ipar Kutzarekin batera enpresa berria osatu duzue. Zer da?

Enpresen erosketan aholkuak eman izan ditugu. Aholkularitza eskaini izan dugu alor horretan. Baina uste dugu horretarako enpresa espezializatua sortu behar dugula aholkuak alor finantzarioan ere eskaintzeko. Hortik Ipar Kutzarekin egin dugu aliantza.

### Langileek enpresetan parte-hartze gero eta handiago izan behar dutela entzuten da azkenaldian. Hori da bizirik irauteko edo arrakasta izateko gakoetako bat?

Bai. Bide hori ezinbestekoa da etorkizun hurbilean. Mondragoeko eredu hor dago. Baina badaude beste sozietate mota batzuk ere, eta, horietan, langileek geroago eta protagonismo handiago izan behar dute. Kapital pribatuko hainbat multinazional ari dira gai hau lantzen.

### Bestalde, nazioartekotzea ere bada hemengo enpresen premia.

Ezinbestez. Mundua aldatzen doa; erdigunea ez dago Europan. Eta hemengoa indartzeko kanpora joan behar dugu: Asiara, Ameriketara... eta, etorkizunean, baita Afrikara ere.

### Arlo akademikoan baduzu esperientziarik. Zelakoak dira etorkizuneko euskal kudeatzaileak?

Oraingo gazteek, Erasmus edo beste era bateko programak erabiliz, mundua ezagutzeko aukera dute. Hori oso inportantea da. Kontua da non egingo duten lan. Bidaiatu beharko dute orain arte baino gehiago eta lan ere munduan barrena egin beharko dute.

### Liburu bat argitaratu berri duzu, Antonio Canceloren gainekoa...

Jeneralean, ekonomiari buruzko liburu teknikoetara jotzen dugunean, Ameriketako Estatu Batuetako ereduak erabiltzen ditugu. Haiek idatziak, hango ikuspuntuaz eta haien teoriez. Guretako oso inportantea da hemengo eredu aintzat hartu, ikasi, aztertu eta zabaltzea. Mondragon erreferentia da hainbat alorretan. Eta hori zabaldu nahi dugu. Orain Cancelo izan da; aurrerantzean, beste batzuen ideiak ere zabalduko ditugu.

**"Gogor borrokatu beharko dugu hobetzeko; bereziki, ingeniariaritzan"**

**"Mondragon erreferentia da eta eredu hori zabaldu nahi dugu"**



TORRA+PORTELLA

Zure Tekno sofa baino leku hoberik ez duzu interneten ibiltzeko. Bere eserleku irristagarriekin, eta sofak berak duen argindar-hartunearekin, bateriarik gabe gera ez zaitezten, erosotasun guztia ematen dizu. Izan ere, Kibuc-en altzariak eta osagarriak zure bizitzeko moduaren neurrira egindako konponbide moduan ulertzen baititugu. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

# ZU on-line zaude



Zuri bizitza errazteko aukerak

gutxieneko prezioa bermatuta



## 1.369 €

114,10 € x 12 hilabete interesik gabe\*

 Irriagarria

 Bizkar etzangarria

## KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 [gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



Proiektu eta eraberritze integralak

## KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

**Tekno sofa** Erosotasun eta teknologia proposamena. 3 lagunentzako sofa eta chaiselonguea Claudia 9 ehun grisean. Neurriak: 270/165 zm. Eskuz mugi daitezkeen eserlekuak eta buruko etzangarriak ditu. Motorrak jartzeko aukera dago (2 eserlekurentzat, 240 euro). Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. Ehun eta kolore aukera handiaqoa ere badaqo (Brontzea eta Sustapena serieak). BEZ barne. \*Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.



## DUELA 10 URTE

2001-06-15

## 'Portu'-ren omenez kontzertua

Kontzertu berezia egin zuten 2001eko ekainaren 15ean Arrasateko Monterron parkean, Rip musika taldeko baxu-jotzaile Eduardo Mancebo *Portu*-ren omenez. Haren lagunek omenaldia prestatu zioten, 80ko hamarkadako punk taldeekin. Rip, Ume Gaiztuak, Puñetazo, Heriotza, Eskizofrenia Rock, Anti-Regimen, Odio eta MCD taldeak igo ziren agertoki gainera. Hiru mila lagun inguru batu ziren Monterronen.



Rip taldeko Karlos, Monterronen. | IKER ZUBIA

2001-06-21

## Egitamu Orokorra Arrasaten

Egitamu Orokorrari hasierako onarpena eman zion Arrasateko udalbatzak. EH, EB eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EE, PP eta EAJren kontrakoekin onartu zen. 2009-ra arte herrian izango ziren aldaketak eta hazkundeak modu antolatua eta ordenatua egiteko irizpideak aztertu zituen Udalak. Herriaren beharrak zehaztu ziren: etxebizitzaren premia, jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharra eta Garaia eraikitzea.

## DUELA 5 URTE

2006-06-15

## Elgetako Torrealdea abian

Javier Madrazo, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako orduko sailburua, Elgetan izan zen. Bizigune programa sinatu zuen, eta jarraian, Torrealderantz, babes ofizialeko etxebizitzak egingo zituzten lekuz, abiatu zen, lehen harria jartzera. 20 etxebizitza egin ziren, bi eraikinetan banatuta.

## ARETXABALETA

**Karmele Agirregabiria** Leintz Udal Euskaltegiko zuzendaria bi alabaren ama da, eta Bergarako Ubera auzoan "oso gustura" bizi da; Eskoriatzatik, bereziki, etxekoen falta igartzen du. | MIRIAN BITERI

# "Oso dantzazalea naiz; dantzei ez ezik, jantziei begira ere egoten naiz txapelketetan"

**A**tsedenerako denbora barik topatu dugu egunotan Karmele Agirregabiria eskoriatzarrak. Bergarako Ubera auzoan bizi da, eta lanetik irteetan hango jaietan ibili da. Tartean, zapatuan, Jesus Elortza senarra Bergarako alkate izendatu zuten.

**Lehenik eta behin, zelan joan dira alkate ezkontide moduan igarotako lehen egunak?**

Ederra izan da: hunkigarria. Jende askoren hurbiltasuna sentitzeko aukera izan dugu.

**Egun mugituak izan dira, Bergarako jaietan murgilduta egon zarete-eta asteon. Zelan?**

Oso ondo. Oso giro polita egon da. Eguraldiak ere lagundu digu, eta, alde horretatik, kezarik ez. Dena dela, nik erdixka bizi izan ditut, lanean egon naiz-eta.

**Dantza sueltoko txapelketan ikusi zaituzte...**

Bai, ahal dudan guztietan joaten naiz. Segurara ere joaten gara. Zalea naiz. Dantzei ez ezik, jantziei ere begira-begira egoten naiz.

**Zu zeu ere dantzaria zara...**

Bai, dantzaria izandakoa. Umetan Gorosarri dantza taldean ibili nintzen, ahizpekin batera. Oroitzapen politak ditut garai hartakoak, talde handia ginen.

Talde berean txistulari ere ibili nintzen.

**Gaur egun, Leintz euskaltegiko zuzendaria zara. Gogorra da euskaltegi bat zuzentzea?**

Oso talde ona osatzen dugu. Oso harreman ona dugu, eta zuzendaritzan neu agertzen banaiz ere, lankideek laguntza handia ematen didate; horrek, nola ez, ikaragarri errazten du lana.

**Nola ikusten duzu euskara?**

Kantitatearen alde egin dugu, kalitatea ahaztuta. Gaztetxoek jakin badakite, baina darabilten mailak zer hobetu badauka. Hori denon ardura dela dudarik ez dut. Gaztetxo biren ama izanda, beste kontu batek ere kezkatzen nau: gaztetxoak gero eta goizago hasten dira euren artean gaztelaniaz, horri aurre egiteko neurriak denon artean landu beharoko genituzke.

**Eskoriatzarrak bazara ere, Bergaran bizi zara; hain justu ere, Uberan. Gustura?**

Bergara leku ona da bizi izateko. Uberara ezkondu nintzen, eta oso gustura bizi naiz. Oso leku lasaia eta polita da.

**Eskoriatzatik ezer igartzen duzu faltan?**

Etxekoak, ahizpekin kafetxo bat hartzeko aukera izatea; dena dela, aitzakia gutxi behar izaten

## HERRITARRAK



Agirregabiria, Aretxabaletako Leintz udal euskaltegi ondoan. | MIRIAN BITERI

**"Gaztetxoak gero eta goizago hasten dira euren artean gaztelaniaz"**

**"Uberara ezkondu nintzen, eta oso gustura bizi naiz; oso leku lasaia da"**

du, autoa hartu eta Eskoriatzara joateko. [Barre] **Bergarako jaietan ibili ostean, sanpedrotarako gertu?** Buelatxoren bat egingo dugu, nola ez. Aurten zita berezia daukagu txikien danborradan, iloba txikiak parte hartuko du, eta denak joango gara ikustera.

## NIRE HERRIAN

### GAZTEAK ETA ATXORROTZ

Karmele Agirregabiriak gazte eskoriatzarren izaera nabarmendu du. Honakoa esan du horren harira: "Oso gazteria langilea eta konprometitua daukagu". Bestalde, ingurune dagokienez, Atxorrotz mendia du gustukoena. Marin eta Apetzaga elizateetara ere oso gustura joaten dela aipatu du eskoriatzarrak.

### ZERBITZU GUTXI HERRIAN

Gehiena ona bada ere, udalerriak hainbat behar ere badituela sumatu du Leintz Udal Euskaltegiko zuzendariak. Haren esanetan, zerbitzu aldetik "eskas samar" ikusten du, dendak ixten doazela eta gero eta denda gutxiago daudela azpimarratu du. Esaterako, faltan igartzen ditu arropa eta zapata dendak.



70eko hamarkadan Gorosarri taldea osatzen zuten dantzariak. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Kontxi Eraña, Karmele Agirregabiria, Amaia Garcia de Salazar, Arantxa Salegi. Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Maria Jose Azkarate, Edurne Abasolo, Rosa Maria Guirao eta Rosario Martinez. | ESKORIATZARREN UDAL ARTXIBOA



# HERRIAK

BERGARA

## 70 auto erosteko 1.000 aukera ematen dituen azoka

- ▶ Hau izango da 1.000 aukera taldeak antolatzen duen bigarren azoka
- ▶ Autoez gainera, Lambreta eta auto klasikoen erakusketa egongo da

IMANOL GALLEGU | BERGARA

1.000 Aukera taldeak antolatuta, bigarren eskuko ibilgailuen azoka egingo dute bihar Bergarako Seminarioko patioan, 10:00etatik 20:00etara. Azoka asko ikusi ditugun arren, biharko ez da ohikoa izango. Orain arte, mota horretako azokak auto kontzesionario bakoitzak antolatzen zituen, eta gehienetan, enpresei begira egiten ziren. 1.000 Aukera taldeko kide Ander Iturriagaitia dioenez: "Merkatuak zuen hutsune bat betetzeko sortu genuen". Eta datuei erreparatu gero, ongi bete dute, bai. Hasieran unibertsitateko lan moduan hasi baziren ere, Bergarako taldeak antolatu duen bigarren azoka da eta jendearen erantzuna oso ona izan da. Kontuan hartzekoa da, lehen gertatzen ez zen moduan, partikularrek azokaren ardatz eta arrazoi nagusia direla.

Taldeak argi dauka salerosketek behera egin duten arren horrelako ekimenek sektorea indartzeko balio dutela. Horregatik, ez dute azoka profesionalik



Durangon egindako bigarren eskuko autoen azoka. | 1.000 AUKERA TALDEA

egin nahi izan, ekitaldi irekia baizik. Sen ireki hori, gainera, hasieratik jarri dute martxan. Biharko ekitaldian, partikularrez gainera, bailarako marka ezberdinetako kontzesionarioak ere egongo dira. Datua oraindik behin-behinekoa den arren, antolatzaileek 70 auto izango dituztela aurreratu digute.

Kontzeptu sinplea bada ere, atzean sakon hausnartutako ideia dago. "Internetek merkatu handiago aurkezten dizun arren, oso hotza da", gaineratu zigun Iturriagaitia. Eurak merkatu txikiago baten bila dabilta, gertukoa, erreala. Bezeroa, saltzailea eta produktua elkartzen dituen horietakoa.

### Ez da merkatu soila

Antolatzaileek ez dute salmentarako toki bat izan nahi, autoen salerosketaren plataforma izatera iritsi nahi dute. Horretara-

ANDER ITURRIAGAITIA | ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

### "Internet oso hotza da, guk azoka hurbilagoa sortu nahi izan dugu"

Unibertsitateko lan moduan jaio bazen ere, azokak jende asko erakartzea lortu du.

#### Zergatik auto azoka bat?

Lehenik eta behin, autoak gustuko ditugulako, eta, bestetik, bigarren eskuko autoen salmentan hutsune handia ikusten genuelako.

#### Baina Internetek gauzak erraztu ditu.

Bai eta ez. Zuk esan duzun moduan, gauzak erraztu dituen arren, orain salerosketa hotz bilakatu da. Guk



A.I.

hurbilagoa hartueman baten bila gabiltza.

#### Autoei proba mekanikorik egiten diezue?

Ez. Guk salmentak erazteko tokia jartzen dugu. Hortik aurrerako guztia saltzailearen eta eroslearen kargu geratzen da.

#### Baina saltzaileei

#### agiriak eskatzen dizkiezue?

Noski, ez dugu iruzurrik nahi. Segurua eta IATren (ITV) ziurtagiria eskatzen diegu, guztia legala dela frogatzeko.

### "Lehengo azokei buelta bat eman diete"

Argi dauka Renault Autoberriko salmenta koordinatzaile Kontxi Etxeberriak orain arte hemen egiten ziren auto azokei bira ematen jakin dutela. Orain arte, auto enpresa bakoitzak bere azoka antolatzen zuen eta aukera gutxiago zegoen. Bigarren eskuko azoka honek marka ugari izango ditu eta, horrez gain, partikularrek ere parte-hartzeko aukera izango dute. Aukera gehiago izateak, gainera, prezioan eragin zuzena izango du.

Badirudi, auto salmentan guztia egin zegoen arren, honelako ekintzek sektorean oso harrera ona izan dutela. Bergarako azokan bailarako marka ezberdinetako lau kontzesionario egongo dira.

ko, autoak erakartzeaz gainera, jendea erakartzea ere ezinbestekoa da. Horregatik, seminarioan egongo diren autoez gainera, antolatzaileek zenbait ekintza ludiko ere antolatu dituzte. Bergararen kasuan, Lambreta motoren eta auto klasikoen erakusketa egongo da. Bi ikuskizun horietaz gain, familiak erakartzeko, azokak irauten duen bitartean ludoteka zerbitzua eskainiko dute. Bertan, paperaz egindako furgoneta bat apaintzeko aukera izango dute gautek. Zerbitzu horiekin batera, azokak taberna bat ere izango du.

Arrakasta korrontearen kontra igeri egiten dutenek lortzen dutela esan ohi da eta 1.000 Aukera taldeak horretan dihardu. Internet alde batera utzi eta produktua kalera ateratzean ausartu da, hor dago azokak eskuratu duen arrakastaren gakoa.

DATUA

70

AUTO

Bigarren azoka hau txikiagoa izango den arren, antolatzaileek, bigarren eskuko, 70 auto batzea espero dute.

# UMIE

Garibai 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 97 86

Gora San Juanak!

%20ko  
DESKONTUA



# Txikienak erabateko protagonista izango dira San Juan jaien atarian

Haurren danborrada eta erraldoi berrien aurkezpena bihar eta Haur Dantzarien Eguna etzi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gainean ditugu sanjuanak, gaur zortzi San Juan eguna izango da. Eta azken urteetako ohiturari jarraituz, aurreko asteburuan ekintzaz lepo dator egitaraua. Protagonista nagusiak etxeko txikienak izango dira, zalantza barik: haurren danborrada, erraldoi berrien aurkezpena eta Haur Dantzarien Eguna egingo dira gaur eta bihar -300 dantzari espero dira domekan; argibide gehiago 15. orrian.

## Erraldoi berriendako jaialdia

Ezin dira ulertu sanjuanak erraldoi eta kiliki barik. Bihar egingo dute urteroko kaleko entsegu. Hitzorduaren helburua da urtean zehar haurrekin Saiolango lokalean egiten dutena herriari erakustea. Gainera, aurten egin diren erraldoi berriak herriari erakusteko ere balioko du: Ferroia, Mari, Basajauna eta Lamina.

Horrez gain, dirua batzea ere bada helburua; halaxe dio Iñaki Arsoaga konpartsako kideak: "Krisian gaude eta Udaletik ez da diru askorik heltzen. Gero eta haur gehiago ditugu, eta, beraz, gero eta gastu gehiago". Egun osorako egitaraua prestatu dute. 11:00etatik aurrera Saiolango eraikinetik kalejiran irtengo dira Seber Altuberaino. Bertan, txis-



laz Jokin Zaitegi plazan geldialdia egin zuten euriagatik. Aurten eguraldia lagun izatea espero dute guztiek. | ARTXIBOA

## ESANAK

**"Aurrekontuak gerrikoa estutu eta zer antolatu bi aldiz pentsatzera eraman gaitu"**

JON GARAI  
KULTURA SAILEKO TEKNIKARIA

torra, edaria eta konpartsaren materiala saltzeko txosna txiki bat jarriko dute. Eta, noski, erraldoien saiorik ez da faltako. Bi saio egingo dituzte: lehena, 11:30ean, erraldoi nagusien erreplika diren erraldoi txikiekin. Bigarrena, berriz, 13:30ean: erraldoi berriak jira eta bira jarriko dituzte, lehenengoz.

Bazkalostean saiheski pintxoak eta garagardoa jarriko dute salgai, 18:00etatik aurrera. Haurrendako eskulan tailerra egongo da eta

bildots bat zozketatuko dute Seber Altuben bertan.

## 240 haur biharko danborradan

Bestalde, haur danborrada izango da bihar. 240 bat haur inguruk hartuko dute parte, Juan Luis Arkauz SUDC elkarteko presidentek dioenez: "Haur danborradak arrakasta izaten du beti. Guraso eta ezagun asko joaten dira haurrak animatzera eta haurrek ilusio handiz hartzen dute. Entseguetan zein gogotsu dabil-

tzan ikusi besterik ez dago". Eguraldiak laguntzen badu "egun polita eta giro ona" egongo dela uste du Arkauzek. Izan ere, iaz Jokin Zaitegi plazan -ondoko irudian- geldialdia egin behar izan zuten euria hasi zelako: "Baina Herriko Plazara heltzea lortu genuen", argitu du Arkauzek. Gainerakoan, nobedaderik ez. Ibilbidea urterokoa izango da -Nafarroa etorbideetik irten eta Herriko Plazan amaitu- eta Arrasate Musikaleko bandak jarriko du musika.

Azkenik, helduendako zita garrantzitsua: sanjuanetako 15. mus txapelketa jokatu da Aldape tabernan -batzokia- (16:30).

## Duela lau urteko aurrekontua

Jaien antolaketari dagokionez, Udalak duela lau urteko aurrekontu bera duela dio Jon Garai Kultura teknikariak: "Aurrekontuak gerrikoa estutzera eta zer antolatu bi aldiz pentsatzera eraman gaitu, eta datozen protagonistekin negoziatzera". Gainera, Udal Gobernu aldaketak parean harrapatu ditu aurten: "Utzi berri duen korporazioak onartu ditu aurrekontua eta egitaraua. Hori bai, egitaraua gauzatzea berriei dagokie; jende berriarekin aritu beharko dugu lanean. Hala ere, ondo moldatuko gara".

arbolapeta

arrasate

beinke

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PUB HAIZEA

arrasate

ad Ibabe

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnosa-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE





Unai Iturriotz, Arrasaten, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

**Unai Iturriotz** | Hizkuntza Eskubideen Behatokiko aholkularia

## "Eguneroko urratsak egiten segituko dugu, ahal duguna egiten"

Erregistro zibilean izenak euskaraz inskribatzeko aukera egotea espero du Iturriotzek, gaur ezker

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Unai Iturriotz abokatu arrasatearra jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz inskribatzeko auziak bizi duen egoera azaldu digu.

**2005ean aitortu zen eskubidea. Zergatik ezin da hainbat herritan gauzatu oraindik?**

Infore izeneko informatika sistema bidez inskribatzen dira izenak espainieraz ez den beste hizkuntza baten. Sistema hori EAEko leku batzuetan ez dago instalatuta, instalatuta dagoen

leku batzuetan langileek ez dute formaziorik jaso eta beste kasu batzuetan formazio ikastaroa jaso dutenei Jaurlaritzak edo Estatu-ko Justizia Sailak ezinbesteko pasahitza ez diete eman. Halakorik gertatu ez den lekuetan erregistro zibilean inskripzioak euskaraz egin daitezke, baina beste leku askotan ez. 2011n EAEko errealitatea da herri askotan oraindik ez dela posible. Egin daitekeen lekuetan eskubidea gauzatzeko dei egiten dugu.

### Arrasaten, zein da egoera?

Gure datuen arabera, Debagoiengan informatika sistema hori instalatuta dago Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, adibidez. Ibarreko gainerako herrietan ez dakigu zein egoeratan dauden.

Arrasaten, baina, egubakoitzean [gaur] sistema erabiltzen jakiteko ikastaroaren azken saioa egingo dute bake epaitegiko langileek. Hori bai, oraindik ez dakigu egun horretan pasahitza emango dieten edo ez.

### Beraz, Arrasaten ere euskaraz inskribatzeko aukera egongo da laster.

Nahi badute egubakoitzean [gaur] bertan, Jaurlaritzatik pasahitza ematen badiete. Baina traba eta arazoak egon badaude: Eskoriatzan, adibidez, ikastaroa martxoan amaitu arren maiatzean jaiotako haur bat ezin izan zuten euskaraz inskribatu. Gure nahia da, espainieraz egiten den moduan, euskaraz ere inongo arazo barik inskriba ahal izatea.

### Zein aurreikuspen duzue?

Ez dakit esaten, luze doa borroka. Borroka moduan planteatzen dugu, ez delako ohikoa 2005ean aitortu zen eskubide bat sei urte beranduago EAEko 200dik gora herritan aplikatzeko aukerarik ez egotea. Eguneroko urratsak ematen jarraituko dugu, ahal duguna egiten. Hau da, herritarrei bidea erraztu, aholkuak eman eta ahalik eta babes handiena eskaintzen saiatuko gara.

Erakundeetan esan digute plangintza bat badutela, baina ez digute egutegi hori mahai gainean jarri, sekula ez.

## "Espainieraz egiten den moduan nahi dugu euskaraz ere inskriba ahal izatea"



JULEN IRIONDO

## Ekintza ugari Nagusien Astean

Nagusien Astea ospatu dute Iturbideko egoiliarrek. Danborradako entseguarekin hasi zituzten ospakizunak eta, besteak beste, karta eta diana txapelketak, Jose Inazio eta Roberto Alvarezen musika emanaldia –argazkian–, Donostiara irteera eta dantza saioa egin dituzte. Gaur amaituko dituzte ospakizunak: bolo txapelketa (10:00) eta opariz jositako bingo berezia egingo dituzte (17:00).

### Denboraldiko loreen erakusketa biharko baserritarren azokan

Bihar egingo da ekaineko baserritarren azoka. Ohiko 11 postuez gain, Jesus Romero sukaldariaren pintxoak dastatu ahalko dira. Azokan eroketa egiten dutenei pintxo bana banatuko zaie. Eta aurreko hilean moduan, pintxoak egiteko errezetak eta aholkuak emango ditu Romerok.

Nobedadea da Zarautz eta inguruko lore mintegi bat etorriko dela. Denboraldiko loreen erakusketa txiki bat jarriko dute: "Ikusgarria izango da, azoka jantziko du", azaldu du Marga Garmendiak, Enplegu Saileko teknikariak. Uztailean ere egingo da azoka.

### 'Erdigunea piztu' ekimenaren azken festa egingo dute bihar

12 eta 17 urte artekoendako *Erdigunea piztu* ekimenaren barruan azken ekintza antolatu dute Udalak eta Txatxilipurdik: urban festa. Arratsalde osorako plana prestatu dute biharko, 16:30ean hasi eta 19:30ak arte. Mikropatin, skate eta BMX modalitateetako bizikleten txapelketa, grafiti lehiaketa eta zuzeneko musika izango dira protagonistak. Hitzordua Nafarroa etorbideko parke berrian da, Udaltzaingoaren eta Txatxilipurdiren egoitzaren ondoan. Lexuri Doyague gazte arrasatearrak grafiti bat marraztuko du arratsaldean zehar.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



943 71 17 68

# Toñi

ile-apaindegi mistoa

Ondo pasa  
San Juanak!

ZERBITZU BERRIA:  
makillaje  
ikastaroak



Tel: 943 79 14 70 • Iturriotz kalea 23 • ARRASATE



## Malen Ruiz de Azua Katalunian lehiatuko da

Istar Dapena Anoetan egongo da domekan, Valladoliden bigarren sailkatu eta gero

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan Malen Ruiz de Azua Granollersen izango da, Katalunian, aire zabaleko hitzordu handienetako baten, gazte mailako Espainiako txapelketa jokatuko dute-eta. Arrasatekoa aire zabaleko denboraldiko marka egiten ahaleginduko da, eta podiumera igotzen.

Eta etxetik gertuago, Anoetan, Euskadiko kadete mailako txapelketak egingo dituzte asteburuan; bada, bertan esku hartzeko Arrasateko klubeko hiru atletak lortu dituzte gutxieneko markak. Istar Dapenak eta Alba Etxandiak pertika saltoan jardungo dute eta Aretxabaletako Maddi Garrok luzera saltoa egingo du.

### Jonathan Perezen ordezkoa

Jonathan Perez, Arrasateko atleta eta entrenatzailea, gogotsu dago berak utziko duen errelebu nork hartuko duen ikusteko. Gipuzkoak, eta Euskal Herriak, azken hamarkadan gizezkoetan eman duen pertika jauzilari onenetakoa da Perez, eta, oraindik ere soka luzea geratzen bazaio ere, dagoneko hasi da errelebu bila. Eta badirudi etxean duela errelebu hori. Hain zuzen ere, bere aginduetara egiten du lan Istar Dapena gazte arrasatearrak, eta, kadete mailako atleta oraindik gaztea bada ere, bide polita darma, azken emaitzek erakusten duten moduan.



Istar Dapena. | X.U.

Arrasatekoa Valladoliden izan da, Espainiako txapelketan, eta bigarren sailkatuta itzuli da, 3,55 metroko saltoarekin. Dapenaren marka onena, baina, 3,65 da. Dapenak hilaren 26an izango du hurrengo hitzordua, kadete mailako Espainiako txapelketan. "Beste dominaren bat lortzea espero dugu, lan ondo egiten dakien atleta baita", adierazi du Jonathan Perez entrenatzaileak.

### Davila, Euskadiko txapeldun

Bestalde, Arrasateko atleta Martin Davilak Euskadiko txapelketa irabazi zuen joan den astean Durangon, beteranoen kategorian. Hain zuzen, Davilak 35 urtera artekoen kategorian korritu zuen, 400 metroko lasterketan, eta 54.12ko marka egin zuen.

## Borroka arteak gertutik ezagutzeko aukera bihar

Uarkapen egingo dute aikido, judo eta kenpo borroka arteen ikastaroa

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Bihar egingo dute, Uarkapen, Borroka Arteen Eguna, eta egun osoko ikastaroa izango da, goiz eta arratsalde: "Bailaran hainbat kiroltatik haratago gauza oso gutxi egiten ditugu, eta jendeak ikus dezala badela bestelako aukerarik", adierazi digu ikastaroko antolatzaileetako batek, Jose Manuel Matak. Hala, aikidoko, kenpoko eta judoko irakasleak izango dira, nahi duen orori, debalde, borroka arte horiek gertuagotik erakusteko gertu: "Lehe-

nengoz egingo dugu egun bateko ikastaro modukoa. Beste batzuetan erakustaldia egin izan dugu, baina lehenengoz egingo dugu ikastaro hau, jendeak borroka arte hauek gertutik ezagut ditzan".

### Arropa eroso eraman

Uarkapen goiz eta arratsalde egingo duten ikastarora arropa erosoarekin joateko gomendatu du Matasek: "Kirol jarduera egingo dugulako. Borroka arte hauek, baina, ez dira kirol jarduerara

mugatzen, kontzentrazioa hobetzeko balio dute, koordinazioa lantzeko...".

Ikastaroa haur eta nagusiei zuzenduta dago; goizeko saioa 10:00etan hasiko dute, 13:00ak arte. Eta arratsaldekoa 17:00etatik 19:00etara egingo dute. Hala, irakasle lanetan borroka arte horietan eskarmentu handia duten hiru maisu izango dira: aikidoan Jose Manuel Matas, judoan Julio Gallego eta kenpoan Rafa Carriet. Izena lehenago emateko, deitu 627 44 21 42 zenbakira.



Ikastaroa emango duten Jose Manuel Matas, Julio Gallego eta Rafa Carriet maisuak. | J.M.MATAS

# erreka

taberna - jatetxea

Ondo ibili San Juanetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate

Tel.: 943 53 32 72

erreka@errekajatetxea.eu



# Lore

Lurrindegia eta estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE

943 79 52 50

**SARRAILAGINTZA-LANAK,**  
**24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.**  
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

# RAOS

Bañez doktorea 6, behea

Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

**islada**  
ile apaindegia

SPA masajeak, sentrazio erlaxatua eta berriztua.

Ondo pasatu San Juanak!

Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: [isladaileap@hotmail.com](mailto:isladaileap@hotmail.com)





Big Band taldeak Elgetan eskainitako kontzertua. | ARRASATE MUSIKAL

## Alemaniarra joango dira Big Band taldeko kideak

Bi saio eskainiko dituzte Munichen; bestalde, gaur kurtso amaierako kontzertua Amaian

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Arrasate Musikaleko doinuak Alemanian ere entzungo dira; izan ere, Big Band taldeak bi kontzertu eskainiko ditu Alemaniako Munich hirian.

Ekainaren 24an bidaiatuko dute arrasatearrek Bavierako hiriburura. Hilaren 26an Freies Musik Zentrum auditoriumean eskainiko dute kontzertua, 19:00etan. Hilaren 28an, ostera, Municheko Europako Eskola-ko auditoriumean eskainiko dute kontzertua arrasatearrek, 12:00etan.

### 10. urteurreneko ospakizunak

Alemaniarra ez da izango datuzen egunetan izango duten hitzordu bakarra. Izan ere, orain dela hilabete batzuk Leioako eta Amurrioko taldeekin hasitako elkartrukearekin jarraituko dute arrasatearrek. Hala, ekainaren 22an Amurrioko auditoriumean eskainiko du saioa Arrasate Musikaleko taldeak, 20:00etan.

Bestalde, uztailaren 1ean, urtero egiten duten kontzertu berezia egingo dute. *A.M. Big Band festibala 10 urte* 22:30ean izango da, Monterron parkean.

### Kurtso amaierako kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleak kurtso amaieran murgilduta daude. Hala, hainbat kontzertu eskaini dituzte azken egunotan. Musika eskolan bertan, klarinete, biolin eta biolontxelo kontzertuak eskaini dituzte, besteak beste.

Gaur, ostera, kurtso bukarako kontzertua eskainiko dute gaztetxoek, Amaia antzokian, 18:30ean. Hainbat instrumentu taldez gozatzeko aukera egongo da, eta, nola ez, musika eskolako txikienek ere abestuko dute. Gainera, ballet taldeak ikuskizuna eskainiko du.

Bada, Arrasate Musikaleko ekitaldiek bihar izango dute jarraipena. Izan ere, musika eskolako musika bandak haurren danborrada alaituko du. Arratsaldeko zazpietan hasiko da eta herriko kaleak alaituko dituzte, beste behin ere.

## Haur dantzariak dantzaz beteko dute herria etzi

Euskal Herri osotik etorriko dira gaztetxoak: guztira, 10 taldek parte hartuko dute festan

A.E. | ARRASATE

Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domekan. Dagoeneko ohiko bilakatu den ekitaldia da, eta aurtengoan ere ez dute hutsik egingo. Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeek antolatuko dute saioa.

Egun osoko jaia izango da. 10:00etan ongiatorria izango dute pilotalekuan. Haur dantzarien talde guztiak –Oñati, Aretxabaleta, Antzuola, Soraluze, Legazpi, Aramaio, Atarrabia eta Basauri; eta, nola ez Arrasate bi taldeak– Zaldibarren elkartuko dira. Herriko Plaza-rra joango dira kalejiran eta han hamarretakoa egingo dute.

### Etxeetan bazkalduko dute

Dantza erakustaldia egingo dute ondoren herriko kaleetan, taldeetan banatuta. 13:30ean berriro elkartuko dira plazan eta haurrak etxeetara bideratuko dituzte.

### Alardeko dantzak

Alardea hasteko, agurra egingo dute lehenengo, eta gero, mutilek eta neskek banatuta egingo dituzte hainbat dantza. Amaieran, guztiek batera gorulari, txantxoak eta larrain-dantza egingo dute.

Dantza saioa amaitu ondoren Kaixo taldearen eskutik musika egongo da Herriko Plazan. Bestalde, euria egiten badu, ekitaldi guztiak Uarkapen egingo dira.

DATUA

# 300

HAUR

Hamar taldetako 300 dantzari baino gehiago elkartuko dira Arrasaten.

## Gaur zabalduko dute Julio Galartaren omenezko pintura erakusketa Kulturateko klaustroan

Gaur hasi eta uztailaren 17ra arte Julio Galartaren 60 bat lan egongo dira ikusgai Kulturateko klaustroan. Arrasatek eman duen margolari handienetarikoa bat da Galarta, eta erakusketaren bitartez omenalditxoa egingo diote. *Koloreen maisua* deitzen zioten adituek. Bestalde, Arrasate Margo Taldeak antolatuta Herensugea margo lehiaketa egingo dute bihar, zapatua. Zazpi-garren edizioa izango da. Izen-ematea 09:00etatik 10:00etara izango da Tamayo paper-dendan.

Ondo pasatu San Juanak!

# Jose Antonio

## ile apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

MONTE TABERNA  
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Gora, Sanjuan jaiak!

ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

# JON

## PORTALOIKO LIBURU ETA PRENTSA DENDA

Ondo pasatu Sanjuanak!

Erdiko kale 9 • 943 79 34 37

# KIMETZ

## taberna

Plater konbinatuak  
Ogitarteko hotz eta beroak  
Hanburesak  
Pintxoak  
Razioak

943 10 97 30  
Maalako Errebala 15. ARRASATE



## Eguaztenean hasi ziren San Pedro parrokia berritzeko lanak

M.B. | BERGARA

Asteon, eguaztenean, hasi dira San Pedro parrokia zaharbertze lanak. Aldamioak jar-tzea eta eliza barruko artelanak estaltzea da egingo duten lehen lana eta egun batzuk beharko dituzte horretarako.

Helburua parrokia erabat zaharbertzea bada ere, orain hasi dituztenak lehenengo faseko lanak egiteko prestakizunak dira: nabe nagusiko teilatua

eta kanpandorra konponduko dituzte fase horretan eta lanak urtebete inguru iraungo dute. Kanpandorrearen kasuan, egon-kortu eta garbitzeaz gain, dituen gainerako elementuak ere konponduko dituzte: kanpaiak, erlojua... Teilatuari dagokionez, erabat jasoko dute eta egurrezko egitura egoera nahiko onean dagoen arren, usteldutako piezak ordezkaturako dituzte eta guztia egonkortuko dute.



Eguaztenean eliza barruko elementuak ateratzen. | MONIKA BELASTEGI

### NIRE USTEZ

ANDRES OSA  
'SAKONA'



## Bildutik Sortura

kusgarria, pozgarria. Ordua zen!" oihukatzen jaieguna bizi izan dugu. Hainbeste urte mutu izan gaituzte eta normala orain poztasuna kanporatzea. Baita ere presoen alde, askatasunaren aldarrikapena eta independentzia deiak Bilboko kaleetan entzutea. Azkuna jauna haserre, "hauek berdina izaten jarraitzen dute" esanaz. Azkuna, tamalez, ez da aldatu.

Ezker Abertzaleak arduraren tokietan gora jo du eta hori lan ona egin duen seinalea da. Orain marka guz-

tiak hautsi dira. Eta ehunka hautagai eskarmentu handikoak aurkezterik ez izan arren, jende gazteak heldu dio zamari. Ziur gaude udal erakundeek jatorrasuna eta gardentasuna bermaturik dutela. Izan ere, jende berria eta ilusioz beteriko gazteak izanik ustelkerian eta nagikerian ez dira eroriko. Hala ere, erne! Agintea tentagarria izaten baita. Agintean nahiz oposizioan garaipena ziurtatzeko saiatua, apala eta buru argiz jokatzeko, ohitura hutsean erortzeko, funtsezkoa da,

Lorpen handia izan da. Baina hemen demokrazia gabezia begi bistan dago. Euskal Herrian abertzale ikuspegitik bi ardatz nagusi daude, Alderdi Jeltzalea eta Ezker Abertzale debekatua. Epe laburrean Sortu sortzea premiazkoa da eta buruzagi espektatutako gure artean izatea ere bai.

### OHARRAK

#### ZAHARTZAROA BERBAGAI SAN JOXEPEN

*El envejecimiento y recursos personales* delako hitzaldia egingo du Beatriz Peredak hilaren 20an, astelehena. 17:30ean izango da, elkartearen egoitzan.

#### BERGARA KIROL ELKARTEAREN BATZARRA

Urteko batzarra egingo dute hilaren 28an, 19:00etan, Miguel Altuna institutuan. Aurten

hauteskundeak egingo dituzte eta hautagaitzak aurkezteko epea irekita dago.

#### AQUAPARK-ERA IRTEERA GAZTETXOENDAKO

Udalak antolatu du 2000. urte-tik aurrera jaiotakoendako. Uztailaren 6an izango da -06:00etan abiatu eta 22:00etan bueltatu- eta prezioa 18 euro da. Izenematea da ekainaren 20tik 29ra, kultura etxean.

# Dagoeneko bi kontsumo talde antolatu dituzte

Uberara, ekoizle baten baserrira, bisita egingo dute hilaren 22rako; interesatuak gonbidatuta daude

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bigarren Basherrri taldea sortu berri da. Lehenengo martxa onean doala ikusita, ekimenean parte hartzeko aukera herritar gehiagori zabaldu nahi izan diote eta aurreko egunean, azokan aurkezpen batzarra egin ondoren, bigarren taldea martxan dago.

Lehenengoan 15 familiak dihardute. Bigarrenean, seik eman dute izena, baina beste sei familia hartzeko lekua dagoela aurreratu dute kontsumo taldetik. Izan ere, bigarren kontsumo taldea barazki hornituko duen Uberako ekoizleak 12 familia hornitze-ko moduko ortua dauka.

Hori dela eta, dei egiten diete interesa duten herritarrei, bigarren kontsumo taldea hornitzen duen Uberako ekoizlearen baratzeko ekologikora egingo duten bisitara. Hilaren 22an izango da hori, eta 19:00etan egin dute hitzordua Tartufoko aparkalekuan.

#### Era askotako produktuak

Lehenengo kontsumo taldekoak ekain hasieran hasi ziren jasotzen era normalizatuan lehenengo otarra. Taldea otsail aldera martxan jarri bazuten ere, hasieran produktu gutxi batzuk baino ez zituzten jasotzen. Orain, berriz, era guztietako produktuak jasotzen hasi dira, taldekideek abiatutako planifikazioari esker (5 ekoizle



Lehen kontsumo taldeko ekoizle eta familietako kide batzuk. | BASHERRI TALDEA

daude). Eta bigarren taldeak ere halaxe funtzionatzeko aukera izango du: barazki eta ogiarekin osatutako otarre finko bat izango dute eta horri garaian garaiko beste produktu osagarri batzuk gehitzeko aukera izango dute: esnea, haragia, sagardoa, ardi-esnea eta fruitu lehorrak.

#### 30 taldetik gora Gipuzkoan

Basherrri taldeek kontsumitzaileak eta baserritarrak elkartzen dituzte Gipuzkoan eta egun 30 taldetik gora daude, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan, esaterako.

Modu autonomoan antolatzen dira, bitartekaririk gabe, eta taldeak erabakitzen du zer kontsumitu nahi duen, zer ekoiztu behar den.

Hori horrela, sistema horrek baserriko produktuez elikatzen aukera eskaintzen die Gipuzkoako 500 familia baino gehiagori. Konfiantzan, elkar ezagutzen, eta elkarlanean oinarritzen dira Basherrri taldeak. Sasoiko produktuak, freskoak, lurrari lotutakoak eta osasungarriak eskaintzen dituzte, betiere, taldearen beharren arabera.



ANABEL DOMINGUEZ

## San Antonio dagokion lekuan dago berriz

Astelehena ezker kapera berrian dago San Antonioren irudia. Azken urteak Artzamendin atondutako behin-behineko kapera eman eta gero, hartu du dagokion lekua. Erraldien konpartsak eta herritar ugari lagunduta egin zuen kapera berrirainoko bidea, gurdian. Ermita berrian meza entzun eta gero, luntxa egon zen Gure Ametsa elkartean hara bertaratutako guztiendako.



# Udalak eta herriak: "Jaiak ezin hobeak"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Programa luzea antolatu du Udalak aurrean. Dantzaldiak, txosnaguneko kontzertuak, pilotaleku-partiduak, zezen-plaza, idi-probak, umeentzako jolasparkea, barrakak... Askotariko jendearengana iristeko moduko egitaraua antolatzen ahalegindu zen Udala, eta jendearen erantzuna ikusi ostean bete-bete eman zuela dirudi.

Maidar Osa Kultura teknikariak ere festek izan duten erantzun positiboa nabarmendu du: "Jaiak, oro har, oso-oso ondo joan dira. Jendearen parte-hartzea handia izan da eta eguraldiak lagundu egin du". Urteetan egin

gabe zeuden idi-probek ere oso erantzun ona jaso dute. Orokorrean, jende asko ibili da egun hauetan Bergarako kale eta giroan.

## Bergarako herri mugimendua

Txosnen arduradunek ere oso balorazio positiboa egin dute. Bergarako herri mugimenduko kide Unai Arantzabalen hitzetan, "oso jai onak izan dira, kontzertuak, jendea... guztia ondo joan da".

Jendea aipatuta, Arantzabalek bi multzo egin nahi izan ditu: batetik, jai giroa etorri direnak; eta bestetik, festetan ere lanean ibilitakoak. Azken haiei eskerrak ematen dizkie.



17 urteren ostean, idi-probak berreskuratu dituzte aurtengo jaietan. | IMANOL GALLEGO



Herri bazkarian 800 pertsona baino gehiago batu ziren. | IMANOL GALLEGO



Koadrilen arteko jolas bat. | I. GALLEGO



Umetxoek Jarduntxoren atzetik egin zuten moltoetan ibilaldia. | MONIKA BELASTEGI



Bazkal osteko karaokea. | I.G.



Herri bazkariko une bat. | IMANOL GALLEGO



Tabernen arteko lehiaketa. | JAIONE CARPINTERO



Bigantxak zezen-plazan. | JAIONE CARPINTERO



Arantxa eta Pantxo taldearen emanaldia Irala kalean. | IMANOL GALLEGO



Bazkalosteko jolasak. | IMANOL GALLEGO



**Gosari bereziak**  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29





Iazko lasterketako une batean, tropela Osintxu zeharkatzen. | JULIO CALLEJA

## Errepidea emakumeena izango da bihar goizean

Soraluce S. Coop sariko lasterketa egingo dute Osintxun, 11:00etan hasita

XABIER URTZELAI | BERGARA

Zapatuan 11:00etan hasita emakumezkoen lasterketa egingo dute Osintxun hasita. Lasterketak, iaz moduan, Euskal Herriko txirrindulariez gain, beste lurralde batzuetako taldeak ere batuko ditu irteera puntuan.

Iazko ekitaldian 75 txirrindulari izan ziren lasterketan, eta aurten ez dituzte ziklista gutxiago espero, hainbat kategoriatan. Hala, zapatuan ere kadete, gazte eta elite mailako ziklistak batu-

ko dira, eta kategoria bakoitzak ibilbide ezberdina izango du.

Eliteak irtengo dira lehenengo (87 kilometro), eta ondoren irtengo dira gazteak (62) eta kadeteak (31). Antolatzaileek hala egitea erabaki dute, helmugara denak ere nahiko bateratsu iristeko.

### Ibilbidea laua izango da

Ibilbidea laua izango da, Osintxu, Bergara eta Zubillaga artean; hala, parte hartzen duten txirrin-

dulari guztien helmugaratzea erraztu nahi izan dute, helburu nagusia parte-hartzea sustatzea delako. Baina, kontuan izan lasterketa Euskaldun torneorako puntuagarria izango dela.

Iaz puntako ziklistak gailendu ziren Osintxun, Alicia Gonzalez –Espainiako Txapelduna– Tania Calvo –Europako azpitxapelduna– eta Leire Olaberria –domina lortu zuen Pekinen. Eta, biharko probarako ere puntako ziklistak espero dituzte.

## San Martin plaza saskibaloia kantxa bilakatuko da

X.U. | BERGARA

Bergarako Saskibaloia Elkarteak saskibaloia kalera ateratzeko laugarren ahalegina egingo du ekainaren 25ean eta 26an, eta, aurreko edizioetan moduan, aurten ere San Martin plaza kantxa bilakatuko dute, erritmo azkarreko partiduak jokatze-

ta izena emateko azken eguna, hilaren 22a.

Txapelketan kategoria guztietako saskibaloizaleek jokatu ahal izango dute, benjamin mailatik seniorretaraino. Zapatu goizean kadete eta gazte mailakoek jokatu dute eta arratsaldean, 16:00etan hasita, ibarreko seniorren eta elite mailako seniorren txanda izango da, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere. Domekan, berriz, gaztetxoetan txanda izango da, eta 10:00etan hasita alebinek, benjaminen eta infan- tilek jokatu dute.

### Izen-ematea zabalik

Aurreko hiru edizioetan txapelketak hartu duen oihartzunarekin, antolatzaileek aurreikusen dute datorren asteburuan (hilak 25 eta 26) egingo duten hiruko Soraluce Saskibaloia Saria arrakastatsua izango dela. Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea, eta klubaren webgunean ([www.bergarake.com](http://www.bergarake.com)) eman daiteke izena, baina adi egon, datorren eguaztena da-e-

Bestalde, motorrak berotzen joateko hilaren 23an, eguena, mahai ingurua egingo du Bergara saskibaloia taldeak, *Saskibaloia modernoa eta istorioak* izenburupean, 19:00etan, Miguel Altunan.



Eguaztenean egin zuten aurkezpenean, klubeko jokariak. | XABIER URTZELAI



Eneitz Iturriaga | ENERITZITURRIAGA.COM



Arritxu Iribar. | 123PEOPLE.COM



Ana Usabiaga. | EUSTRAK.COM

## 'Emakumeak eta ziklismoa' berbaldia gaur udaletxean

Osoko bilkuren aretoan egingo dute, 19:00etan

X.U. | BERGARA

Asteburuan Bergaran izango den emakumezkoen errepideko lasterketarekin lotuta, eta Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, gaur, egubakoitza (19:00), *Emakumea eta txirrindularitza*

izenburuarekin berbaldia egingo dute, betiere goi mailako kirol jardueran murgilduta. Eta mahai inguruan parte hartuko dutenak ez dira nolana- hiko gonbidatuak izango. Txirrindularien ikuspuntua emango

dute Espainiako txapeldun izatea zer den ondo dakiten eta Lointek taldean dabilzan Eneitz Iturriaga abadiñoarrak eta Ana Usabiagak. Bi ziklista horien artean 10 urteko aldea dago, eta gaztetasunetik batek eta beteranotasunetik besteak egingo dute berba.

Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kazetariak, berriz, komunikabideen ikuspuntua gaineratuko du, eta Ainhoa Azurmen- di kirol aholkulariak osatuko du laukotea; azken hori berdintasunean aditua da.

## Bergara Hiria pilota txapelketako txapelak ez ziren gurean geratu

Rezusta bergararrak eta Mendizabal antzuolarrak galdu egin zuten finalean

X.U. | BERGARA

Astehenean jokatu zituzten Soraluce Sariko Bergara Hiria txapelketako finalak, eskuz binakakoak. Eta bertan, ez 22 urtez azpikoen kategorian, ezta seniorretan ere, ibarrekoek ez zuten txapela jantzi. Hain zuzen, seniorretan Larrañaga-Untoria eta 22 urtez azpikoetan Juane- nea-Lasa bikoteak izan ziren onenak.

### Ikusle asko finalean

Zale asko batu ziren astehenean Bergara Hiria torneoko finalean, 600 lagun bai, baina tamalez, ez Mendizabalek (Antzuola), ez Rezustak (Bergara) ezin izan zuten txapela jantzi. Hala, senior mailan 2010ean txapeldunorde geratu zen Larrañaga-Untoria bikotea izan da onena.

Erraz irabazi zuten finala (22-10); Larrañagak zortzi tanto egin zituen sakez, eta atzean Untoriak sekulako nagusitasuna erakutsi zuen –Asegarcerekin egingo du aurki debuta–, ondo menderatu zuen Irureta. Hala, Mendizabalek ezer gutxi egin ahal izan zuen aurrealdeko koa- droetan, bere bikotekidea goitik behera menderatu zuten-eta.

22 urtez azpikoetan Juane- neak eta Lasak 22-15 hartu zuten mendean Victor eta Rezusta. 9-9 egon ziren markagailuan, baita 14-14 ere, baina Juane- neak aurrean egindako tantoak (9) erabakigarriak izan ziren, bai- ta pilotarik galdu ez izana ere. Victorrek ez zuen egunik one- na izan, huts asko egin zituen, eta Rezusta urduri hasi bazen ere, partidu txukuna egin zuen.



# Gaztetxeak 11 urte eta gehiago beteko dituela ospatzeko

Atzo hasi zituzten gaztetxearen urteurren ospakizunak; martitzenera arte iraungo du

A.E. | BERGARA

Bergarako gaztetxean egitarau zabala prestatu dute urteurren jaia ospatzeko. Ekainean bete ditu 11 urte gaztetxeak. Hala, joan den zapatuan, herriko jaien barruan, ekitaldi bat egin zuten, eta gainontzekoak atzo hasi eta martitzenera arte izango dira. Hain zuzen, Dj Elvis Cainok girotu zuen Mendekosteetako zapatua.

## Atzo, afaria

Atzo, eguna, *Anarkherria 25 urte* hitzaldia izan zuten Jakue Pascualen eskutik. *Germinal* fantzineak antolatutako ekitaldia izan zen. Ondoren, Auzoko taldearen eskutik afaria izan

zuten. Hainbat lurraldetako jakiak dastatzeko aukera izan zuten: Senegal, Maroko, Euskal Herria...

## Gaur, antzerkia

Gaur, egubakoitza, antzerkiak gozatzeko aukera egongo da gaztetxean. Apropox antzerki taldeak *Eunon* antzezlan eskainiko du kartzela zaharrean.

Hitzik gabeko antzezlan da *Eunon*, eta parte hartzen du Jurgi Etxeberria aktore aretxabaletarrak. *Bi kate, biak ebaki beharrekoak* gaiaz jardungo du antzezlanak.

Biharko, zapatua, egun osoko egitaraua antolatu dute. Trikipoteoa egingo dute gaztetxean hasita. Ondoren, bertso bazkaria; txartelak 8 euroren truke egongo dira salgai Arrano eta gaztetxean. 19:00etan dantza ikuskizuna egongo da: dantza tradizionala eta garai-kidea uztartuko dituzte gaztetxeke emanaldian.

Gauean, ostera, Fight to Life eta Ziggy and Koustic taldeek kontzertua eskainiko dute. Fight to Life Arrasateko punk-rock taldea da, 2008ko udan sortutakoa. Duda barik, indar handiko emanaldia egingo dute arrasatearrek.

## Domekan, zinema

Gaztetxeke zineklubak hilabeteke etenalditxo egiten dihardu; hala ere, aurreratu zuten urteurren ospakizunetan antolatuko zutela emanaldi bat. Hala, domekan, *Mi mejor enemigo* filma eskainiko dute. Txile, Argentina eta Espainian ekoiztutako filma da, 2005ean grabatua. 100 minutu irauten du eta umore puntua duen drama da.

Aste bukaeraz gain, astelehenetan eta martitzenean ere egongo dira ekitaldiak. Martitzenean, esaterako, *Musika zuzenean* musika ataria aurkeztuko dute.



Bergarako Orkestra Sinfonikoak Benito Lertxundirekin eskaini zuen kontzertua. | BENITO CANTERO

# Sentimenduz betetako bidaiia egingo dute orkestraren 25 urteetan barrena

Ekainaren 25ean kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarako Orkestra Sinfonikoak ekainaren 25ean ospatuko du 25. urteurrena. Horren harira, kontzertu berezia antolatu dute: *25 urte sentimenduz*.

Kontzertuaren gainean zera dio Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak: "Zaleekin batera gogoratu gura genituzke ahaztezinak izan diren momentu guz-

tiak". Bergarako Orfeoa, Aritzeta Abesbatza eta Musika Eskola Umeen Abesbatza izango dituzte lagun hilaren 25eko kontzertuan. 25 urteko gainbegiratu egingo dute eta orkestrarendako "bereziak" izan diren lanak eskainiko dituzte, 1986ko uztailaren 5ean eskainitako lehen kontzertu hura gogora ekartzeko. Sarre-rak 10 eurotan daude salgai Lazkanon eta kultura etxean.

## Helburuak beteta

25 urte hauetan 150 musikitik gora izan dituzte bidelagun. Diate helburuak bete egin dituztela: "Musika ikaslearen ikaskuntza musikala norberaren garapen pertsonal, kultural eta artistikoarekin lotzea".



GOIENA

## ALFREDO GONZALEZ ZUZENDARIA

"Kontzertu motz eta atsegina izango da; lan esanguratsuak eskainiko ditugu"

25 urte egin ditu Alfredo Gonzalez Chirlaque orkestraren zuzendari karguan. Azaldu du orain zuzendari lanak egingo dituen gazteak hezi behar dituztela.

## Zer eskainiko diozue kontzertua entzuterako doanari?

25 urteotako bidaiia musikal egingo dugu. Orkestrarendako esanguratsuak izan diren obrak eskainiko ditugu; adibidez, *Feelings*. Kontzertu motz eta atsegina izango da

## 25 urteotako momentu berezianak zeintzuk izan dira?

Benito Lertxundirekin eta Golden Apple Quartet taldearekin aritu ginen kontzertuak onak izan ziren. Maila handiko musikariek batera aritzea izan zen hura.

## Norekin gogoratuko zara hilaren 25ean?

Orkestraren alde lan egin dutenekin, eta batez ere Bergarako herriarekin.

## EGITARAUA

### EKAINAK 17

23:00 *Eunon* antzezlan.

### EKAINAK 18

12:00 Triki poteoa

14:30 Bertso bazkaria Eneritz Zabaleta eta Unai Gaztelumendirekin.

19:00 Dantza.

22:30 Fight to Life, AMD eta Ziggy and Koustic-en kontzertua.

### EKAINAK 19

22:30 Zinema: *Mi mejor enemigo*.

### EKAINAK 20

18:30 *La ternura de los pueblos* hitzaldia.

### EKAINAK 21

18:30 *Musika zuzenean*.

21:00 *Sasi guztien azpitik* saio berezia Txapa Irratian.



Fight to Life Arrasateko taldea. | GOIENA

## T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2011ko ekainaren 28an egingo da, arratsaldeko sei etan lehen deialdian eta, hala balegokio, sei eta erdietan bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko Aranzadi Ikastolan.

### GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2010/11 ikasturteko memoria.
4. 2011/12 ikasturteko egitasmoa.
5. 0-3 zikloa.
6. 2010 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea.
7. Soberakinen banaketa.
8. Hurrengo ikasturteetarako bideragarritasun plana.
9. 2011 urteko aldizkako kuoten onarpena.
10. Estatutuen aldaketa.
11. Artezkaritza Kontseiluko kide berriak hautatzea.
12. Galde-erantzunak.

Bergaran, 2011ko ekainaren 17an  
Karmele Agirregabiria Agirre  
Lehendakaria





# Eguenetan eskaintza berezia herriko tabernetan

Plazatik beherako eta gorako tabernekin eskaintza ezberdina egingo dute; biek ala biek, eguenetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eguenak girotzeko asmoz, herri-guneko hainbat tabernak eskaintza berezia egiten dihardute. Atzo hasi ziren edarian prezio bereziak eskaintzen, eta eguenero, 19:00etatik aurrera, tabernak bete gura dituzte.

Ekimen berria herriguneko tabernekin hasi dute. Hain justu ere, Foruen plazatik behera – Kale Zaharrea, Aita Madina kalean eta San Anton kalean – eta plazan eta handik gora – Kale Barrian eta Atzeko kalean – dauden tabernetan. Biek ala biek eguenetan egingo dute eskaintza, baina era ezberdinean egingo dute.

## 'Bezeroaren Eguna'

Herriko Plazatik beherako tabernekin *Bezeroaren Eguna* izendatu dituzte eguenak. Aker, Txaketua, Pub Iturri, Izarraitz, Ona, Xaguxar, Ongi Etorri eta Harripe tabernetan euro baten truke kriptantza ardoa, San Miguel garagardoa edo kalimotxo zerbitzatu dute. Edariarekin batera, taberna bakoitzak ukitu berezia emango dio *Bezeroaren Egunari*: batzuek pintxo beroak eskainiko dituzte, beste batzuek pintxo hotzak eta beste batzuek inportazioko garagardoak merkeago. Taberna bakoitzak dituen baliabideen arabera. "Edaria merkeago jarriko dugu, eta ondoren,

taberna bakoitzak ukitu berezia emango dio. Taberna batzuek sukaldea dute eta beste batzuek ez", esan digu Aker tabernako Errapel Errastik.

Eguenetan egingo duten ekimenarekin helburu bakarra bete gura dute: kaleak girotzea.

## Pintxo-potea

Foruen plazan eta handik gorako tabernetan, aldiz, pintxo-potea egingo dute. Arkupe, Oñati, Arrano, Aloña Mendi, Galizia, Boga, Iturritxo, Boise eta Otamendi tabernetan 19:00etatik 21:00etara egingo dute. Pintxo eta kriptantza ardoa euro baten truke salduko dituzte. Antolatzaileek esan digute kriptantza ardo bera egongo dela taberna guztietan.

Atzo hasi zuten pintxo-potea ekimena, eta lehen eguna girotzeko trikitalarien laguntza izan

zuten. Bestalde, euro batetik gorako kontsumizioetan pintxo doan jasoko dute bezeroek. Eguneroko txikiteroek ere euren saria izango dute. "Egunero txikiteoan ibiltzen direnek euro bat baino gutxiago gastatzen dute, baina euren pintxo doan jasoko dute. Euren fidelotasuna eskertzeko modua izango da", esan digu Mirian Urtzelaik.

Hain justu ere, fidelotasuna saritzea da euren helburuetako bat. "Egunero ibiltzen direnei eskerrak emateko modua da. Bestalde, ekimen berezi honekin, bezero berriak erakarri gura ditugu: gazteak, eguenetan kalea irteteko ohiturarik ez dutenak... Eguenetan jendea irteten da kalea, baina giro hori indartu egin gura dugu", esan digute tabernariek.

## Olakuan eta San Lorentzon

Oñatin pintxo-potea egiten hasi ziren lehen tabernak Olakua eta San Lorentzo auzokoak izan ziren. Artxubi, Aldapa, Garoa eta Olakua tabernetan eguaztuetan egiten dute. Abenduan hasi ziren, Debagoieneko beste herri batzuetan izandako erantzuna ikusita. Kriptantza ardoa eta pintxo euro baten eskaintzen dute. Eta euro batetik gorako kontsumizioetan pintxo doan ematen dute.



Pilotariak, martitzeneko partiduan. | MIREIA BIKUÑA

## 36 bikote plazako pilota txapelketan uztail bukaera arte

Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako pilotariak lehiatuko dira uztailaren 24ra arte

M.B. | OÑATI

Plazako pilota txapelketa abian da. Asteon jokatu dituzte lehen bi jardunaldiak, eta uztailaren 24ra arte partiduak jokatu dituzte martitzenetan eta eguenetan. Aloña Mendi pilota sailak antolatzen duen txapelketa 36 bikotek jokatu dute: 17 kadete mailakoak dira eta gainerako 19ak gazte mailakoak.

Etorkizunean profesional mailara heltzeko aukera asko dituzten pilotariak gertutik ikusteko aukera izango dute zaleek. Lehia guztiak plazako frontoian jokatu dituzte. Dena den, eguraldi txarra egiten badu, Zubikoa kiroldegian jokatu dituzte.

## Bi helburu dituzte

Aloñako pilota sailak antolatzen duen lehiaketaren helburu nagusiak bi dira: alde batetik, pilotarien denboraldia luzatzea eta uztail bukaera arte partiduak antolatzea; eta beste alde batetik, estali bako frontoien erabilera bultzatzea. Bestalde, Aloñak zaleak erakarri gura ditu. "Urteroko erronka da. Pilota partiduak ikustera zale gutxi joaten da. Plazan, guztien eskura jarrita, zaletasuna indartu gura dugu", esan digute pilota sailekoek.

Martitzenean eta atzo, egue-na, kadete, eta gazte mailetak partiduak jokatu zituzten. Hurrengo jardunaldiak hilaren 21ean eta 23an izango dira.

## Bihar barrakak merkeago: txartelak euro baten truke salduko dituzte

Gainerako egunetan 1,50 euro ordaindu beharko da bidaia bakoitza

M.B. | OÑATI

Barrakak dira jaiak hasten diren seinale. Corpusetako barrakak heldu dira Oñatira, eta, urtero moduan, egun baten txartelak merkeago salduko dituzte. Hain justu ere, bihar euro baten salduko dituzte. Prezio berezia dute, egun berean erabili beharko dira.

Gainerako egunetan 1,50 eurotan salduko dituzte txartelak. Bestalde, barraka bakoitzak eskaintza berezia egingo du: bidaia kopuru bat duten bonuak salduko dituzte. "Ez dakigu barraka bakoitzak zenbat bidaia eskainiko dituen bonuan. Dakiguna da bonuak erosita bidaia bakoitzak 1,25 euro balioko duela", esan digute Kultura Sailekoek.

## Plazako aparkalekua itxita

Corpus jaietako barrakak plaza-ko aparkalekuan ipini dituzte.



Umeak barraketan, iazko Corpus jaietan. | MIREIA BIKUÑA

Hori horrela, autoendako itxita egongo da hilaren 29ra arte. Barrakak jaso arte. Tarte horretan, kiroldegiko, anbulatorioko eta Olaiturriko aparkalekuak erabiltzeko aholkua eman dute Udaltzaingotik.

## Kirol hitzorduak

Corpus jaien egitarauaren barruan bi kirol hitzordu daude aste bukarren: Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. erremonte kopako finalerdia bihar, 19:00etan; eta plater-tiroketa saioa etzi, 10:30ean.

## Hautzaindegiko eta Haur Hezkuntzako ikasturte bukaerako jaiak egingo dute Elkar Hezin

Elkar Hezi ikastetxean ikasturte bukaerako festa egingo dute gaur, egubakoitza. Haur Hezkuntzako eta hautzaindegiko haurrak eta euren senitartekoak Lehen Hezkuntzako lorategian bilduko dira 17:30etik 20:00etara. Irailean Elkar Hezin hasiko direnak ere gonbidatu dituzte. Ipuin kontaketa saioa, txitxi-buruntzia eta gozo-eltzea egingo dituzte.

## Gesaltza-Arrikutz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko irteera egingo dute domekan

Arrikutz barne-barnetik delako irteera egingo dute etzi. Hiruzpalau orduko ibilaldia egingo dute. Bisita berezi horretan, Marcel Lopurben galeria bisitatzeko aukera izango dute, eta, besteak beste, Arrikutzeko eszentrika ere ikus ahal izango dute. Interesatuek aldeztatik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan. Beharrezkoak dira material erosoak, katiuskak eta frontala.

## Kadete mailako 25. Olakua txirrindulari proba egingo dute: guztira, 58 kilometro izango dira

Aloña Mendi txirrindularitza sailak antolatuta 25. Olakua proba egingo dute etzi, hilaren 19an, 16:00etan. Kadete mailako ziklistek 58 kilometroko ibilbidea egin beharko dute: Olakua, Zubillaga, Elorregi, Arrasate, Eroskiko biribilgunea, Elorregi, Zubillaga, Oñati, Olabarrieta, Udana, Legazpi, Udana, Oñati. Debagoieneko Ulma, Sumofic eta Dorletako Ama taldeetako ziklistek parte hartuko dute.



# Gaur, Udaberri txapelketako sari banaketa

Eskola kirolean parte hartu duten neska-mutiko guztiek opariak jasoko dituzte kiroldegian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urria ezkerre egindako esfortzua ordaina jasoko dute eskola kirolean jardun duten neska-mutikoei gaur. 38. Udaberriko txapelketako sari banaketa ekitaldia egingo dute, 19:30ean, kiroldegiko kantxan. Eskola kirolean jardun duten jokalariek, guraso-entrenatzaileak eta epaileak gonbidatu dituzte sari banaketara.

Ekitaldia hainbat zatitan banatuko dute: alde batetik, 38. Udaberri txapelketako sariak banatuko dituzte; talde onenak zeintzuk diren esango dute koor-

dinatzaileek. Beste alde batetik, eskola kirolean jardun duten neska-mutiko guztiek opari bana jasoko dute. Gainera, ikasturtean egindako mendi irteerako finalistei sariak emango dizkiete.

**Apirilean hasi ziren**

Apirilaren 9an hasi zuten Udaberri txapelketa, eta Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arteko neska-mutiko eta gazteak lehiatu dira. Udaberriko txapelketaren antolatzaileek bi jardura eskaini dizkiete parte-hartzaileei: alde batetik, kirol



Eskola kiroleko kideak sariak jasotzen iazko sari banaketa ekitaldian. | OSKAR CARRASCAL

txapelketak, barkaka edo taldeka. Besteak beste, areto-futbola, futbola, saskibaloia, eskubaloia, zazpiko errugbia, squash, tenisa eta patinajea.

Beste alde batetik, kirol eta jardura fisikoko jardunaldiak: fite-bikea, aerobik-batuka, ezkutaketa jolasak eta *Altxorraren bila*. "Helburu nagusia da interes

ezberdinei egokitzen diren kirolak eskaintzea, neska-mutikoei euren gustukoa den kirola aukeratzeko aukera izan dezaten", diote antolatzaileek.

Udaberriko txapelketa bukatuta, udako kirol kanpaina hasiko dute ekainaren 27an. Guztira, bost txanda eskainiko dituzte ekain, uztail eta abuztuan.

**Eskola kiroleko logotipo berria**

Bestalde, sari banaketa ekitaldian eskola kirolaren logotipo berria aurkeztuko dute. DBHko neska-mutikoen artean lehiaketa deitu zuen kirol zerbitzuak, eta guztira 27 lan aurkeztu dituzte. Irudi onena gaur erakutsiko dute eta irailean hasiko dira erabiltzen eskola kiroleko irudi gisa.

## Ehunka neska-mutiko bizikletan, Leire Olaberriarekin eta Asier Maeztarekin

M.B. | OÑATI

Ulma Taldearen 50. urteurreneko ekitaldien barruan, bizikleta martxan egingo dute gaur Leire Olaberria eta Asier Maeztarekin, 16:00etan. 9-14 urteko arteko ehunka neska-mutikok izango dute aukera Joko Olinpiarretan dominak lortu dituzten ziklistekin ibiltzeko.

**Hiru talde eta hiru ibilbide**

Adinaren arabera hiru talde eta hiru ibilbide egingo dituzte: 9-10 urtekoak Ulma Packageraino joango dira; 11-12 urtekoak Forjaraino joango dira; eta 13-14 urtekoak Ulma Polimeroraino. Bukarera opari bana jasoko dute parte-hartzaile guztiek. Derrigorrez erabili behar da kaskoa.



Leire Olaberria. | GOIENA

## Aste bukaeran Trinitate jaiak egingo dituzte Araotzen

M.B. | OÑATI

Araoztarrek hartuko dute auzoetako jaien lekukoa aste bukaeran. Bihar eta etzi Trinitate jaiak ospatuko dituzte. Auzoko batzordeak askotariko ekitaldiak antolatu ditu.

Ospakizunak bihar 16:30ean hasiko dituzte. Auzoko mus txapelketa jokatu dute saloian. 17:00etan haurrendako jolasak egingo dituzte eliza aurreko plazan. 21:00etan auzo afaria egingo dute. Miren Amuritz eta Julio Soto bertsolariak eta Saioa eta Maider trikitilariak girotuko dute afal ondorengo. 00:00etan bola txapelketa egingo dute.

Domekan, 11:00etako meza-oren ondoren salda banatuko dute, eta jarraian herri kirolen saioa egingo dute.

## Denboraldiko Aloñako futbol jokalaririk onenak sarituko dituzte afarian

M.B. | OÑATI

Aloña Mendi futbol sailak denboraldia bukatutzat emango du gaur. Alde batetik, futbol batzorra egingo dute, 19:00etan, Aloña Mendi egoitzan; eta beste alde batetik, denboraldiko jokalaririk onenak sarituko dituzte futbol sailekoen afarian.

**Batzarreko gaiak**

Futbol saileko zuzendaritza batzordeko kideek lau gai izango dituzte mahai gainean gaur.

Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartu ondoren, 2010-11 denboraldian futbol taldeek egindako emaitzak aztertu eta balantze ekonomikoa egingo dute, eta bazkideek galderak egiteko aukera izango dute.

Ondoren, denboraldia agurtzeko afaria egingo dute, eta futbol talde bakoitzeko jokalaririk onenak sarituko dituzte (ikus beheko taula). Ohorezko Errege mailan lau sari eta bi aipamen emango dituzte.

### ALOÑAKO JOKALARI ONENAK

#### OHOREZKO ERREGIONALA

Kemena	Mikel Palacios
Erregularitasuna	Mikel Aginagalde
Golegile nagusia	Roberto Idigoras
Kirolzaletasuna	Endika Ruiz
Aipamen bereziak	Iñigo Arregi eta Jon Igartua

#### KIROLZALETASUNA

Emakumeak gazte-senior	Iratzi Usandizaga
Ohorezko gazteak	Jon Lertxundi
Kadeteen lehenengo maila	Asier Mantxola
Kadeteen lehenengo maila	Jon Txapartegi
Kadete emakumeak	Nerea Arregi
Ohorezko infantilak	Jon Etxarri
Eskolarteko infantil maila	Auritz Larrea
Eskolarteko infantil neskek	Miriam Agirre
Alebinak	Ander Blain

### OHARRAK

#### TORREAUZOKO KROSA

Antxintxiketako kirol elkarteak antolatuta uztailaren 3an egingo dute Torreauzoko krosa. Dagoeneko zabalik dute izen-emate epea: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian hilaren 30era arte (zortzi euro), Mendizabal kirol-dendan uztailaren 2ra arte (zortzi euro) edo egunean bertan (12 euro). Parte-hartzaileek Torreauzo eta Olate artean 7,5 kilometro egingo dituzte.

#### BOLIGRAFOAK

Nikaraguako haurrei laguntzeko erabilitako boligrafoak batzen dihardu Ulma Fundazioak. Hilaren 24ra arte batuko dituzte Ulma Taldeko negoziotetan eta herriko ikastetxeetan.

#### IKASTAROA

Langabeendako, merkatariendako eta enpresa txikiendako ikastarotako izen-emate epea zabalik, 943 03 77 00 telefonon.



Aloñako gimnastak iazko erakustaldian. | RESU MURUA

## Gimnasia erritmiko erakustaldia egingo dute ikasturtea bukatzeko

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko neskatilak eta gaztetxoek ikasturte bukaerako emanaldia egingo dute domekan Zubikoa kiroldegiko kantxan, 12:30ean.

Visi Gutierrez irakaslearen aginduetara, gogor egin dute lan azken asteotan koreografiak ondo ikasi, eta irailtik landutakoak tapiz gainean erakusteko.

Aloña Mendiko 60 neskatilak hainbat koreografia egingo dituzte, banaka eta taldeka.

Oñatikoekin batera, Bergarako Arizmendi elkarteak hiru talde euren dantzak erakutsiko dituzte. Talde horietan lau oñatiarrek dihardute. Tartean Lide Osinaga. Osinagaren taldea Gipuzkoako txapeldun izan da aurten.



# Leizarra musika eskolak 25 urte bete ditu lanean

Ikasturte bukaerako kontzertua aprobetxatuko dute sortzaileak omentzeko; bihar da ospakizuna, plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute Leizarra musika eskolako ikasle eta irakasleek bihar Herriko Plazan (12:30). Baina hori baino gehiago izango da, aurten 25 urte bete ditu-eta musika eskolak. Hala, sortzaileak omenduko dituzte ekitaldian: Jokin Antxia, Eli Izagirre, Ricardo Garro, Angel Barandiaran Pablo Urkia *Litri* eta Ana Crespo -azken biak zenduta-koak.

## Lizarraren abarretik izena

Orain dela 25 urte Loramendi ikastolako -orain Udal Euskaltegia-egoitzan hasi zuen ibilbidea Leizarra musika eskolak bi talderekin: "Gogoan dut hasiera ez zela bate-re samurra izan, eta aurrekontua arazo handia izan zen. Solfeo eskolak ematen eta instrumentu batzuekin hasi ziren", jakinarazi du orduko kultura zinegotzi Jokin Antxiak. Eta izenaren nondik norakoak azaldu ditu: "Leizarra proposatu zen gure mutiko sasoiaren lizar zuhaitzaren abarrekin egiten genituelako txistuak".



Musika eskolako kideak biharko kontzertua gertatzen, martitzenean. | M.A.

Poliki-poliki haziz joan zen eskola: ikasleak gora, instrumentu gehiago eta ezberdinak, irakasleen beharra... Eta egoitza txiki geratu zitzaion. Hala, hutsik zegoen kuartel zaharrera aldatu ziren Udalaren laguntzarekin.

Egun, Arkupen du lekua eta 353 ikasle ditu. Solfeo eta instrumentu eskolekin batera euskal dantzak irakasten dituzte. Eta banda ere hasi da lehenengo pausoak ematen.

## Biharko ospakizuna

Ospakizun apal baina dotorea egingo dute bihar, urteurrena gogoan. Kontzertua eskainiko dute lehenengo (12:30): trikitilariak, banda... Eta gero, sortzaileak omenduko dituzte. Gainera, taberna jarriko dute jatekoarekin eta edatekoarekin, plazan (12:00-14:30).

Eta irailean, San Migel jaietan, Aretxabaleta Abesbatzak eskaintzen duen ekitaldia eskolaren 25. urteurrena ospatzeko izango da.

ANJEL BARANDIARAN | MUSIKA ESKOLAREN SORTZAILEA

## "Udalak esan zigun ez zeukala dirurik, baina aurrera jotzea erabaki genuen"

Eskolaren sortzailea eta lehenengo zortzi urteetako zuzendaria izan zen, eta oraindik eskolak ematen ditu.

### Zelan gogoratzen duzu hasiera?

Lehenengo, abesbatza sortu genuen; eta ondoren, musika eskolaren beharra etorri zen. Alkar kultura elkartearen bazegoen orduan eta txistu eta solfeo eskola batzuk ematen zituzten. Bertako irakasle Ana Crespo arrasatearrarekin berba egin, eta lanean hasi ginen.

### Ez zen samurra izango, ezta?

Ez horixe. Udalak esan zigun ez zeukala dirurik, baina aurrera jotzea erabaki genuen. Aldundiaren dirulaguntza jaso genuen gero, eta orduko Loramendi ikastolako asko lagundu zigun, eskolendako gelak utzita.



M.A.

### Zenbat lagun hasi zineten?

Ikasleak bi talde osatu ziren eta irakasle gutxi batzuk geunden: Crespo, Paco *errioxarra* klarinetea eta saxofoia erakusten, ni neu...

### Banda ere izan zen gurean...

Bai, eta kontzertu batzuk ere eman zituen, baina dirua behar zen hari eusteko eta Udalak esan zigun ez zeukala. Orain berriro daude hasita lanean.

### Musika eskolaren eragina igarri da?

Bai! Banda lehen pausoak ematen dabil; trikitilari taldea daukagu; txistulari taldeak hor jarraitzen du; eta orain, dantza taldearen ardura hartu dugu. Eskola barik, zaila guztiek irautea.

### 25. urteurrena ospatzeko ereserkia asmatu duzue, ezta?

Ez da musika eskolaren ereserkia, urteurrena ospatzeko abestia baizik. Jon Lopez irakaslearen eta bion artean egin dugu, eta biharko ekitaldian abestuko dute eskolako abesbatzak eta umeek.



Txarapeko geltokia Belorrietako biribilgune inguruan. | M.A.

# Uztailaren 1ean hasita ibilbide berria dute autobusek

Txarapea, Lausitta eta Loramendi kaleetako bizilagun batzuk ez daude batere gustura

M.A. | ARETXABALETAKO

Uztailaren 1etik aurrera ibilbide berria izango dute autobusek gurean. Geltoki plazan, Azbe lantegi parean, ez dira geratuko eta horren ordez Lausitta, Txarapea eta Loramendi kaleetatik pasatuko dira. Hona ibilbidea (bi noranzkoetan berdina): Araba ibilbidea-Loramendi-Nafarroa-Txarapea-Lausitta-Murubide-Otalaria.

## Geltoki nagusia Txarapeakoa

Autobusek hiru geltoki izango dituzte noranzko bakoitzean: Lausitta, Txarapea eta Araba ibilbidea. Eta geltoki nagusia Txarapeakoa izango da; hau da, bertan geldituko dira Gasteizera eta Donostiara doazen autobusak.

Lausitta kaleko geltokia 14 eta 16. zenbakien artean egongo da Arrasateko noranzkoan eta Txarapeako 16.ean Eskoriatzako noranzkoan. Txarapea ibilbideko geltokiak Belorrietako biribilgunearen inguruan egongo dira. Eta Araba ibilbidekoak, orain arteko lekuetan.

## Zaratak eta eragozpenak

Ibilbide berri horrekin, baina, herritar guztiak ez daude konforme. Lausitta, Txarapea eta Loramendiko hainbat herritarrek

diote ez dituztela kontuan izan autobusen joan-etorriek kale horietako bizilagunei sortuko dizkieten "eragozpenak"; tartean, aparkalekuen murrizketa. Eta zaratek lehen baino "bizilagun gehiagori" eragingo diotela gaineratu dute.

Kexu agertu diren bizilagunek uste dute zaharren egoitzaren eta egiten dabiltzan unibertsitatearen onurarako dela aldaketa eta "erabaki horrekin gutxi batzuk saritu dituela Udalak eta bizilagun elkarte bat baino gehiago kaltetu".

Horregatik guztiagatik, ibilbidea aldatzeko eskatu gura diote Udalari, "guztiok" irabaz dezagun, eta horretarako proposamena egin diote: "Orain arteko ibilbidea dagoenetan utzi eta autobus txiki bat jarri lotura lanak egiteko, zerbitzu berbera eman eta eragozpen gutxia eragingo dituelako".

## Iparraldeko bizilagunendako

Inaxio Garro alkate ohiak aldatzeko arrazoia azaldu du: "Otalora, Santa Kurtz, Bedarreta... inguru horretan geltokia jartzeko hainbat eskaera izan ditugu". Eta jakinarazi du lotura lanak egingo dituen autobus beharrik ez dela izango ibilbide berriarekin.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO

# Portasolgo jaiak gertatzen dabilta uztailaren 16rako

M.A. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako hegoaldean -Araba ibilbidea, Loramendi, Nafarroa, Bizkaia... kaleetan- bizi diren herritar, ostalari eta merkatariak Portasolgo jaiak gertatzen dabilta. Uztailaren 16an ospatuko dituzte eta sasoi baten izandako ospea berreskuratzea da asmoa.

Jaiok antolatzeko dirua behar dute eta hori lortu nahian dabilta orain: "Oso berandu hasi gara eta larri antzean gabilta", diote antolatzailak. Batetik, zozketak antolatu dituzte, eta, bestetik, herriko gainerako merkatari eta ostalariei borondatezko laguntza eskatu diete. Ekarpinak egin gura

dituztenek Eguzki edo Dorleta tabernako ugazabarengana jo dezatela.

Zozketei dagokienez, lehenengo egin dute eta Jose Manuel Gartzia eta Feli Biterik jaso zuten Zumaiako talasoterapiaren bi egun pasatzeko txartela. Dagoeneko izan dira bertan, baita "oso gustura" itzuli ere. Bigarren zozketa -Argiñanoren hotelean egun pasagunotan egingo dute.

Horrekin lotuta, kamisetak salgai dituzte hainbat denda eta tabernatan, 10 euroren truke.

## Kontzertuak eta mus txapelketa

Lortutako diru kopuruaren arabera egun bat, bi edo hiru iraungo dute jaiak. Bi agertoki jarriko dituzte: bata, Zaratia tabernaren atzeko partean eta bestea, Araba ibilbidean, Eguzki gastronomia elkartearen aurrean -lehen ere jartzen zuten lekuan.

Jai egitaraua oraindik zehazteko daukate, baina hona hemen iragarri dituztenak: mus txapelketa, kontzertuak heldu eta gazteendako, umeendako jolasak, trikitilarietako txikiteoa...



Eneritz Urrutia | Loramendi Elkarteak lehendakaria

# "Kultura sorkuntza euskararekin uztartzen jarraituko dugu"

- ▶ Orain urtebete abian jarritako aroa emankortzat baloratu du elkarteak
- ▶ Kultura eskola garatzen jarraituko dute, haur eta gazteak alboratu barik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Maiatzean izendatu zuten Loramendiko lehendakari Eneritz Urrutia (Aretxabaleta, 1976). 460 bat bazkide dituen elkarteak euskara sustatzen jarraituko duela dio, kultura ekimenekin uztartuta.

**Zelan hasi duzu ibilbide berria?**

Gogotsu, ilusioarekin, erronka handia izango da, eta baita ardu-ara handia ere.

**Ondo ezagutzen duzu Loramendi (langile ohia, zuzendaritza batzordeko kidea...).** Horrek lagundu egin dizu ardura hartzeko orduan?

Bai; elkartearen nondik norakoak ezagutzen ditut, baina laguntasun handiena elkartearen inguruan dagoen jendeak ematen du. Euskararen normalizazioan sinisten dugun asko gaude eta horrek babesa ematen du.

**Euskara ahaztu barik kultura ekimenak antolatzen hasi da Loramendi; zergatik?**

Loramendi ezagutzen duenak badaki kultura euskaraz bultzatzen dihardugula aspalditik, eta hala jarraitzeko asmoa daukagu, kultura eskolaren bidez kultura sor-



Eneritz Urrutia, Loramendiren egoitza aurrean. | M.A.

**"Euskararen normalizazioan sinisten dugunak asko gara"**

**"Elkartearen krisi bakarria ekonomikoa izan da, eta aparteko osasuna du"**

kuntza euskararen erabilerarekin uztartuta. Euskararen sustapena ez da aditz tauletara edo hika ikastaroetara mugatzen. Horregatik, Loramendiren erronka euskara esparru guztietan zabaltea izango da: kultura, kirola, aisialdia, lan-eremua...

**Hain zuzen, duela urtebete inguru hasi zuen Loramendik ibilbide berria; zelako balorazioa egin duzue?**

Balorazioa oso ona da. Azken urtea emankorra izan da proiektu estrategikoak gure helburura bideratzerako eta garatzerako orduan. Aro berria herrian nabaritu dela uste dut.

**Zein erronka dituzue epe motzera?**

Euskararen sustapenean lanean jarraituko dugu. Kultura eskola garatzen buru-belarri jarraituko dugu, eta haur eta gazteen eremua ere ezin dugu alboratu. Horregatik, proiektu eraginkor berriekin batera, ludoteka kudeatzen jarraituko dugu, eta Atxabaltako Gazte Ekimenarekin eta Murrukixorekin batera ekintzak antolatzen.

**Euskara elkarteak krisian daudela entzuten den sasoina, zelako osasuna dauka Loramendik?**

Gure elkarteak izan duen krisi bakarria ekonomikoa izan da, izugarriko murrizketa izan duelako Udalaren partetik. Baina Loramendiren osasuna aparta da: gai izan da kultura eskola arrakastaz abiatzeko; Euskararen Egun jendetsua antolatzeko; toponimia ibilaldietan 80 pertsonatik gora elkartzeko... Eta izugarriko lana egin du jendeak: lehendakari ohiak, batzordeetakoek...

NIRE USTEZ



GORKA ETXABE

Agur, 'Arratabe'

Lau urteko ibilbidearen ondoren, Aretxabaleta-ko udal aldizkariak, *Arratabe*-k, agur esan digu. Lau urteko bizitza izan du, hileroko maiztasunarekin argitaratu dute, eta guztira ia 40 zenbaki banatu dira taberna, udal eraikin eta etxebizitzetan. Udalak komunikatzeko erreminta nagusi izendatu zuen, eta helburu horrekin jarri zuen martxan, komunikazio estrategia orokorraren barruan leiho nagusia irekitzeko asmoz. Herritarrei udal jardunaren berri emateko bide nagusia izan da. Informazioa eta entretenimendua.

Horiek izan dira *Arratabe* udal aldizkariaren helburuak, eta herritar batzuentzat asmo horiek bete baditu ere, beste askorentzat Udalaren propagandaren erreminta izan da. Ez naiz eztabaidan sartuko; izan ere, parte inplikatu naiz. Ezin ahaztu Arteman Komunikazioa enpresak editatu duela azken hiru urteotan, eta ni neu Artemaneko langilea naiz. Zuzenean parte hartu dut zenbait erreportajeren ekoizpenean eta erredakzio kontseiluko bileretan; hortaz, arriskutsua iritzia ematea. Iritsi zen bezala egin du alde *Arratabe*-k. Isilik sortu zen, poliki-poliki hazten joan, etxebizitzetan sartzen, izena ezaguna egiten herritarren artean, eta horregatik agur esan nahi diot. Besterik ez. Etapa bat bete du, batzuei zerbitzua eskaini die, gehiegizko gastua izan da beste askorentzat, baina lau urteko bidea egin duelako agurta nahi nuen udal aldizkaria. Berritro postontzian ez dugulako ikusiko.

**"Herritarrei udal jardunaren berri emateko bide nagusia izan da"**

## 'Pintura experimental' izeneko ikastaroa egingo dute uztailan

M.A. | ARETXABALETA

*Pintura experimental* deritzon ikastaroa egingo dute uztailako lau asteetan Arkupen. Helduendako izango da -18 urtetik aurrerakoendako- eta antolatzaileek iragarri dute ez dela inongo ezagutarik eskatzen parte hartzeko: "Pinturarekin esperientzia ezberdina bizi izateko gogoia eta kuriositatea bakarrik".

**Pinturaren beste ikuspegi bat**

Pinturaren beste alderdi bat ezagutzeko aukera eskaini gura du Ainhoa Cabero irakasleak, joko eta ariketa ezberdinak proposatuta: "Pertzepzioekin jolastu, kolo-

reen esanahietan murgildu eta pintura eta sentimenduen arteko erlazioan hausnartuko dugu, pinturaren aurrean beste jarrera bat lortzeko".

Bestalde, umeei -6 eta 12 urte artekoak- marrazketa eta pintura ikastaroa izango dute.

**Uztailaren 5etik 28ra**

Uztailaren 5an hasi eta lau asteetan izango dituzte eskolak, bai umeei (11:00-12:30), bai helduei (14:30-16:30), hiru egunetan: martitzena, eguaztena eta eguna.

Izena emateko Arkupeko harre-rara jo dezatela interesatuek ekainan bukatu baino lehen.

## Txistulari Eguna antolatzeko batzarra dute hilaren 27an

Debagoieneko II. Txistulari Eguna Aretxabaletan ospatuko dute aurten, urriaren 9an, hain zuzen. Egun hori gertatzen hasi gura dute herriko txistulari taldeko kideek eta batzarra deitu dute datorren ekainaren 27rako, astelehena. Arkupe kultura etxean izango da batzarra (18:30).

Iaz Eskoriatzan elkartu ziren txistulariak, eta hasitako ibilbide hori indartzea dute helburu aretxabaletarrek. Hala, urriaren 9an txistulari asko elkartzea gura dute, eta, hori lortzeko, txistulari gazetxo, heldu eta nagusi, guztiei egin diete dei.

## Emakumeen argazkiak jasotzen dabilta Arkupen

Herriko emakumeak protagonista dituzten argazkiak jasotzen dabilta Kultura eta Berdintasun sailak. Datorren urteko Emakumeen Nazioarteko Egunari begira antolatu gura duten erakusketa eta ikus-entzunezkoak egiteko gura dituzte.

Abuztua bitartean jasoko dituzte argazkiok Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan: goizean, argazki artxi-boaren bulegoan; eta arratsaldean, Kultura Sailaren bulegoan. Argazki guztiak eskaneatu egingo dituzte, haren gaineko argibideak jaso, eta ondoren itzuli.

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

**Garbittu**

Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketara orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalaren garbiketak
- Arropa garbiketak



# Herriko balkoi edo leiho ederrena saritua izango da ostera ere San Pedro bezperan

Ez da izenik eman beharko; baldintza bakarra da hilaren 24rako balkoiak eta leihoak gertu izatea

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udalak leiho eta balkoiak loreen lehiaketa antolatuta du aurten laugarrenez. Kultura batzordetik nabarmendu dute esandako lehiaketan parte hartu ahal izateko ez

dela izenik eman beharko; nahikoa izango da leiho eta balkoiak lorez, aihen-belarrez edo beste edozein landarez apaintzea. Horrekin batera, gaineratu dute hirigunean dauden etxetako leihoak

eta balkoiak hartuko direla kontuan, kaletik begiratuta ikusteko moduan daudenak.

Ez dago baldintzarik. Lore apainketaren diseinua libre izango da, eta datorren eguba-

koitzerako, hilak 24, gertu egon beharko dute balkoi guztiek, epaimahaiak bere lana egin ahal izateko. Balorazioa egiteko, irizpide estetikoak bakarrik neur-tuko dira, eta bereziki bi hauek:

alde batetik, lore-konposizioaren bolumena eta kolore konbinazioa; eta bestetik, leiho edo balkoiaren kokapenaren arabera egindako egokitzapena.

## Bertako produktuen saskia

Sari bakarra egongo da. Joan den urteko bera izango da hori; hain justu ere, bertako produktuz osatutako saski ederra. Epaimahaiaren erabakia San Pedro bezperan jakinaraziko da. Iaz Santa Ana auzoko 11. eskapean bizi den Txaro Oyonek irabazi zuen lehiaketa.

Adrian Beloki | Madrilgo Puerta del Solen egon den eskoriatzarra

## "Kanpamenduarekin jarraitzeak kalte egiten zion mugimenduari"

Belokiren ustez, "berezkotasuna" izan da gakoa; mugimenduak aurrera egingo duela uste du

M.B. | ESKORIATZA

Azken hilabeteen milaka pertsona izan dira Madrilgo Puerta del Solen, *haserretuen* mugimenduari harira; Adrian Beloki eskoriatzarrek gertutik bizi izan du.


### Nolakoa izan da zure parte-hartzea mugimenduan?

Maiatzaren 15eko ondorengo lehenengo asteetan Puerta del Solen lo egiten egon naiz. Mugimendua sortu zen egun beretik Conviccion de Expansion izeneko taldean egon naiz boluntario moduan. Plazan gertatzen zenaz informatzen nuen unibertsitatean.

### Kanpamendua jaso zuten domekan. Han izan zinen momentu hartan?

Ez. Baina goizeko batzarretan egon nintzen eta giroa ikusi nuen. Han egon ziren klase-kideekin egon naiz, eta aparteko arazorik ez zela egon esan didate.

### Zergatik kendu da Madrilgo kanpamendua?



Adrian Beloki. | GOIENA

Azken asteotan gero eta garbiago ikusten zen kanpalekuarekin jarraitzeak, mesede baino gehiago, kalte egiten ziola mugimenduari. Bolo izatetik arazo izatera pasatzen ari zen; gero eta segurtasun txikiagoa zegoen. Horregatik erabaki zen kanpalekua jasotzea.

**Telebistatik zuzenean ikusteko aukera izan dugu eta antolatzeke moduarekin harrituta geratu gara. Nola izan da hori dena posible?**

Benetan ikusgarria izan da antolatzeke modua. Zalantza barik, bertan izateak merezi izan du, dena zelan sortu den ikusteko. Berezkotasuna izan da gakoa; ezerezetik mila ideia sortu dira antolatzeke eran. Bakoitzak ahal izan duena eskaini du; esaterako, abokatuek euren jakinduria eskaini dute, beste batzuek garbiketala lanak egin dituzten...

Argi geratu da jendeak mugitzeke beharra zuela, denbora luzea zeraman justizia faltaren aurrean zerbait egiteko gogoz. Baina, azkenean, ikusi dena da historian zehar ezkerreko mugimenduak izandako arazo bera; hain justu ere, denon iritzia jasotzea oso zaila dela. Dena dela, aurrera egiten jarraituko duela uste dut.

### Denbora pasa ahala, kritikak ere sortu dira; esaterako, inguruko dendarien aldetik. Zelan ikusten dituzu kritika horiek?

Alde batetik, logikoa iruditzen zait. Ez daukat zalantzarik hainbat dendariri kalte egin diela mugimenduak; baina ez guztiei, salmentak %40 handitu dituenik ere ezagutzen dut-eta. Dena dela, bestetik, politikarien aldetik dendarien hitza erabili da mugimenduen kontra egiteko.

### Beste hainbat hiritan istiluak egon dira. Nola bizi izan dituzue?

Ziurgabetasunarekin. Madril poliziarekin komunikazioa ez da eten; batzorde bat zegoen horretarako. Ez dugu beldurrik izan, baina errespetua bai.

## Datorren astean bidaliko dute Udalak Palestinarako aurrekusi duen laguntza

M.B. | ESKORIATZA

Rumbo a Gaza ekimenaren izenean Ezker Batuak-Berdeak udal taldeak aurkeztutako mozioaren bidez, Udalak ekimen horri atxikitzea eta ahal duen neurrian laguntzea adostu zuen martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran. Besteak beste, 40 zaku zementu erosteko kon-

promisoa hartu zuen, eskola, unibertsitate eta haurtzaindegia berriz eraikitzeke; baita kanpainari laguntzeko itsas milia bateko bonua erostea, ontziak Gazara bidali ahal izateko.

Bada, datorren astean Barzelonako portutik aterako den itsasontzian Eskoriatzatik bidalitako laguntza joango da.

## Saiatu programaren bidez, zaintza aringarriak etxean jasotzeko aukera eskaintzen du Diputazioak

Saiatu programaren bitartez Diputazioak gaixotasunaren azken etapan zaintza etxean bertan jasotzeko aukera eskaintzen die gaixoei. Etxeko zainketa aringarrien proiektu aitzindari bat da hori; Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Europako Gizarte Funtzak sustatua. Horren gaineko informazio gehiago jaso gura duten eskoriatzarrek 666 68 50 38 telefono zenbakira dei dezakete, edo [www.proyecto-saiatu.net](http://www.proyecto-saiatu.net) webgunean sartu.

## Hamaikabatek San Pedro auzoa berritzeko proiektuari alegazioak aurkeztu dizkio

Udalean ez badago ere, udal jarduerari jarraipena egiten dihardu H1! alderdiak, eta, horren harira, San Pedro auzoko urbanizazio proiektuari alegazioak aurkeztu dizkio. Haren esanetan, proiektua "kontserbadorea" da eta "osatu gabe" dago. Esaterako, salatu du Telefonica eta Iberdrolako kableen lurperatzea ez dagoela aurreikusita, eta gaineratu du irisgarritasuna ere berriz aztertu beharko litzatekeela. Partaidetza handiagoa izatea ere eskatu du.

## Beñat Herce: "Udaletxeko atea zabalik izango dituzue"

Ezusteko barik osatu zen astelehenean udalbatza berria. Aurrekusi bezala, Bilduko zerrendaburu Beñat Herce izendatu zuten alkate, koalizioaren eta Elizateetako ordezkariaren aldeko botoekin. Herria "hobetzen" ahaleginduko dela esan zuen. Horren harira, Udaleko atea zabalik egongo direla nabarmendu zuen.



MIRIAN BITERI

## Zabalik dago 'Udaero' egitasmoan izena emateko epea

Aurten ere *Udaero* izeneko egitasmoa gertatu dute Eskoriatzan 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako. Uztailearen 4tik 24ra bitartean, irteera bereziak egingo dituzte, hala nola Lekunberriko Beigorri abentura parkera, Albina urtegi, Gamarrako igerilekua eta Atxorrotzera. Horretaz gainera, lau eguneko irteera egitea ere aurrekusi dute, kostaldara.

Ekainaren 30a baino lehen eman behar da izena. Interesatuak izen-emate eskaera bete behar dute, eta diru sarrearen ziurtagiriarekin edo diruarekin gaztelekura edo Gazteria Bulegora joan.



## Larrain-dantza ikasteko entseguak martitzenetan

Antzuolako jaietako domeka iluntzean, aurreko urteetan bezala, larrain-dantza egingo da. Oinarin dantza taldeak antolatatu ditu entseguak, jaietara bitarteko martitzenetarako: ekainaren 21 eta 28an, eta uztailearen 5 eta 12an izango dira entsegu-saioak 20:15ean, eskola barruko patioan, terrazapean.

## Hildakoen aldeko meza berezia egingo dute parrokiari

Antzuolako Errukizko Amares parrokiari eraberritze lanetan aritu diren bitartean zenbait hileta-elizkizun egin dituzte Antiguako ermitan. Parrokia itxita egon den epe horretan hileta-elizkizuna Antiguari egin zaien aldeko meza egingo dute parrokiari datorren domekan, ekainaren 19an, goizeko 11:00etan.

## Santanderre irteera egingo dute erretiratuek

Ekainaren 29an Santanderre irteera antolatuko dute erretiratuek. Goizean Santander bisitatuko dute, Islan bazkalduko dute eta arratsaldean Castro Urdialesera joango dira. 31 euro balio du irteerak eta ekainaren 21 eta 22an eman behar da izena, erretiratueta, 16:00etatik 18:00etara. Izena ematen duten lehenengo 60 lagunendako dago lekua.

## OHARRAK

### AIHERRAKO JAIAK

Aste bukaera honetan eta hurrengoan jaiak izango dira Aiherran. Egubakoitzean, ekaina 18, kontzertua egingo dute Moskorri, Zortziburu eta Korsikako L'Acusgi taldeekin.

### BIZIKLETA CHALLENGEA

Uzarragarako igoera jokatu da zapatuan, ekainak 18, 12:00etan, Antzuolako Challengearen barruan.

### KONTZERTUA

Musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute datorren astelehenean, ekainak 20, 18:00etan, Torresoroan.

### KZGUNEAN

Martitzenetan egoten da tutoria KZgunean, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

### LORE LEHIAKETA

Martxan da balkoi eta leihotako lore lehiaketa eta jaietako egubakoitzean banatuko dira sariak.



Arrolako kideak, iaz egindako irteeran. | ARROLA

## Pirinioetara irteera egingo du uztailean Arrolak

Antzuolako biraren bigarren etapa domekan Galartza, Uzarraga eta Lizarraga auzoetan zehar

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Arrola mendizale taldeak prest ditu udara bitarteko zenbait ekintza. Iazko moduan, aurten ere uztaileko bigarren aste bukararako Pirinioetara irteera antolatuko du Arrola mendizale taldeak; uztailearen 9 eta 10ean joango dira.

Iaz, Espainian, Huesca aldean ibili ziren (Canfranc, Candanchu, La Moleta...) eta aurten Frantziara egingo dute irteera, Cauterets ingurura. Lehenengo egunean, zapatuan, Petit Vignemale (3.032m) mendia igoko dute eta Baysslancko aterpean pasako dute gaua. Hurrengo egunean, domekan, beste 3.000 metroko mendi bat igo edo Gavarnie aldetik itzuli bat egingo dute.

Irteerara joateko izen-ematea ekainaren 22an eta 29an egin ahal izango da, datozen bi eguaztene-

tan. Egun horietan 19:15etik 20:00etara egongo dira Arrolako kideak Olanaren duten lokalean. Aterpea eta autobusa ordaindu beharko dira; aurrerago esango dute zenbat den.

### Antzuolako biraren 2. etapa

Aste bukaera honetan, domekan, Antzuolako biraren bigarren etapa egingo da Arrolak antolatuta. Honako ibilbidea egingo da herriko Galartza, Uzarraga eta Lizarraga auzoetako zenbait leku ezagutzeko: Antzuola, Arizti, Lapurzubi, Galartza, Ugarriza, Aizpekar, Arrasate, Santikurutz, Uzarraga, Azkarate, Jauregi eta Antzuola.

Goizeko 9:00etan irtengo dira Olaneratik ibilbidea hori egiteko. Ez dago aurrez izena eman beharrik eta herritar guztiendako moduko ibilbidea da.

## Jairik jai ibiltzeko aukera dago datozen asteetan Antzuolan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Udan sartzearekin batera ospakizun ugari izango ditugu herrian. Eguenean, San Juan bezperako ekitaldia egingo da 20:00etan plazan. Makala jasoko dute udalbatza berriko kideek eta ondoren Oinarinekoek dantza-saioa egingo dute. Dantzen ostein sua piztuko da plazan bertan.

Antzuolako jaietarako ere geroz eta gutxiago falta. Jaietako egunean afaltzeko eta egubakoitzean bazkaltzeko mahaiak jarriko dira, norberak jana eta edana etxetik eraman eta bertan otordua egiteko. Eguenekoak ez, baina egubakoitzerako mahaiak erreserbatu behar dira udaletxean, uztailearen 11rako.

**Kalebarren jaietarako iragarkia**  
Kalebarren eta Ondarreko jaiak ere bertan ditugu –ekainak 25 eta 26ko aste bukaeran egingo dira– eta Kalebarrengo jaietako batzordeak iragarki moduko bat grabatuko du zapatuan, 13:00etan,

Zurrategin eta parte hartzeko deia zabaldu diete herritarrei. Jaiak iragartzeko bideo bat osatuko dute eta, bide batez, adin ezberdinetako herritarrei jaietan eta antolaketa lanetan parte hartzeko eskatuko diete. Iragarkian parte hartzen duten guztiendako txorizoa egongo da ondoren.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

## Herritarren arteko integrazioa lantzea, hurrengo erronka

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Bideberriko hiru herrietako –Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzaga– etorkinen egoera eza-gutzeko, galdeketa egin zitzaien iaz azaroan herrietako etorkinei. Karmele Korta Antzuolako Udaleko Gizarte Ongizateko teknikariak azaldu digunez, "ikusten genuen bazeudela atzerritarrak, baina herrialde ezberdinetakoak. Hori horrela izanda, azterketa egin nahi izan genuen benetan euren errealitatea zein zen jakiteko".

Herriko atzerritar gehienekin egon dira –Antzuolan 37 elkarrizketa egin dituzte– eta gai ezberdinak jorratu dituzte inkestetan: formazioa, kultura, heziketa, etxebizitza, egoera administratiboa, lan egoera eta integrazioa.

### Integrazio erreala

Antzuolari dagokionez, 13 herrialde ezberdinetako etorkinak daude inkestaren artean: %21,6 errumaniarrak, %18,9 bolivia-

rrak, %16,2 pakistandarrak eta %10,8 argentinarrak.

Kortaren esanetan, inkestaren emaitzekin ikusi dute zenbait gauza landu behar direla, eta ez etorkinekin bakarrik, baizik eta herri mailan, kulturantzatsun eta integrazio erreala egiteko. Izan ere, galdeketa integratuta egotea herritarrekin arazorik ez izatearekin parekatzen dute gehienek. Antzuolan galdetutakoen %86,5ek ez dute integrazteko arazorik izan eta arazoak izan dituzten artean, hizkuntzagatik izan dituzte gehienek.

### Ekintzak zehaztea

Etorkinen artean egin da galdeketa eta Kortak adierazi digu orain falta dela beste zatia, gainerako herritarrena, "eurek ere etorkinekoko harreman nola bizi duten ikusteko".

Kortaren esanetan, "orain egiteko geratzen da ekintza konkretuak zehaztea, integrazio hori lortzeko".



KALEBARREN 19KO BIZILAGUNAK

## Usain txarragatik kexa

Kalebarren 19ko bizilagunek bidali digute salaketa. Bizilagunen arabera, atari ondoko lokalean gordetzen dituzte hondakinak ondoko tabernakoek, eta "kuboaren garbitasun faltagatik eta egunero ez direlako hondakin horiek jasotzen, usain jasanezina" dute atarian. Arratoiak agertuko diren beldurra dute bizilagunek. Galdetzen dute ea zeinek hartu behar dituen neurriak: "Osasun Sailak, agian?".

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Mikel Ruiz de Azua | San Martin jaietako kartelaren egilea

## "Aramaion kalitate oneko ganadua dagoela islatu gura izan dut"

- ▶ Hirugarren urtez jarraian irabazi du kartel lehiaketa Ruiz de Azuak
- ▶ Jaietan, Italian egongo da: "Parte hartzeko beste era bat da", dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

San Martin jaiak Aramaiotik urrun bizi izango ditu Mikel Ruiz de Azuak (Aramaio, 1986). Turinen (Italia), hain zuzen. Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen eta orain, Ekodiseinuen masterraren azken urtea ari da egiten Turinen. Azken hiru urteetan ez da jaietan egon, baina haren irudia erabili du Udalak programaren azalean. Izan ere, hiru urtez jarraian irabazi du kartel lehiaketa.

**Ganauek badatoz jaietara jarri diozu izenburu kartelari. Nondik etorri zitzaizun ideia?**

Behi koadrila bat jaietan murgilduta islatu gura izan dut. Behiak erabili ditut pertsonaia moduan eta, bestetik, *han bai dauela ganaue!* esaldia erabiliz, Aramaion eusko label eta kalitate oneko ganadua dagoela islatu nahi izan dut. Eta, noski, kanpotik datozen ganadu horrengana datozela! [Barre]. Zentzu bikoitz hori aprobetxatuz, txantxa kutsua eman nahi izan diot irudiari.

**Animaliak protagonista, beraz.**

Aramaio baserritik bizi den herria izanda, animaliekin zerbait egin gura nuen. Hala, pentsatu nuen behiei protagonismoa emanda kartela egitea. Behi koadrilak Aramaioko jaietan, erromerian eta jai giro onaz gozatzeko dabilzala, hori erakutsi nahi nuen. Gainera, kanpotik ere jendea -behiak hauek ere- animatzen dela erakutsi dut, bertako giro eta kalitateko oneko ganaduen bila etortzen dena.

**Lehiaketa hirugarrenegoz jarraian irabazi duzu. Epaimahaikideen gustuak ezagutzen dituzu, ala?**

Duela hiru urte aurkeztu nintzen lehenengoz. Lehenengoan proba



Ruiz de Azua, Turingo etxeko balkoian, kartela eskuan duela. | MIKEL RUIZ DE AZUA

**"Zentzu bikoitza aprobetxatuz txantxa kutsua eman diot irudiari"**

moduan eman nuen izena, eta, handik aurrera jaietan egotetik izan ez dudanez, beste modu baten parte hartzeko aukera ona dela deritzot. Hori bai, nahiago nuke jaietan egon! Ideia ezberdinak aurkezten saiatu naiz eta pozik

**"Jaietan gozatzera animatu gura ditut aramaioarrak; goraintziak, denoi!"**

nago nire lana epaimahaiaren gustukoa delako. Amaitzeko, aramaioarrak eta inguruko herrietakoak jaietan gozatzera animatu gura ditut, nire partetik ere disfruta dezatela. Goraintziak, denoi!

## Bi aramaioar eskolarteko bertsolarien finalean

J.B. | ARAMAIO

Ikastolen Elkartek antolatzen duen Euskal Herriko eskolarteko 23. bertsolari txapelketaren finala zapatuan jokatu da Aguraingo Harresi aretoan. Bi maila ditu: 14 urtera artekoak eta 14tik 18 urtera artekoak. Bada, bi mailotan ordezkari aramaioar bana izango dugu: lehenengoan Peru Abarrategi eta bigarrenean Paula Amilburu. Ariketak goiz eta arratsalde izango dira.


**Aramaioak badu harrobia**

Aramaioak da egungo Arabako txapelaren nagusia, Manex Agirre. Eta etorkizunean Agirrerren lekukoa har dezaketena ez dira falta: Peru Abarrategi eta Paula Amilburu izan daitezke, zergatik ez.

Abarrategi 14 urtetik beharakeon artean lehiatuko da. Hona lehen galbahea pasatzeko ariketak: gai baten gaineko hasierako bertsoa, lau oinak emanda

zortziko txikian bertso bana eta, azkenik, binakako ofiziotako gaian bina bertso zortziko txikian. Sei onenen artean geratuz gero, beste hiru bertso bota beharko ditu Abarrategik.

Amilburuk, bestalde, lehen galbahearen aurretik agurra, zortziko handian bi bertso eta zortziko txikian hiru bertso egin beharko ditu. Ariketa horiek beste bertsolari batekin egin beharko ditu. Sei onenen artean geratuz gero, Amilburuk kartzelako lana -puntuari erantzun eta gaia emanda bi bertso, gehienez bost puntuko neurrian- eta azken agurra egin beharko ditu.



Abarrategi eta Amilburu. | ABE

## Bidezko merkataritzaren aldeko azoka bihar plazan

J.B. | ARRASATE

Setem gobernuz kanpoko erakundearen eta Aramailur kontsumo taldearen eskutik bidezko merkataritzaren aldeko azoka egingo dute bihar. Eguerdira arteko egitaraua prestatu dute, eta ekintza ludikoak eta informatiboak uztartuko dituzte. Adin guztiendako eskaintza da, merkea eta parte-hartzailea.

Azoka 11:00 aldera irekiko da, gosari berezi batekin. Setemeko eskutik, kafea eta bestelako produktuak dastatu ahalko dira. 11:30ean umeendako zein helduendako jolasak

hasiko dira, eta 12:30etik aurrera, berriz, tragoa eta pintxoak hartzeko aukera egongo da, batukada batek girotuta. 14:00etan zozketa egingo da tragoa eta pintxoak hartzen dutenen artean: Aramaioko produktuz osatutako saski bat eramango du irabazleak.

Goiz osoan musikak girotuko du azoka eta Sastiñan erakusketa txiki bat jarriko dute. Aramaioko produktuak -barazkiak, behi-esnea, ardi-esnea, gazta...- eta Setem erakundeak ekarritako urrutiko produktuak egongo dira salgai.

## 'Komiki emakumeak' erakusketa: umorea marrazki bidez Sastiñan, ekainaren 26ra arte

*Komiki emakumeak* deritzon erakusketa atzo ezker dago zabalik Sastiñan. Umorea ukitua duten komikiak erakutsiko dira, betiere emakumearen ikuspuntutik. Erakusketa Gasteizko sexu aniztasunaren aldeko ekimenaren barruan kokatzen da.

Atzo zabaldu zen erakusketa eta hilaren 26ra arte egongo da zabalik. Ordutegia, honakoa: astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

## Parradust taldearen kontzertuak itxiko du Sastiñako ekaineko kontzertuen zikloa gaur (20:00)

Gaur amaituko da Udaleko Kultura Sailak ekainerako prestatu duen kontzertu zikloa. Hala, Aramaio eta Gasteizko Parradust taldeak hartuko du ekimenari amaiera emateko ardura. Talde arabarrak euskal tradiziozko kantuak, Irlandako erritmoak eta zelten beste doinu batzuk uztartzen ditu zuzenekoetan.

Kontzertua Sastiña kanpoaldeko plazatxoan egingo da, eguraldiak laguntzen badu -agertoki funtzioa ezin hobeto betetzen du eta kalea girotzea gura du Udalak.

## Sarriako abenturan ederto ibili dira gazteak

Arabako bertsolari elkartearen eskutik, Sarriako bertso abentura egin zuten joan den asteburuan. Goikuria aterpetxean elkartu ziren, eta, antolatzaileen arabera, ederto ibili ziren; elkar ezagutu eta bertsotan egiteko aukera izan zuten. 15 gazte elkartu ziren: Aramaio, Legutio, Zuia eta Urkabustaizkoak.



ARABAKO BERTSOLARI ELKARTEA



## ELGETA

## Eskolako umeek gaur, barikua, egingo dute ikasturte amaierako ikuskizuna

L.Z. | ELGETA

Badoa 2010-2011 ikasturtea; lau eskola egun besterik ez da gelditzen eta gaur, barikua, ikasturte amaierako ekitaldia egingo dute eskolako umeek Espalioan. Asko entseatu dute aurten ere, eta koreografiak, kantuak, arropak... prestatu dituzte okasiorako. Ikuskizuna 15:00etan hasiko da. Sarrera doan da.

### Gurasoen batzarra

Guraso elkarteak, berriz, ikasturte amaierako batzarra deitu da datorren asterako. Martitzenerako, ekainaren 21erako, deitu dute. Ikasturte hasieran, urrian, egindako batzarraren akta onartuko dute, eta ikasturte amaieran gurasoek planteatzen dituzten eskakizunak eta galderak tratatuko dira. Batzarra 21:00etan hasiko da.

## Udalak Oihana Kortazar mendi lasterkaria omenduko du Ferixa Nagusiko jaietako egunean

Denboraldi bikaina egiten ari da Kortazar; hamaika lasterketa egin ditu eta guztiak irabazi ditu, azkena Europako txapelketa. Udalak omenaldia egingo dio ekainaren 30ean, eguna. Jaien hasierako ekitaldian zorionduko dute Kortazar. Ferixa Nagusiko egunean, uztailearen 3an, jokatu duen Espainiako txapelketara eramango du Kortazarrek herritarren berotasuna.

## Bost elgetarrek eman dute aurten izena zapatuan egingo den Quebrantahuesos probarako

Quebrantahuesos probako antolakuntza taldeak adierazi dute aurten bost elgetarrek eman dutela izena bihar, ekainak 18, egingo den proban parte hartzeko. Bost lagun horiek dira Oskar Askasibar, Eñaut Arantzeta, Enrike Elkoro, Igor Irazabal eta Iker Irazabal. Gainera, izena emanda daude baita ere Urko Egizazu eta Joseba Muxika. Zorte on, guztie!

## Manolo Montiel elgetarrak Mundumiran ateratako argazki sorta zintzilikatu du Youtuben

Argazkiak ateratzea oso gustuko du Manolo Montiel elgetarrak eta ez da lehenengo aldia lanak Youtuben ipintzen dituela ikusgai. *Vecino9* goitizenarekin sinatzen du eta honako honetan, maiatzeko azken aste bukaeran Elgetan egindako Mundumira festako argazkiak zintzilikatu ditu. Ikusi nahi izanez gero, hemen lotura: [www.youtube.com/watch?v=XJslRQWQ0Us](http://www.youtube.com/watch?v=XJslRQWQ0Us).

## 55 umek eman dute izena uztaileko udaleku irekietarako; zerbitzua antolatzen dihardu Udalak

Uztaileko aisialdi zerbitzua 55 umeri ematea aurreikusten du Udalak. Mireia Berriozabal, Maialen Elortza eta Ane Elortza izango dira aurten begiraleak. Beharren arabera kontratatuko ditu Udalak hezitzaile gehiago; bi lagunek eman dute izena eta gaur, barikua, egingo dute azterketa.

# Elgetako etorkinek diote ez dutela diskriminazio keinurik sumatzen

Elgetako 32 etorkinek hartu dute parte Bideberrik egindako inkesta batean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gatzagako, Elgetako eta Antzuolako etorkinen artean egin du inkesta Bideberri mankomunitateak. Elgetaren kasuan etorkinen jatorria da Pakistan (10), Maroko (6), Portugal (6), Kolonbia (3), Kuba (3), Venezuela (2), Dominikar Errepublikak (1) eta Eslovenia (1).

Populazio egonkorra da; izan ere, gehienek (%84,3) bi urtetik gora daramate gurean. Erresidentzia baimenarekin (%75) eta

lanean (%62,5) daude. Betiko hemen gelditzeko asmoa du %56,25ek.

Oinarritzko ikasketak ditu %45ek eta bigarren edo goi mailako ikasketak %45ek. Ikasketarik gabekoa %10 da.

### Integrazioaren bidean

Integratuta egotea auzokideekin zein herritarrekin arazorik ez izatearekin parekatzen dute. Adierazten dute Euskal Herrian ez dutela beste komunitate batzuetan izan dituzten diskriminazio keinuak sumatu (%90) eta adeitasunez tratatuak direla uste du %75ak.


Ez dute Elgetan etxebizitza lortzeko arazorik izan (%90), baina integrazioaren bidean arazotako bat hizkuntza dela uste du askok.

Umeek eurekin dituztenek (%46) balorazio ona edo oso ona egiten dute jasotzen duten heziketaren inguruan, baita irakasleek

eskaintzen dieten arreta eta hauek familiarekin duten harremanaren inguruan ere. Gehien kostatzen zaiena familiarengandik urrun bizitzea da, baina aukera berriz emanez gero beren herritik berriro irtekeela diote.

Onartzen dute ez dutela herriko kultura ekintzetan parte hartzen; betebeharrak garrantzitsuak, informazio falta eta hizkuntza ulertzeko zailtasunak argudiatzen dituzten.

**Integrazioa auzokideekin arazorik ez izatearekin parekatzen dute etorkinek**



## Koadrilen Eguna izango dugu bihar, zapatua

Gisatu lehiaketa, herri bazkaria eta dantza saioa



Gisatu lehiaketako iazko irabazleak koadrilan bazkaltzen. | JULIO CALLEJA

L.Z. | ELGETA

Gisatu usainak hartuko du bihar, zapatua, Herriko Plaza. Koadrilak gutxienez hamar lagunendako gisatua prestatzera deituak daude. Sukaldariak 10:30ean has daitezke lanean eta 14:00etarako amaitua beharko dute.

Epaimahaikideek kazuela guztiak dastatuko dituzte, eta zaporea (0tik 10 puntura) eta itxura (0tik 5 puntura) puntuatuko dituzte. Sari banaketa 14:30ean egingo dute. Irabazleek 90 euro eta garaikurra eskuratu dituzte. Ondoren, herri bazkaria egingo da. Udalak ipiniko ditu mahaia eta aulkiak.

Dantzarako zaletasuna dutenek 17:30ean dute hitzordua Arrabost taldeko kideekin. Betiko dantzak egingo dira eta berriak ikasteko aukera ere egongo da.

## LEINTZ GATZAGA

## Gurelek ekintza asko ditu datozen asteotarako

Orain aste bi Angosto inguruan izan ziren ia 30 lagun; egunean San Juan bezpera ospatuko dute



Gureleko kideak varonatarren gaztelu aurrean (Araba). | EDORTA ARANA

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak ekintzak antolatzen jarraitzen du. Ekainean hainbat izan dituzte, tartean berbaldiak, kontzertua eta irteera, eta oraindik gehiago izango dira datozen asteotan: batetik, San Juan bezpera ospatuko dute; eta bestetik, udalekuak izango dituzte uztailean.

### Angostora Irteera

Ekainean egin duten ekitaldirik garrantzitsuena Angosto aldera (Araba) irteera izan da. Aste bukaera pasa joan ziren guraso elkarteko 30 lagun -18 ume eta 12 heldu-, baita oso gustura ibili ere: Angostoko kanpinetako etxetxoetan lo egin; veronatarren gaztelu inguruak ezagutu; eta Espejon jolasean jardun: "Pala partiduak jokatu genituen, gazteak helduen aurka, eta gazteak ira-

bazle. Hori bai, helduok hurrengo egunetan giharretako mina!", esan dute Gureleko kideek.

### San Juan bezpera girotu

Datorren egunean, hilak 23, ludotekako ikasturteari agur esango diote neska-mutikoei. Urriaz geroztik izan dute bertan jolasteko aukera eta egunean itxiko ditu ateak Garro jauregian dagoen aretoak. San Juan bezpera da, gainera, eguna, eta Gureleko kideek arratsalde pasa magiko egingo dute: "Asmoa da San Juan bezperako ilunkera girotzea eta umeei horren gaineko kontuak ezagutzea sua isiotu aurretik", dio Gureleko Imanol Saez de Viterik.

Eta uztailean udalekuak izango dituzte herriko ume eta gaztetxoek. Egingo dituzten ekitaldiak oraindik zehazten dabilta, baina

uztailearen 9an antzerki talde bat izango dela iragarri dute: "Eta bide batez gatzaren inguruko lantxoak egingo ditugu umeei egun horretan".

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**



## EKAINENKO SARIAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA



LIBURU SORTA UMEENTZAT



EUSKAL RIP-EN DVD-A



DVD-A



## ZINERAKO SARRERAK



Florida Guridi

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
[www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)  
Urteko kuota: 48€

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!



Askasibar, eskuinaldean, Faka-Fakakoen maillotaz; 2006an, 5:54ko denbora egin zuen Elgetakoak. | GOIENA

### ZIKLOTURISMOA

# Debagoieneko 157 lagun Quebrantaz 'gozatzera'

Asteleheneko 'Goiena' paperak ibarrekoen sailkapena ekarriko du, azken urteotan moduan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Quebrantahuesos proba antolatzen duen Edelweiss taldeak, lanez lepo dabilen egun hauetan, Debagoienak Sabiñanigoko irteera puntuan izango duen ordezkari zena zenbatzeko lana hartu du, eta emaitza izan da: 157. Iazko zozketak kanpoan utzi zituen ibarreko asko, baina aurten beste urte batzuetako parte-hartze kopurura iritsi gara. Azken urteko datuei erreparoa emanda, 2006an 150 lagun joan ziren Quebrantara, 2008an 160, iaz, zozketa bidez, 129 lagun tokatu zitzaizen dortsala -75ek baino ez zuten amaitu, egin zuen eguraldi txarraz ederki sufrituta- eta aurten, berriz 202ri. Seguru, baina, beste asko eta asko kanpoan geratu direla.

#### Sufrituz gozatu?

Bihar, ibarreko 157 lagunek Quebrantako 205 kilometroetan erlojuaren kontrako, norberaren buruaren kontrako edo ondoko

#### PARTE-HARTZEA

HERRIA	KOPURUA
Arrasate	41
Oñati	38
Bergara	36
Aretxabaleta	24
Eskoriatza	8
Aramaio	5
Elgeta	3
Antzuola	2
Leintz Gatzaga	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>157</b>

lagunaren kontrako borroka izango dute, edo borroka guztiak batera. Horregatik, proba horretara gozatzera doala diotenari

berba erdia ere ez sinistu, gezurretan dabil-eta. Hori bai, iaz baino eguraldi hobea eman dute, baina gomendatu dute Frantzia aldeko mendateak jaisteko txu-baskeroa eramateko.

Aurten ere zozketa bidez banatu behar izan dituzte dortsalak, 11.000 guztira. Baina Edelweiss taldeko presidente Roberto Iglesiasek gogorarazi moduan: "Urtero 20.000 lagun eskaera jasotzen dugu".

#### Sailkapenak, astelehenean

Asteleheneko *Goiena* paperak martxa zikloturistaren gaineko erreportajea egingo du, eta ibarrekoen sailkapenak argitaratuko ditu. Hor, askok ez diote erlojuari kasurik egiten, baina denek amaitzen dute sailkapenari begira. Aldi berean, *Harmailatik* saioan, asteburuan gurean izango diren ziklismo lasterketak izango dira berberak baina baita Quebrantahuesos probak ematen duena ere.

## Gipuzkoako erremonte kopako finalerdietako bat Oñatin bihar

X.U. | OÑATI

Erremonteak hartuko du zapatu arratsaldean Oñatiko pilotalekua, Gipuzkoako Foru Aldundiko koparen finalurrekoaz, gainera. Jaialdia, baina, ez da partidu horretara mugatuko, lehenago beste norgehiagoka bat izango da-eta, 19:00etan hasita. Jaialdia hasteko Agirresarobek eta Urkok

Endikaren eta Gazteluren kontra jokatuko dute, eta norgehiagoka hori 30 tantora egingo dute.

#### Finalurrekoa, 40ra

Jaialdiko partidu nagusia, baina, Gipuzkoako kopako finalurrekoa luzeagoa izango da, 40 tantora jokatuko dute-eta. Eta kantxan izango dira Zeberio II.a eta Etxe-

berria III.a, batetik, eta Urriza eta Jon, bestetik.

#### Iaz Bergaran

Iaz Bergarako pilotalekuan erremonteak aspaldi izan ez duen protagonismoa izan zuen, txapelketa bereko finalurrekoa hartzearekin batera finala ere Bergaran jokatu zuten-eta.

Pilotariak ikuskizun aparta eskaini zuten, baina pilotazaleek ez zuten pilotalekua bete, ezta gutxiago ere. Krisia ez da aitzakia, sarrera debalde izango da.



## MENDI LASTERKETAK

Oihana Kortazar | Europako txapelduna

# "Haurdunaldi aurretik, bitartean, eta ostean zaindu naiz asko"

Elgetako korrikalariak International SkyRace Valmalenco-Poschiavo lasterketa irabazi zuen joan den astean; omenaldia egingo diote Elgetan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Haimar txikitxoak urtebete beteko du egunotan, eta amak ez dio opari makala egin, Europako mendiko lasterketako txapela. Aurten korritu dituen hamaika lasterketak irabazi egin ditu Oihana Kortazarrek, baina oraindik denboraldi luzea geratzen zaio. Asteburuan Kanarietan izango da, baina uztailearen 3an Espainiako txapelketa izango du Lleidan, eta munduko txapelketan parte hartzeko proposamena egin dio Federazioak. Bada, Elgetan omenaldia egingo diote hila- ren 30ean, jaietan.

**Herriko jaietan omenaldia, eta ezin parrandarik egin.**

[Barre] Horrek ez nau askorik arduratzen, sekula ez naiz-eta parrandazalea izan. Baina Mutri- kun bizi banaiz ere, izugarri eskertzen dut Elgetan egingo didaten omenaldia, ni elgetarra naizelako.

**Garbi gera dadila.**

Gaur egun lasterketara joaten naizenean Mutrikukoa naizela azaltzen delako, eta elkarriketa

baten baino gehiagotan halaxe azaldu delako. Eta ez, ni elgetarra naiz. Gainera, entrenatzera ere ahal dudana guztietan nire jaioterrira joaten naiz, Mutri- kun ibiltzeaz aspertuta nagoelako, eta ez dagoelako Elgetan besteko aukerarik.

**Amatasunak on egin dizu; hamaika lasterketa egin dituzu ama izan zarenetik, eta guztiak irabazi.**

Emaitzak ikusita, baietz ematen du. Dena dela, haurdun geratu nintzenean oso garbi neukan lasterketara itzuliko nintzela. Horretarako, haurdunaldiaren aurretik, bitartean, eta ostean asko zaindu naiz, ez dago beste sekreturik. Emaitza hauek ez ditut ama izateagatik soilik lortu, eta bai asko entrenatzeagatik.

**"Ilusio handia egiten dit Elgetan egingo didaten omenaldiak"**

**Ez da erraza izango denera iristea, semea, lana, entrenamenduak...**

Senarrari esker jarrai dezaket lasterketetan parte hartzen, eta gure ordutegiak ondo bateratzen. Goizago esnatu eta etxean spinningeko bizikletan entrenatzen naiz, edo 5 minutuan bazkaldu eta korrika egitera joaten naiz, arratsaldeko lehenengo orduan haurtzaindegian egon ahal izateko. Ondo moldatzen gara, amamari lan handirik eman gabe.

**Denboraldi hasieran aurreikusten zenuen Europako txapelketan egongo zinela?**

Denboraldi hasieran ezin nuen jakin Europako txapelketan egongo nintzen edo ez, selekzioak hautatuta joan naizelako Italiara. Gehiago esango dut, datorren uztailearen 3an Lleidan egingo duten Espainiako txapelketan lan ona egitea zen nire helburua. Izan ere, Europako txapelketara Espainiako selekzioarekin joan naiz, eta duela hiru aste esan zidaten aukeratuen artean nengoela. Orain, denboraldiaren



Kortazar, Zegama-Aizkorri proban, Urbiatik pasatzen. | JON SAGASTA

bigarren zatia moldatu behar izan dugu, beste proposamen batzuk jaso ditut-eta.

**Espainiako kopaz eta txapelketaz gain, munduko txapelketa.**

Hori da. Esandako moduan, Espainiako txapelketa uztailearen 3an izango da, baina kopan ere lehe-

**"Europakoa irabazita, munduko txapelketara joatea da asmoa"**

nengo postuan nago, eta bertako lasterketetan parte hartzeko erabakia hartu dugu.

Eta, Europako txapelketa irabazi dudanez, selekzioak hautatzaileek proposatu didate munduko txapelketan ere parte hartzeko [Italian egingo dituzten bi lasterketetan]. Horrekin batera, kilometro bertikalen bat ere egin nahi dut, Anbotokoa, gogoko dudana modalitatea delako, baina egutegiari pare bat buelta eman beharko dizkiot; bestela, azarora arte oraindik 10 proba geratuko zaizkit-eta.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



## Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**



**EUSKARAZKO  
HEDEBIDE  
EZ PUBLIKOAK**

**Duten  
garrantziaz  
jabetzeko,  
faltan izan arte  
itxoiten dugu  
maiz**



# KULTURA



Itsaso kontra bat liburuaren azaleko irudia. | PAMIELA

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARETXABALETA  
**O**lerkiak hartuko du gaur Aretxabaletako Arkupe kultura etxea. Ilunabar Literarioa egingo dute, Bergarako Idazle Eskolak antolatuta. Berezia izango da; izan ere, Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* eta Tere Irastortzaren *Eta orain badakit* liburuak aurkeztuko dituzte. Aurkezteaz gain, bi liburuen irakurketak ere egingo dituzte, musikaz girotuta.

#### Argazkien proiektzioa

19:00etan hasiko da. Karmele Igartua zenaren olerkiak Itziar Gomez Idazle Eskolako kide eta gidoilariak irakurriko ditu. Baina beste irakurketa paralelo bat ere egingo dute. Izan ere, Izaskun Etxeberriak hainbat argazki sor-

tu ditu Igartuaren liburuan oinarrituta. Hala, olerki bakoitzari dagozkion argazkiak proiektatuko dituzte. Izaskun Etxeberria Idazle Eskolako kidea da.

*Itsaso kontra bat* 2011n argitaratu duten arren, Igartuak berak bizirik zegoela idatzitakoak dira. "Hau da, ez da haren lanen bilduma bat. Amak bizi-bizirik zegoela idatzi eta oraindik argitaratu bako olerkiak dira", azaldu du Garazi alabak. Tere Irastortzak egin du edizio lana.

#### Bien arteko proiektua

Irastortzak eta Igartuak buruan zuten proiektuaren barruan dago gaurko emanaldia. Horregatik jarri diote *Eta orain badakit itsaso kontra bat* izena errezitaldiari. 2005ean elkar ezagutu zuten bi idazleek -Igartuak Idazle Esko-



Itziar Gomez. | GOIENA



*Eta orain badakit* eta *Itsaso kontra bat* liburuak. | GOIENA

lan izena eman zuenean-. "2007an amaitu zuen Idazle Eskola Igartuak, baina gero ikasleen koordinatzaile moduan ibili zen: web ataria, aldizkaria... sortu zituen", gogoratzen du Irastortzak.

2008an eta 2009an Ilunabar Literarioa egin zuten Aretxabaletan; eta orduan, Igartuak berak irakurri zituen bere olerkiak.

#### Irastortza, musikarekin

Aitor Furundarena, Iñaki Telleria eta Garikoitz Mendizabalek *Eta orain badakit* (Pamiela, 2011) liburuarendako musika sortu dute. Eta Furundarena eta Telleria gaur Aretxabaletan izango dira errezitaldiari musika jartzen. "60 minutu inguru iraungo du emanaldiak, musika barne", azaldu du Irastortzak. Bi liburuak erosteko aukera ere egongo da gaur Arkupen.



G.O.

**GARAZI OIANGUREN**  
 KARMELEAREN ALABA

**"Urte luze honen itxiera eta liburuaren hasiera izango da emanaldia"**

Arkupeko aurkezpen ekitaldian izango da Garazi, Larrabetzun ere izan zen moduan. Gaurko ekitaldiari omenaldi kutsua kendu eta tonu tristea kendu gura diotela dio. Irakurketa bat izango da.

#### Zer esan gura du zuretako gaurko ekitaldiak?

Alde batetik, urte luze honen itxiera bat da. Bestalde, liburuaren aurkezpen ofiziala ere izango da; ofiziala Larrabetzuko izan arren, amak beti aurkeztu zituen liburuak etxekoan eta lagunaren aurrean. Urte honen itxiera izan arren, liburuaren hasiera izango da.

#### Liburua orain argitaratu den arren, harkidatzitako olerkiak dira.

Bai, hori argi utzi gura dugu. Hil osteko liburu moduan aurkeztu arren, amak osorik idatzi zuen bizi-bizirik zegoenean. Dena prest utzi zuen, guk ez dugu ezer asmatu. Tere Irastortzak edizioa egin du.

#### Nola gogoratzen duzu amak olerkiarekiko zuen lotura?

Olerkiarekiko lotura betidanik izan zuen zerbait da, beti idatzi izan zuen. Hala ere, Idazle Eskolaren harira irten zitzaizkion horiek guztiok. Olerki baten esaten du olerkia dela bizitzaren laburpena. Hori zen amarendako olerkia.

**ARRASATEKOBASERRIKO  
 PRODUKTUENAZOKA**

**09:00-14:00** Seber Altube Plaza

**HILEKO 3. ZAPATUAN**

**2011**  
**ekainak 18**

**uztailak 16**

**irailak 17**

**urriak 15**

**azaroak 19**

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON  
 ■ Emplugu eta Garapen  
 Ekonomikoren Sailsa

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
 merkatariek konfiantza,  
 hurbiltasuna eta kalitatea  
 eskaintzen dizkizute.







Bergarako Ubera auzoan jokatu zuten bigarren kanporaketa. | XABI IGOA

## Ibarreko bertsolari onenak, nor baino nor gehiago

Arrasateko gaztetxean izango da finala eta lau bikotek jardungo dute txapela irabazteko gogoz

A.E. | ARRASATE

Debagoieneko bikote bertsolari onena zein den domekan erabakiko da. Hiru kanporaketa saio egin ostean, Arrasateko gaztetxean jokatu dute finala domekan, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

### Agurra puntuagarria

Gaztetxeko saioan gai-jartzaile lanetan nor ibiliko den erabaki barik dute oraindik. Hala ere, saioa nola antolatu erabaki dute.

Lehenengo, beti bezala, agurra egingo dute, baina bertsolariek kontuan izan beharko dute agurra ere puntuagarria izango dela. Ondoren, hiruna bertso botako dituzte zortziko handian eta txikian. Azkenik, puntuari erantzun beharko diete bertsolariek eta koplatan trikitiarekin

### BIKOTE FINALISTAK

- ▶ Urko Egaña / Josu Igartua
- ▶ Gorka Larrea / Joseba Lasagabaster
- ▶ Jokin Labayen / Ane Zuazubiskar
- ▶ Manex Agirre / Maria Izaga

ere egin beharko dute. Saio boro-bila izateko osagai guztiak ditu domekakoak.

Sariketaren gainean galde-tuta, antolatzaileak "oso gustura" geratu dira. Bertsolari gazteek elkarren artean ezagutu eta plaza berria izatea zen sariketaren asmoa.

# Musikak eta adrenalina bat egingo dute gaztetxean

Kooltur Ekintzek antolatuta kontzertua eskainiko dute gaur Stricalla eta Kop taldeek Arrasateko gaztetxean; 22:00etan hasiko da saioa

ARANTZAZU EZKIBEL. | ARRASATE

Eguenetik barikura egin du salto Kooltur Ekintzen saioak gaurkoan. Kooltur ostegunak ekimenak geldialdia egin duen arren denboralditxo baterako, Kooltur Ekintzak taldeak jarduerak antolatzen jarraitzen du. Hala, gaur kontzertu indartsu batekin datoz. Stricalla eta Kop taldeek jarriko dute musika eta giroa gaztetxean; ikusleek adrenalina askatuko dute, duda barik!

### Amorrua, abiadura, tentsioa...

Estricalla taldea Fer Apoa -El Corazon del Sapo, Kuraia, Matxura- eta Kloakao taldeko musikariek osatzen dute. Amorruek, abiadura eta tentsio handiko hardcorea egiten dute, sua ere dariona musikan eta hitzetan. Iaz *Gimnasia revolucionaria* diskoa argitaratu zuten, eta orain dela gutxi *Fuegos Olímpicos* lana kaleratu dute. Hain zuzen, Arrasaten aurkeztuko dute azken lan hori. Eskola zaharreko hardcorean gaur egun ere bizirik iraun daitekeela erakusten dute behin eta berriz Stricalla taldekoek.

Kataluniako Kop

Kataluniako Kop taldeak ere jardungo du kontzertuan. Aspaldiko lagunak dira Arrasateko gaztetxean kataluniarrak. Nekazina den Juanrak (Speereth...) gidatutako taldea 1998an sortu zen, Speerethen errautsetatik. 2002an, baina, taldea bertan behera geratu zen. 2007an berriro ere bueltatu ziren, indarrak hartuta. Iaz *Acció directa* lana kaleratu zuten, asmo deklarazio hutsa izan zena. Taldea hardcoretik

abiatu bazen ere, gaur egun hurbilago daude metal eta thrash soinuetatik.

Taldekideek haxe diote euren *myspace* atarian: "Uneotan borrokan jarraitzen dugu, anestesia borrokatuz konformismoaren mugak gainditzeko. Lehen bezain koherente eta proposamen zein protesten parte izanik alternatibak eta elkartasuna sustatuz behin eta berriro".

Indarra eta jarrera erakutsiko dute bi taldeek.



Stricalla taldea, Arrasateko gaztetxean. | MYSPACE

## The Screamin' Targets, Oñatiko Antton tabernan

A.E. | OÑATI

Nuevo Catecismo Catolicoko Arturo Ibañezek eta Black Diamonds eta Supertrooper taldeetan abeslari izandako Gisela sortutako rock-and-roll taldeak giro-tuko du Antton taberna domeka iluntzean, 19:00etan.

The Screamin' Targets talde donostiarrek 2010eko erdialdean hasi zuen jarduera. Hasi baten Ibañez eta Gisela elkartu ziren eta ondoren Arturo Zumalabe bateria-jolea eta Beñat Bergara baxu-jolea batu zitzaizkien. Sei abestiz osatutako maketa dute donostiarrek, eta euren ideia biniloan singlea ateratzea da. Abesti guztiak euren sortutakoak dira, ez dute bertsiorik. The Nerves, Flaming Groovies, Plimsouls eta Dave Edmunds dira, besteak beste, euren erreferenteak.



The Screamin' Targets taldea lau lagunek osatzen dute. | IPUNKROCK

JOSE MARI SALEGI  
HARATEGIA · URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu (txorizo, tripakiak...)

943 794 555  
Olarte kalea 20  
ARRASATE

SAN JUAN  
ZORIONTSUAK !

ONDO PASATU  
JAIXAK!

ARRASATE  
Maalako Errebala 27 - Tel.: 943 79 70 11

Barceló  
BIDAKAK



MENDIZABAL  
OKINDEGIA

ONDO PASAU  
SAN JUANETAN!

Sebero Altube 2 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 89 60





Biharko jaialdian parte hartuko duten bertsolariak. | LANIKU

## Bertso saio ederra izango da bihar gauean Monterronen

AEDk antolatuta, Unai Iturriaga, Amaia Agirre, Jokin Labayen eta Manex Agirre igoko dira agertokira

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Bertsolaritza gustuko dutenak Arrasateko Monterron parkera joan daitezke bihar, zapatua. Joan den urteko geldiuñearen ostean, San Juan jaien atarian, bertso jaialdi bikaina antolatu du ostera ere AED euskara elkarteak. 22:30ean hasiko den saioan, Unai Iturriagak, Amaia Agirrek, Jokin Labayenek eta Manex Agirrek hartuko dute parte.

AEDko kide Itxaro Artolak jakinarazi du bi irizpide izan dituztela kontuan bertsolariak aukera-

tzerakoan; batetik, emakumeen presentzia bermatu nahi izan dute. Oraingoan emakumezko bertsolari bakarra badago ere, gai-jartzailer lanetan arituko dena ere emakumea izango da. Txapelketetan eskarmentu handia duen Berrizko Maite Berriozabal "gazte saltseroa" izango da Monterronen.

### Gertuko bertsolariak

Bigarrenik, inguruko bertsolariak izaten saiatzen direla jakinarazi digu. Urtetan arrasatearririk ez dela egon gogorarazi du, eta gaur egun,

Jokin Labayen plazarik plazara dabilela aprobeztatuz, jaialdian ere parte hartuko duela aipatu du Artolak. Bestalde, Arrasatekoa ez bada, oso gertukoa den beste bertsolari bat ere izango da han: hain justu ere, Manex Agirre aramaioarra. Horretaz gainera, Artolak adierazi du Iturriaga durangarra aspaldi ez dela Arrasaten izan. Amaia Agirreri dagokionez, emakumezko bertsolarien artean ezauna dela azpimarratu du.

### Sarrera, debalde

Esan bezala, Monterron parkean izango da emanaldia; dena dela, eguraldiak laguntzen ez badu, saioa Amaia Udal Antzokian egingo dela jakinarazi du Artolak. Azken urteotako ohiturari jarraituz, debalde izango da sarrera. Bertsozaleei Monterronera joateko gonbita egin die euskara elkarteko kideak.

## Topaguneko 'Kameratoian' izena emateko epea zabalik

Ekainaren 24ra arte dago izena emateko aukera 'www.kameratoia.com' webgunean

M.B. | ARRASATE

Azken sei urteotan bezala, Topagunea Euskara Elkarten Federazioak *Kameratoia* izeneko Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya antolatu du, Lemoiz, Sopela eta Urdulizko udalekin eta Uribe Kostako Mankomunitatearekin batera.

Lehiaketaren helburua gazte euskaldunen sormena bultzatzea da. Horretarako, bost eguneko epea izango dute gidoia idatzi, irudiak grabatu, ediziolanak egin eta jendaurrean aurkezteko, antolakuntzak jarritako gaiari eta ezaugarriari jarraituta. Kameratoilariak uztailearen 9an izango dute lehen hitzordua, Urdulizko kultura etxean; bideoak egiteko gaia eta hartu beharreko irudien zerrenda batera jasoko dute batzar horretan parte-hartzaileek.

Beranduenez uztailearen 14an aurkeztu beharko dituzte lanak, eta orduan hasiko da epaimahaia-

ren lana. Aurreko edizioetan bezala, hiru sari banatuko dira: hain justu ere, 1.500, 1.200 eta 900 eurokoak.

Behin epaimahaiak erabakia hartuta, lehiakideek beste hitzordu bat izango dute, uztailearen 23an, Sopelako Kurtzio kultura etxean. Sortutako lan guztiak ikusteko aukera izango da han, eta irabazleek izenak jakinaraziko dira.

### Gazte euskaldunak

Hona hemen parte hartu ahal izateko eskatu dituzten baldintzak: gazte euskalduna izatea (lanak euskaraz aurkeztu behar dira-eta), bideoa ekoizteko kamera, ordenagailua eta beharrezko tresneria izatea. Ekainaren 24ra arte egongo da izenematea zabalik. Topagunetik jakinarazi dute [www.kameratoia.com](http://www.kameratoia.com) webgunean, lehiaketaren oinarriak, aurreko edizioetako lanak eta izena emateko aukera egongo dela.

## Gorputz espresio eta margoaren bidezko bideo gintza eta argazkilaritza jorratuko dute bihar Aretxabaletan

Aretxabaletako Jaiki elkarteak sormen ikastaroa egingo du bihar, zapatua. Bost orduko iraupena izango duen ikastaro trinkoan, gorputz espresio eta margoaren bidez argazkilaritza eta bideo gintza landuko dute; partaide bakoitzak bere gogo eta bihozkadaren arabera egingo du lan, baita berezko esperientziaren arabera ere. Laia Bedosek eta Carla Fernandezek eskainiko dute saioa, 15:30etik 20:30era bitartean, kuarter zaharrean. Margotzeko proposa den arropa eroso eta erateko gomendioa egin dute.

**eya**

Ondo pasatu  
San Juanak!,

Etxetresna elektrikoak  
eta dekoraziorako lanparak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51  
ARRASATE



MBT  
CLARKS  
24 HRS  
HISPANITAS  
LODI  
PAN  
WONDERS  
GEORGES  
LUPO POLTSAK  
STONEFLY  
BRUNO PREMI  
BARRAS  
EL NATURALISTA  
CALAGHAM  
IMAC  
PAULAURBAN

OINETAKOAK

Yoar

Blteri 13 • ARRASATE • 943 • 79 21 71  
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Jose Ramon Otamendi

*harategia*

SAN JUAN ZORIONTSUAK GUZTIO!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

King's  
Ile-apaindegia

Ondo pasau jaietan!

Zarugalde 23. ARRASATE  
Tel.: 943 79 84 88



# Geurean jaia barra-barra!

**SAN JUANAK 2011**



**Ametz • Bengoa • Branka • Ederra  
Itzala • Lora • Okoretegi • Rumba  
Goiz Alde • Kimetz • Plus Ultra  
Txoko • Mondra**



# SAN JUANAK 2011

**ARRASATE  
JAIETAN!**



IMANOL SORIANO



[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**ONDO PASA SAN JUANAK!!**



**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA**





*atzo bezala gaur ere  
iritzi eta kolore  
ez eman inoiz amore  
gure geroa lan ore*



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



**AGURRA**

Alkatea

**Jaiak lehia giroan**

Kaixo, arrasatear guztioi:  
Aurtengo jaiak lehia giroan heldu dira;  
Klima aldaketa, tarteko: tsunami, lurrikara, sumendi...  
Hauteskundeak eta kirolak nahasian;  
Pilota, teilaturik teilatu;  
Batzuk inoren teilatura botatzen saiatzen baitira.  
Arrasateko neska futbolariak, ordea, jokoan ipini dute beraien baloia eta txapeldun itzuli zaizkigu herrira.

Korporazio berri honek ere, aurrean dituen erronkei prestutasunez erantzun nahi die.  
Gurea beti izan da esku hartzea; konponbidean ekarpenak egitea; Dena eta denok aintzakotzat hartuz; Ea, kirolean bezala herrilanean ere, txapeldunen artean izaten garen.  
Galtzaileak, izatekotan, kirolean bakarrik nahiko genituzke.

Gure arteko klima hobetzen saiatu nahi duenak, izango du non jokatu.  
Pilota frontisera itzultzen saiatuko gara.  
Denontzat egiten ahaleginduko gara.

Eguzkiak ere, sasiko lorea nahiz soroko garia ontzen ditu.

Jaiak jokaldi on bat bihur daitezela. Eta gure artean ez ditugunak gogoratu, bereziki beraien borondatearen kontra urrun daudenak,

Ondo-ondo pasatu.

**ERRETRATU ZAHARRA****Dantzari izandakoei omenaldi jendetsua**

Benetan bitxiak eta ikusgarriak dira San Juan jaietako antzinako argazkiok. Urte zehatza jakiterik ez dugu lortu, baina bai 50eko hamarkada hasiera zela, eta sanjuanetako hirugarren eguna zela. Argazkiotan agertzen dira hainbat arrasatear ezagun eta gogoratuak. Protagonistak dira gaztetan dantzari izandako herritar batzuk. Urte hartan, omenaldia egin zieten. Goiko argazkian, erdian agertzen da Zeferino Barrutia ezaguna eta ondoan duen emakumea Landakoa da. Gainerako dantzariak zeintzuk diren ez dakigu, baina bai jendartearen agertzen den aguazil bat: **Arbe** ezaguna, hain zuzen ere. Udaletxeko balkoian Espainiako bandera jartzera derrigortuta zeuden.


**Argazkiaren egilea:** Foto Laso.**Jabea:** Kontxi Riviere. **Urtea:** 1950eko hamarkada hasiera.

ondo pasatu  
San Juanak!

Angela

estetika  
Zentroa

**ORDUTEGI BERRIA**  
**09:00 – 20:00**  
Eguerdian ere zabalik!



Ferrerias 35 - Arrasate - Tel.: 943 79 88 23

[www.angelaestetika.net](http://www.angelaestetika.net)

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
  - Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
  - Kale garbiketa, zabor bilketa, lorezaintza
- Ondo pasa jaixetan!**

Santalaitz 6 behe 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxe: 943 76 05 88  
[mondragon\\_cespa@cespa.es](mailto:mondragon_cespa@cespa.es)



# JAIETAKO EGITARAUUA

## EGUBAKOITZA

# 17

**18:30** Kulturateko klaustroan JULIO GALARTAREN omenezko erakusketaren inaugurazioa.

► Uztailaren 17ra arte egongo da zabalik ohiko ordutegian.

**18:30** Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako KONTZERTUA.

**19:00** Debagoieneko VIII. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena. PINTXO banaketa Seber Altuben.

## ZAPATUA

# 18

**Goiz osoan** Alde zaharrear 7. Herensugea PINTURA LEHIAKETA. Arrasate Margo Taldeak antolatuta.

**10:00** Uarkapen ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA Arrasate Aikido Taldearen eskutik.

**14:30** Harresi aretoan, pintura lehiaketaren SARI BANAKETA.

► Aurkeztutako lanen erakusketa egongo da bertan.

**16:30** Aldape tabernan 15. MUS TXAPELKETA.

**17:00** URBAN FESTA Nafarroa etorbideko skate pistan.

**19:00** HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCEK antolatuta.

**22:30** BERTSO JAIALDIA Monterron parkean, Jokin Labaien, Manex Agirre, Unai Iturriaga eta Amaia Agirre bertsolariekin. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. AEDK antolatuta. Sarrera doakoa da.

## DOMEKA, HAUR DANTZARIEN EGUNA

# 19

**11:15** Herriko kaleetan zehar DANTZA ERAKUSTALDIA.

**13:30** Talde guztiak HERRIKO PLAZAN elkartuko dira.

**17:15** Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz taldeek antolatuta, Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Gero, DANTZALDIA.



Juan Martinez de Irujok Uarkapen jokatu du hilaren 26an. | GOIENA

## MARTITZENA

# 21

**18:30** PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS Monterron parkean Ongi etorri, Pupu eta Lore ikuskizunarekin.

## EGUENA, SAN JUAN BEZPERA

# 23

**12:00** TXUPINAZOA, PREGOIA eta TXOSNEN IREKIERA.

**12:30** TRIKIPOTEOA txosnetatik.

**14:30** Koadrilen arteko BAZKARIA Uarkapen.

**16:00** Txistulariek DIANA joko dute.

**16:30** Herriko Plazan ETXAFUEGOAK eta GRANADA JAPONIARRAK.

**17:00** Seber Altuben Zirika Zirkaos ikuskizuna ZIRIKA ZIRKUS taldearen eskutik.

**17:00** Makala hartuta, PASIO TXIKITERUA plazaraino.

**18:30** Herriko Plazan MAKALA jasoko dute koadrilek.

**19:30** San Juan Bataiatzailearen parrokiaren SALVE SOLEMNEA.

**20:00** BATUKADA BERIBA Samba Eskola taldearekin.

**20:30** Uarkapen HERRI AFARIA, danborradaren 50. urteurrena dela eta.

**21:00** ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko taldeekin.

**22:30** SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

**23:00** Herriko kaleetan zehar, HELDUEN DANBORRADA. SUDCEK antolatuta.

► Horren ostean, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

## EGUBAKOITZA, SAN JUAN EGUNA

# 24

**08:00** TXOKOLATADA Arbolapetan.


**08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA.

► Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide.

# ANE LASAGABASTER

## HORTZ KLINIKA



Ondo pasa  
jaixetan!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartera B • Tel.: 943 79 13 68  
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita





Arrasate Musikaleko Bandaren sanjuanetako kontzertua. | GOIENA

**ZAPATUA,  
HAUR ETA GAZTETXOEN EGUNA**
**25**
**08:30** DIANA gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA. Gero, BIGANTXAK zezen-plazan.

**09:30** Umeendako DIANA.

**10:30** Biteri plazan, ongietorria EGUZKI LARUri. Biterin Haurgunea eta Zaldibarren Gaztegunea jarriko dira martxan 13:30era arte.

**12:30** TROVAHABANA talde kubatarrekin KALEJIRA eta KONTZERTUA.

**13:30** APAR JOLASA Biteri plazan. Bainujantziak ekarri!

**16:30-18:15** Zaldibarren eta Biterin Eguzki Laruren JOLASPARKEAK eta ESKULAN TXOKOAK martxan jarriko dira berriro.

**17:00** ESKALADA TXAPELKETA txosnetan hasita. Herriko kaleetan zehar Street Boulder.

**18:15** Txikienak KALEJIRAN joango dira Zaldibar eta Biteritik Herriko Plazaraino.

**18:30** ERREKORTADOREEN ESKOLA gaztetxoentzat.

**18:45** Kanpanolue HAUR-BERBENA Herriko Plazan. Gero, Eguzki Laruri agurra.

**19:00** Txosnetatik hasita ORKESTRA ELEKTRONIKOA.

**20:00** Seber Altuben *Jira & Bira* ikuskizuna TRAPU ZAHARRAekin.

**22:30** ARF (Arrasate Rock Festival) KAÑERIA 13, MOTOCICLON eta LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS taldeekin txosnagunean.

**22:30** Herriko Plazan DANTZALDIA, Laiotz taldearekin.

**23:30** SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa pirotekniaren eskutik.

**DOMEKA**
**26**
**08:30** DIANA gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

**11:00** Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN Konpartsaren kalejira.

**12:00** TRIKITILARIEN kalejira.

**12:00** Segway eta, txikienentzat, Ezy Roller IBILGAILU dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.


Unai Iturriaga. | GOIENA

**12:00-14:30** Herriko Plazan, Eusko Labelen OILASKO dastatzea.

**12:00** INCANSABLES txaranga ibiliko da alde zaharrean.

**17:00** Uarkape pilotalekuan, profesionalen arteko PILOTA PARTIDUAK.

**► Partidu nagusia:** Ongay – Merino // Gorka – Cecilio

Mtz. de Irujo – Zabaleta // Aritz Lasa – Laskurain

**17:00** Txosnetan HERRI KIROL PARTE-HARTZAILEAK (6-12 urte).

**18:30** *Monsters' Show* ANTZEZLANA Seber Altube plazan.

**18:30** ERREKORTADORE GAZTETXOEN erakustaldia.

**19:00** Txosnagunean BINOLOGOA.

**19:00** INCANSABLES txaranga ibiliko da alde zaharrean.

**19:30** SOKA DANTZA plazan.

**20:00** Erdizka Lauetan taldearen laguntzarekin DANTZA ERRAZAK IKASI eta dantzatzeko aukera.

**20:30** Txosnetan URREZKO DRAGOIA banatuko dute.

**21:00** Gaztetxean, ALBIÑA ROCK.
Zirika Zirkusek *Zirika Zirkaos* estreinatuko du San Juan bezperan. | GOIENA
**►** Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, MEZA NAGUSIA.

**11:00** Arrasateko Erraldioen eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

**11:00** Arrasate Musikaleko Musika Bandak eta Arrasateko gaita-joleek KALEJIRA egingo dute.

**► 11:30**ean Seber Altube plazan elkartuko dira KONPARTSA, MUSIKA BANDA ETA GAITA-JOLEAK.

**12:00** Herriko Plazan ohorezko AURRESKUA eta San Juan ZORTZIKOA dantzatuko dituzte.

**12:30** Etxaluzen omenaldia 80 URTEK GORAKO NAGUSIEI.

**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin.

**►** *Amparito Roca* (Jaime TEXIDOR)

**►** *La italiana en Argel* (Giacchino ROSSINI)

**►** *West Side Story* (Leonard BERNSTEIN)

**►** *Rivieren-Cyclus* (Arie MAASLAND)

**►** *Around the World in 80 Days* (Otto M. SCHWARTZ)

**►** Zuzendaria: Mikel MARKIEGI.

**18:00** Txosnagunean JOKO ERRALDOIAK txikienentzako.

**18:30** *Jim altxor uhartean* ANTZEZLANA Seber Altube plazan Gorakada taldearen eskutik.

**19:30** Zezen-plazan EUSKADIKO ERREKORTADOREEN ikuskizuna.

**20:00** Txosnetan DRAGOITXOAK PARRILAN dastatzeko aukera.

**20:00** Mexikoko Garibaldi MARIATXIAREN kalejira.

**21:00** Herriko Plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

**22:30** Monterron parkean GOLDEN APPLE QUARTET taldea *Los Golden en serio* ikuskizunarekin.

**23:30** Herriko Plazan, DISKOFESTA, Oihan Vegarekin.

**00:00** TLF (Txosna Life Festival) SKATI, DISORDERS eta KANTUKI taldeekin txosnetan.

**00:00** Gaztetxean REVOLUTIONARY BROTHERS taldearen kontzertua.

 indukzio plaka  
**DOAN**

# Lose Aranzabat

**Dr. Bañez 2**  
**Tel.: 943 79 18 92**
**FAGOR**

eraikuntzarako eta taldeentzako promozioak • finantzaketa automatikoa



# Makala, sua eta dantza, egun bateko protagonistak

Ohiturei jarraituz, eguerdian hasiko da jaia eta gauera arte iraungo du

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Makala, sua eta dantza egun batez protagonista bilakatuko dira jaieran. San Juan egunaren bezperan, hilaren 23an, jaia hiru protagoniston inguruan egingo da, eta, beste behin ere, herritarrek ez diote hitzorduari hutsik egingo. Eguerdian hasita, jai giroa sua baino lehenago piztuko da herrian.

Koadrila guztiak batzen diren momentuan hasiko da egun handia. Bildu eta herrian poteoa egin eta gero, bazkaritan elkartuko dira herriko hainbat eta hainbat koadrila. Bapo janda, 17:00 aldera, makala hartu eta plazarantz abiatuko dira, ohiturei jarraituz, egin beharrekoa egitera.

Plaza jendez beteta dagoela, makala altxatuko dute guztiek eta giroa berpiztu egingo da. Behin zuhaitza igota, sua eta dantza izango dira hurrengoak.

## Garretatik sortutako sua

Urteroko jaia da, baina herritarrek gogotik parte hartzen dute egun horretako ekintzetan. Izan ere, esaera zaharrak dioten moduan, ez dago herririk jairik gabe, eta, nola ez, ez dago jairik herritarrik gabe.

Horri eutsiz, 21:00 aldera, dantza eta algaraka, herritarrek kalejira egingo dute, iaz estrei-



Errementari Dantzak beste behin ere herritar guztien arreta erakarriko du eta kaleak jendez beteko dira. | GOIENA



Beste behin ere, dragoiak piztuko du sua. | GOIENA

natutako dragoiarekin. Eta dragoi horren ardura izango da garrak piztu eta sua sortzea.

Iluntasunak zerua hartu eta plaza laranja kolorez janzten den unean bertan, alkatearen txanda izango da; alegia, alkate berriarena.

Izan ere, aurten Inaxio Azkarraga estreinatuko da. Suaren aurrean dantza eginez jaiari jarraipena emango zaio guztien artean. Gainera, estreinaldian, herritarrek biziki animatuko dute herriko aginte makila hartu berri duen herritarra.



UBANE MADERA

INAXIO AZKARRAGA  
ALKATEA

**"Orain ez nago urduri, baina eguna heltzen denean ziur nago urduri jarriko naizela"**

San Juan bezperan suaren aurrean dantza egitea egokituko zaio aurten, estreinakoz, Inaxio Azkarragari. Lasai-lasai, egun hori heldu aurretik, gertatuko denaren gainean dituen aurreikuspenak kontatzeko prestu eta gertu agertu da arrasatearren alkate berria.

**Aurten alkate moduan estreinakoz dantza egingo duzu suaren aurrean. Urduri zaude?**

Oraingo, ez, baina eguna heltzen denean, ziur baietz. Dena den, saiatuko naiz proba gainditzen.

**Zer esanahi izango du zuretzat dantza horrek?**

Une hori herriari omentzeko momentua izango da.

**Entsetzen hasi zara ala ez daukazu horren beharrik?**

Bai; irakasle oso ona daukat, eta hor nabil. Hala eta guztiz ere, dantzan ez naiz oso trebea.

**Aurretik inoiz pentsatu izan duzu dantza hau egitea egokitu ahal zitzazuunik?**

Ez, inoiz ez dut horrelakorik pentsatu ere egin.



Ondo ibili  
San Juanetan!

kapikua

OPARIAK ETA OSAGARRIAK



**ORDUTEGI  
BERRIA**



**Egunero:** 09:30-13:00

16:30-20:00

**Ostiraletan:** 09:30-20:00

**Larunbatetan:** 10:00-13:00

17:00-20:00

Doctor Bañez 4 • Arrasate

Tel.Faxa: 943 79 19 94

kapikua\_arrasate@hotmail.com







**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

aurretik doan unibertsitatea

Berrikuntza eta ikerkuntza oinarri dituen unibertsitate gaztea gara. Lan munduarekin zuzeneko eta etengabeko hartu emanean gaude, gizartearen beharrei erantzuteko prest.

*Bertako kulturaren sustraiturik, etorkizuna eraikiz.*

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)



**distira**  
ESTÈTIKA ZENTROA

## Ionterranean

- Gizentasun lokalizatua eta biguntasuna
- Aurpegi edo gorputz biguntasuna
- Aurpegi gaztetzeari
- Zelulitis garbia
- Zelulitisa loditasun lokalizatuarekin
- Zelulitis biguna
- Giharretako gaitzak
- Giharretako gaitzak biguntasunarekin
- Hezurretako gaitzak
- Zain-gutxiegitasuna



ETORRI  
informa zaituz  
konpromiso barik

### TRATAMENDUAK

- Mesoterapia: aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Azidoen tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzarekin
- Laser depilazioa
- Zelulitisaren aurkako tratamenduak
- Zelulitisaren aurkako tratamendu konbinatuak
- Presoterapia
- Solarium horizontala eta bertikala
- Masaje lasaigarriak
- Aurpegi tratamendua
- Aurpegi tratamenduak diamante muturrekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Manikura eta pedikura parafinarekin
- Neurriera egindako dietak

Arrasate Pasealekua 4 . ARRASATE . Tel.: 943 79 00 35



# Konpartsak familia handitu du berriz ere

laz erraldoi txikiak estreinatu eta gero, aurten ertainek erakarriko dute herritarren arreta osoa

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Basajaun, Mari, Ferroia eta Lamina. Tamaina ertainekoak dira eta herriko jai giroa alaitzea dute helburu. Orain, jaiak has-tear daudela, jantzi dotoreenak aukeratu eta kalera aterako dira; protagonistak izango dira. Herrikoak dira, herritarrak. Baina ez dira hezur-haragizkoak. Erraldoiak dira. Erraldoi berriak. Izan ere, aurten, Erraldoi eta Kilikien Konpartsak nobedadea dakar: erraldoi ertain berriak kalera aterako dira, estreinakoz, San Juan egunaren bezperan.

Iazko jaietan erraldoi txikiak herritar guztien begiradak erakarri zituzten, eta aurten ertainak izango dira izarrak. Familia handituta, konpartsak lau kide berriak herritarren aurrean aurkeztuko ditu bihar.

Kukubiltxoren eskuetan jai dira laurak. Izan ere, konpartsak Kukubiltxori eskatu dio erraldoi berriak egiteko. "Txikiak ere haiek egin zituzten, iaz, eta berriak egiteko lana ere haiei eskatu diegu", adierazi du Joserra Perezek, konpartsako kideak.

Berriak badira ere, herriarekin lotura zuzena daukate laurak. "Pertsonaia mitologi-

koak dira, Ferroia kenduta. Baina azken horrek ere badu herriarekin lotura; dragoiarekin batik bat".

**Hiru edo lau urteko lana**

Ume jaioberrieekin gertatzen den moduan, familian kide berri bat egoteak diru aldetik ere esfortzua

eskatzen du. "Hiru edo lau urte ibili gara dirua biltzen, horiek egiteko. Iaz, azkenean, Udalak erraldoi txikiak ordaindu zituen".

Guztira, konpartsak hamasei erraldoi ditu biltegian gordeta. "Horietatik lau erakusketarako bakarrik erabiltzen dira. Beraz, kalera ateratzeko hamabi ditugu".

Errementari-dantza egiten den egunean, hau da, San Juan egunaren bezperan, denak aterako dituzte kalera. "Baina gero, jaietan, erraldoi handi bi bakarrik aterako ditugu, ez gara nahiko jende guztiak ateratzeko".

Izan ere, konpartsak azken urteotan izan duen urterik txa-

rrena izan da aurtengoa. "Nagusietan zazpi lagun bakarrik gaude eta ez gara nahikoa 60 kiloko erraldoi handiak kalera ateratzeko. Umeekin ondo gabil-tza, gero eta gehiago dira-eta".

Denaren gainetik, herritarrak laguntzeko animatu bitartean, konpartsak bere lanarekin aurrera jarraituko du, orain arte bezala, senide berri eta guzti.

**"Aurten konpartsak urterik txarrena izan du"**



Lau erraldoi berriak bihar aurkeztuko dira, ofizialki, jendaurrean: Ferroia, Mari, Basajauna eta Lamia. | ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA

## PILDAIN JATETXEA

Eguneko menuak • Karta  
Plater konbinatuak • Bokatak

Ondo ibili  
San Juanetan!




Udala auzoa • Arrasate • Tel.: 943 79 11 65 / 943 77 18 67



**C**arrascal  
aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BAINURAKO ALTZARIAK  
HORMA ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK

# ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA



Banaketa ezin hobea



Ergonomia

## ONDO PASA SAN JUANAK

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 / FAXA: 943 10 69 66 • [scarrasc\\_1@infonegocio.com](mailto:scarrasc_1@infonegocio.com)

**ALDEDI**

**Ondo pasa jaiak!**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84





Pirritx eta Porrotx, Pupu eta Loreekin, Eskoriatzan egin zuten estreinaldian. | JOSETXO ARANZABAL



Eguzki Laru, iazko sanjuanetan. | GOIENA

# Igerilekua, eskulan tailerrak, puzgarriak... Eguzki Larurekin

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek 21ean egingo dute ikuskizuna

USOA AGIRRE | ARRASATE

Eguzki Laruren eguna zapatuan izango da, ekainaren 25ean. Bi guneez izango ditu aurten: Zaldibar eta Biteri plaza. 09:30ean diana egingo dute herriaren zehar eta 10:30ean zabalduko dituzte tailerrak bi gunetan.

Biteri plaza txikienezako gunea izango da. Haur parkea eta guraso txokoa egongo dira bertan, *Guraso.com*-en eskutik. Ludoteka egongo da, aurpegi margotzea, eskulan tailerra, txirrista puzgarriak, igerilekua itsasontziekin eta 12:00etan karao-

kea egingo da. 13:30ak arte egongo dira tailerrak zabalik; arratsaldean 16:30etik 18:15era egongo dira zabalik.

Zaldibarren gaztetxo gunea egongo da. Balance-bike zirkuitua, igerilekuko jolasak, ur txirrista, eta serigrafia tailerra egongo

dira. 12:00etan skate ikastaroa egingo dute Arrasateko Arraska skate taldearekin. Zaldibartik udaltzaingoko egoitzaren ondoko bainerara joango dira ikastaroa egitera. Norberak eraman behar du patinetea eta gorputzerako babesak.

13:30ean, bi gunetan tailerrak bukatu ostean, apar-jolasa egingo da Biteri plazan. Arratsaldean, 18:15ean tailerrak bukatu ostean, kalejira joango dira herriko plazara eta bertan dantzaldia egingo dute Kanpanoluekin.

## Pailazoak Monterronen

*Ongi etorri... Pupu eta Lore* ikuskizun berria aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Monterronen ekainaren 21ean, martitzena, 18:30ean.

Pupu eta Lore Pirritxen bi alaba bikiak dira, eta, jakina, alabak hezi egin behar dituzte, horrek dakartzan arazo eta bes-telako buruhausteeekin. Adibidez, osasun kontuek berebiziko garrantzia dute, eta bide horretan laguntzeko azalduko da Nagore, euren lagun medikua.

POSITIVE IZATEKO BESTE ARRAZOI BAT

## CITROËNen

# RENOVE PLANA

Hilabete honetan,  
zure auto zaharrari 2.400 €ko  
etekina atera.

WWW.CITROEN.ES

CITROËN C4

### CITROËN C4 BERRIA . POSITIVE POWER

e-HDI MOTORRA / STOP & START / eTOUCH / AURREALDEKO ESERLEKUAK ERREGULAZIO LUNBAR ELETRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN / ANGELU HILAREN ZAINTEZ SISTEMA / ABIADURA MUGATZAILE-ERREGULATZAILE PROGRAMAGARRIA / %15ERAINOKO ERREGAI KONTSUMOAREN MURRIZKETA / 6 ABIADURAKO ESKUKO KAXA PILOTATUA MARTXA OPTIMIZATUEKIN / ENERGIA BERRESKURATZE SISTEMA DEZELERAZIO FASEAN.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) /IGORPENA CO2 (G/KM): BERRIA C4: 4,2 – 6,4 / 109-159

\* Deskontua Citroën C4ren salneurriarekiko (ekainean gomendatua), zergak barne, Banque PSA Financeren bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako, trukean beste auto bat utzita; hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Eskaintza ez da bateragarria. [www.citroen.es](http://www.citroen.es) webgunean baldintzak kontsultatu. Ikusten den modelua: Citroën C4 Exclusive BERRIA






Erdiko kalea 54 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09



#### ESPEZIALISTAK:

- Gorputzeko eta aurpegiko tratamenduetan.
- Laserra:
  - Depilazioa (azal beltzarenentzako ere balio du)
  - Gaztete-tratamenduak eta aurpegi-tinkotzeak
- Medikuntza estetikoan:
  - Azido hialuronikoa
  - Botoxa
  - Dieta pertsonalizatuak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa
- Hidroterapia....

R.P.E. - 228/10



# BEREYA

elektrizitatea



- ALARMAK. TB. SATELITEAK
  - ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
  - TB ZERBITZU TEKNIKOAK
  - INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
  - SOINU INSTALAZIOAK
- KONPONKETAK OROKORREAN
  - ATEZAIN AUTOMATIKOAK
    - TDT - HD ANTENAK (Lurreko telebista digitala)

Ondo ibili San Juanetan!





**Bea Arregi** | Arrasate Margo Taldeko kidea eta erakusketako antolatzaile taldekoa

# "Egin duen lanagatik eskerrak emateko modu bat da"

- ▶ Julio Galartaren omenezko erakusketa, klaustroan
- ▶ Ekainaren 17tik uztailaren 17ra bitartean

AITZIBER ARANBURUZABALA |

ARRASATE

Apirilean hil zen Julio Galarta Arrasateko margolaria eta orduko Arrasateko Margo Taldeko bazabiltzan haren omenezko erakusketa antolatzen. Herriko margolari ezagunenetarikoari omendia egiteko modu bat dela diote ekimenaren bultzatzaileek. Udalak eta hainbat herritarrek bultzatutako ekimena izan da.

**Galartak bazuen erakusketaren berri-rik? Gustatu zitzaion ideia?**

Bai, bazekien. Hasiara baten sorpresa izan behar zen arren, esatea erabaki genuen gero. Gustatu zitzaion ideia eta harekin erakusketaz berba egiteko aukera ere izan genuen.

**Udalaz gainera, hainbat herritarren laguntza ere jaso duzue.**

Bai; sekulakoa, gainera. Horien artean: Iñigo Arregik hasieratik eskaini zigun laguntza; Josemari Velez de Mendizabalek hainbat

elkarrizketa egin zizkion lagun zuen Galartari; Enrike Forondak muntaian jardun du...

Galartaren familia ere hasieratik gurekin izan da, besteak beste, margolanak batzen... Eta gero, herriko jendeak ere, orokorrean, asko lagundu digu; asko izan dira margolanak eskaini dizkigutenak. Eskerrik asko!

**Zer ikusiko dugun klaustroan?**

Asko margotu zuen; beraz, haren obraren zatitxo bat bakarrik erakutsiko dugu: 60 koadro eta udaltxean dauden bi mural.

Hiru ataletan katalogatu ditugu: paisaiak, erretratuak eta natu-

ral hil edo bodegoiak. Gehienok paisajista moduan ezagutzen dugunez, batutako gehienak paisaiak dira, herrikoak eta kanpokoak.

Galartak kalean margotzen zuen, gehienetan, baina, eguraldi txarra egiten zuenean, etxean margotutako natura hilak ere jaso ditugu.

Erretratuetan, familiakoez gain, herriko pertsonaiak ere ikusiko ditugu: *Dongi*, garai bateko udaltzaina, esaterako.

**Ezaugarri nagusiak definitzerik?**

Nagusiena da pintzelada azkarrak erabiltzen zituela; horrez gainera, kolore biziak, argitasuna ere polita. Hitz baten, elegantea.

**Obrak ikusi bai, baina erosteko modurik ez da izango.**

Ez, margolanak ez, baina erakutsiko diren lanekin osatutako katalogoa eskuratzeko bidea izango da; beraz, horra hor Galartaren lan handiaren zatitxo bat denondako eskuragarri.



Bea Arregi, Kulturaren, Galartaren margolan bat atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA



Julio Galarta. | J. VELEZ DE MENDIZABAL

## Roneo bulegoko margolaria

Erretiratu artean, Roneo lantegiko bulegoa zuen lantoki; hala ere, gaztetatik izan zuen pintzelak margotan bustitzeko zaletasuna. Arte Ederrak ikastera joan zen Bartzelonara, horretarako lanean baimena eskatuta. Pintzelada azkarrekin egindako paisaiak ditu, besteak beste, ikur.

# JMA®

***belaunaldiz belaunaldi  
herriko sena landuz  
gora arrasate,  
gora san juan***





*Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik;  
guraiziakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi  
guraizitzat Bidasoa,  
hibai koxkor bat besterik ez da  
hutsa... balitz itsasoa.  
Elkarren hurbil daude zazpiak,  
muga daitzen da Pausoa.  
Zergatik izan ez behar degu  
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan  
sortzen diran landareak  
bezala gara Bidasoaren  
bi aldetako jendeak;  
berdinak dira gure jatorri,  
ohitura eta legeak,  
ama euskarak magal berean  
hazitako senideak.*

**EUSKAL PRESOAK**



**EUSKAL HERRIRA**

**Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:**

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Mondra Taberna,  
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.**

**ARRASATEKO  
SAN JUANAK 2011**





Herriko trikitixa taldeak girotuko du afalostea. | AED

## DATUAK

400

TXARTEL

400 bat txartel daude salgai AEDko egoitzan eta Monte eta Irati tabernetan. Egunean bertan ere egongo dira salgai plazan.

200

KILO TXULETA

Giokelako kilo erdiko txuleta banatuko zaio bakoitzari. Horiek gertatzen ariko dira herriko txuleta-erretzaileak.

# Dragoi janeko afalostea girotzeko, jolasak plazan

Txartelak salgai daude AEDn eta Monte eta Irati tabernetan

## USOA AGIRRE | ARRASATE

AEDk eta AEK-k antolatuta, dragoi jana egingo dute San Juan egunean plazan, 21:00etan (euria bada, pilotalekuan). Aurreko urteetako kopuruei eutsiz, aurten ere plazan afaltzeko 400 bat lagun biltzeko asmoa dute antolatzaileek. *Dragoie jan eta gero, euskeraz jota fuego* izango da afariko leloa,

jaietan ere euskaraz egiteko mezua zabaltzea baita helburua.

Iaz, nobedade moduan, umeendako menua izan zen. Aurten, baina, ez da umeendako menua izango eta heldu zein umeendako jateko berdina egongo da. Txartelak dagoeneko salgai daude 15 euroren truke AEDren egoitzan eta Monte eta

Irati tabernetan. San Juan egunean bertan erretiratuko dituzte tabernetatik txartelak eta oraindik baten bat gelditzen bada, plazan egongo dira salgai arratsaldetik aurrera.

**Jolasak afalosterako**

Afalostea girotzeko antolatu dituzte zenbait ekintza. Bertso-esko-

lakoek egingo dute emanaldia lehenengo. Ondoren, trikitixa taldeak eta Portaloira elkarteak kantua eta dantza batzen dituen ikuskizuna egingo dute. Bukatzeko, Dragoi-trivialean jolasteko aukera egongo da.

Jolasen ostean, 23:30ean, diskofesta izango da plazan bertan, Oihan Vegarekin.

## Umeendako menua ez

Joan den urtean nobedadea izan zen umeendako menua prestatu zutela antolatzaileek, baina aurten ez da egongo horrelakorik. Dragoi-janera gerturatutako guztiek, beraz, txuleta jango dute.

Txuleta izango da jaki nagusia eta menuan sartuko dira horrekin batera gazta eta irasagarria, kafea eta kopa. Hori guztia 15 euroren truke. Urtero moduan, aurten ere edaria norberak eraman beharko du plazara.



**ION**

ZORUAK  
LEIHOAK  
ATEAK  
HORMA ARMAIRUAK

leihok

*Ondo ibili  
San Juanetan!*





**ARRASATE**  
Telleria kalea 4 • Pab. 11  
Aramaioko bidea  
(Markulete Ind. inguruan)  
Tel.: 943 79 11 35

**GASTEIZ**  
Olagibel 51  
Tel.: 945 25 71 73






LANBIDE HEZIKETA

**Matrikulazio epea zabalik**

## Kurtsoak

Ile apainketa | Estetika | Hobekuntza

Automakillajea = 6 ordu

Nazioarteko titulu ofiziala  
Goi mailako diplomatura

Mundu mailan aitortutako titulua  
Nazioarteko lan-poltsa

30 urteko esperientzia



Orraztu: 7 €-tik aurrera | Moztu: 4,50 € | Tintea: 11,50 €  
Metxak: 10 € | Ile-luzatzeak (Buru osoa eta ile naturala) 120 €

Olagibel kalea 61 B | GASTEIZ | tel.: 945 12 03 60 | [formacionprofesionalces@gmail.com](mailto:formacionprofesionalces@gmail.com)





## *Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu s.l.**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51

## **SAN JUAN**

Igaz ere San Juan San Juan zan eta  
aurten ere San Juan Bautista (bis).  
Jesukristoren lehengusua zan  
San Juan San Juan Bautista (bis).

Hau da egia dana guzia  
Kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).

Ibai guztiak agortu dira  
arrain gaixuak egarriz (bis)  
Datorren urtian neska mutilak  
nun egingo dute igari (bis)

Hau da egia dana guzia  
Kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

**zure  
zerbitzura**





# Animaliak, kalean eta zezen-plazan

Ekainaren 24an, 25ean eta 26an entzierroak eta errektadoreak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Ez dago sanjuanik entzierrorik gabe. Behiak, zezenak eta mantsok erdiguneko kaleetako protagonistak izango dira, goizetan, ekainaren 24an, 25ean eta 26an. Manzarbeitiako ganadutegia etorriko da, azken 25 urteetan moduan. Antolatzaileen esanetan, Arrasate uste baino zezenzaleagoa da; horren adibide, hesiaren bi aldeetan izaten den jende kopurua, batetik; eta korrikalarien maila, bestetik.

Entzierro bakoitzerako animaliak aldatu egiten dituzte: "Mantsok errepikatu egiten badute ere, zezenak eta behiak egunero aldatzen dira, hanketan sufritu egiten dute eta".

Herriaren ezaugarrien araberrako entzierroak prestatzen dituzte. "Entzierro guztiak ezberdinak dira. Arrasaterako ezaugarri bat izan behar dute, ezinbestean: arazorik ematen ez duten eta beti aurrera egiten duten animaliak izan behar dute; bestela, arrisku-tsua da-eta".

Hala eta guztiz ere, aurreikuspenak horiek badira ere, animaliek egun horretan beste era batera joka dezakete.

## Bertoko entzierroa, "ederra"

Antolatzaileen esanetan, entzierro "ederra" da Arrasatekoa. "Bihurgune askoko bidea da eta horrek bere emozioa dauka. Hala ere, lehen, animaliak Ferrerias kaleetik irteten zirenean, emozio handiagoa egoten zen".

Animalien aurreko korrikalariak ere "primerakoak" direla diote: "Animaliak errespetuz tratatzen dituzte eta takarradan ondo egiten dute".

Aurten ere zezen-plaza egunero bete egingo dela aurreikusita, zaleei pazientzia eskatzen diete. "Eusko Jaurlaritzaren arabera, Arrasaten 1.400 ikuslerentzako lekua dago. Ilara luzeak sortzen dira eta jende asko kanpoan geratzen da".

Adituen gomendio modura, "korrikan hasi aurretik ibilbidea errepasatzea komeni da".



2010eko entzierroetako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

IÑIGO ALMORTZA | ERREKORTADOREEN ARDURADUNA

## "Gauzak ondo egiten badira, ez dago zertan ezer gertatu zezenarekin"

Aurten ere errektadoreek aukera izango dute zezenaren aurrean jartzeko. Hilaren 24an, 25ean eta 26an.

### Zertan datza hilaren 24an egingo den Euskal Herriko errektadoreen ikuskizuna?

Euskal Herrian errektadore asko ateratzen ari bagara ere, oraingoz dagoen talde bakarra da hau. Saltoak eta jolasak egiten ditugu animaliarekin. Bainuontzia eta quada ere erabiltzen ditugu.

### 25ean, errektadore izateko aukera ematen diozue edozeini.

Duela hiru urte hasi ginen errektadore eskolarekin, eta bertan, besteak beste, zezenarekin zelan ibili ir-



MIRIAN BITERI

kasten diegu umeei. Animaliekin errespetuz jolasten irakasten diegu. Dibertitzeko, ikasteko, eta ikustekoa izaten da bigarren ikuskizun hori ere. Izan ere, gauzak ondo egiten badira, ez dago zertan ezer gertatu. Animaliak ere errespetuz tratatzen ditugu, gehiago ezin dutenean gorde egiten ditugu-eta.

### 26an da hirugarren hitzordua. Errektadore gaztetxoaren arteko txapelketa. Edonorentzat da?

Hasiera baten, edonork parte hartu ahal du, baina guk ezaugarri batzuk ikusi behar ditugu parte-hartzaile horiengan. Oraingoz, baditugu 11 eta 15 urte arteko gaztetxoak hitzordu horretarako prest daudenak; hala

ere, aurreko eguneko ekitaldian, fitxaketa batzuk egin ahal ditugu. Dena dela, errektadore gaztetxo horiek ezaugarri batzuk izan behar dituzte, ezbeharririk ez gertatzeko.




JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
20500 ARRASATE

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,  
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...



Ondo pasa San Juanetan!



HORTZ KLINIKA  
UARCAPE

Nicolas Bermejo doktorea

*Odontologia orokorra*  
*Endodontzia*  
*Inplantologia*  
*Protesiak*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85



zenbaki   
aholkulariak-abokatuak

25  
urteurrena



**Aurten 25. urteurrena ospatuko dugu**

Gure bezeroei eskerrak eman nahi dizkiegu urteotan gudan izan duten konfiantzagatik.

*Ondo ibili  
San Juan jaietan!*



Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABAETA Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

Jaiegun hauetan **PRIMERAN** pasa  
El Boulevard-en



- 1 CINES ABACO
- 2 DUOMO'S PIZZA
- 3 FOSTER'S HOLLYWOOD
- 4 DÖNER KEBAP ISTANBUL
- 5 LASER XTREME
- 6 GIMNASIO HYDRA
- 7 GINO'S PASTA & PIZZA
- 8 CAFÉ & TE
- 9 ARTEPAN
- 10 BURGER KING
- 11 DONGA
- 12 CANEL ROLLS
- 13 KALEZAR
- 14 HUMMM CAFÉ
- 15 VIPS
- 16 CRUZ BLANCA
- 17 KRUNCH
- 18 FRESC CO
- 19 SASKI
- 20 BOLERA NEX BASKONIA
- 21 WOK

**San Juan zorientzua  
opa dizuegu!**

Dibertsioz beteta, ZUTAZ beteta







Zopilotes Txirriaos, Lur aretoan eskainitako kontzertuan. | NATALIA PIO



Revolutionary Brothers. | REVOLUTIONARY BROTHERS

# Musika kontzertuak, jolasak, eskalada... gazteen eskutik

Bi txosna egongo dira aurten eta ekintza ugari antolatu dituzte

## USOA AGIRRE | ARRASATE

Txosnetako egitaraua indarra hartzen dabil urtetik urtera eta aurtengorako ere ekintza ugari antolatu ditu San Juanetako jai batzordeak.

Eguenean, ekainak 23, 12:00etan irekiko dituzte txosnak txupinazo eta pregoiarekin, eta triki-poteoa egingo dute ondoren.

Azken urteotako ohiturari jarraituz koadrilen arteko bazkaria egingo dute 14:30ean; Uarkapen egingo da. Bazkarirako txartelak salgai daude, domekara arte, Iluntz, Basati eta Irati tabernetan 16 euroren truke. Prezioaren barne eguneko bazkaria eta San Juanetako kamiseta sartzen dira.

## Txikientzako jolasak

Txosnak gazteen gunen izateaz gain, herritar guztien gunen izatea ere nahi dute eta hori kontuan hartuta txikientzako joko erraldoiak egingo dituzte barikuan, San Juan egunean: partxisa, twisterra... egingo dira.

Domekan, 17:00etatik 19:00etara, umeei euskal kultura ger-

turatzeko asmoz herri kirol parte-hartzaileak egingo dituzte 6-12 urte bitartekoentzat.

## Musika kontzertuak

Barikuan Txosna Life Festival egingo da txosnetan; Skasti, Disorders eta Kantuki taldeek joko dute 00:00etan txosnetan. Gaztetxean, ordu berean, Donostiako

Revolutionary Brothers taldea arituko da.

Zapatuan, Arrasate Rock Festival egingo da txosnetan. Kañeria 13, Motociclón eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek eskainiko dute kontzertua. Domekan gaztetxean egingo dute kontzertua; Gazte Iraultza, AMD eta talde sorpresak hartuko dute parte.

## EGITARAUA

### EKAINAK 23, EGUENA

12:00 Txosnen irekiera.

12:30 Triki-poteoa.

14:30 Koadrilen bazkaria.

17:00 Makalarekin txikiteoa.

18:30 Makalaren igoera.

21:00 Arrasate kulturaletik bisita.

### EKAINAK 24, BARIKUA

08:00 Txokolatea eta bizkotxoak Arbolapetan.

18:00 Txikientzako jokoak.

19:30 Manifestazioa.

20:00 Dragoitxoak parrilan.

00:00 Txosna Life Festival.

00:00 Revolutionary brothers gaztetxean.

### EKAINAK 25, ZAPATUA

17:00 Street Boulder.

18:00 Gazte jolasak.

19:00 Orkestra elektronikoa.

22:00 Arrasate Rock Festival.

### EKAINAK 26, DOMEKA

17:00 Herri kirolak umeekin.

19:30 Binologoa.

20:30 Urrezko Dragoiaren banaketa.

21:00 Albiña Rock.



**oinesku**  
fisioterapia • podologia

Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate

**Eider Zabala Casteig** (Kolg. Zenb.: 520)  
Fisioterapia  
Osteopatia  
R.P.G. Berreziketa postural orokorra

**Idurre Osa Salegi** (Kolg. Zenb.: 239)  
Podologoa

Ondo pasa San Juanak





Grupo Amantegi

# anpazar obate

— harrobiak —

*Ondo ibili San Juanetan!*

## ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

### **KANPANZAR HARROBIA S.A.**

Meatz-Erreka auzoa 21  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 77 10 83  
Faxa: 943 77 00 25

### **KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**

Garagartza auzoa 52  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 71 24 03  
Faxa: 943 77 02 51

**ONDO  
PASA  
JAIXAK!**


**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak





Joannes Irizar | San Juan batzordeko kidea eta eskalatzaile afizionatua

# "Eskaladarekin ondo pasatzea gura dugu"

- ▶ Herriko txokoak eskalatzeko-gune bilakatuko dira
- ▶ Herri txapelketa ikusgarria guztiontzat

AITZIBER ARANBURUZABALA |  
ARRASATE

III. San Juan eskalada txapelketa egingo da ekainaren 25ean; aurten, street-boulder formatuan egingo da. Izena webgunean bertan eman behar da.

**Street-boulder formatua aukeratu duzue; zertan datza?**

Street-boulderra da herriko erai-kinak erabiliz, soka barik eta altuera baxuan eskalatzeko; eta kirol eskalada, berriz, sokarekin altuera handiagoak eskalatzeko.

**Aurrekoa orain 2 urte izan zen; gus-tura geratu zineten?**

Iaz gaztetxeko rokodromoa sortu zela-eta, egitura hori erabiliz txapelketa bertan antolatzea erabaki zen. Orain dela bi urte egin genuen, beraz, kaleko-boulder formatuan lehenengoa. Markel Mendieta eskalatzaileari okurritu zitzaion, ideia originala zela-koan, formatu horretan egitea.

Txapelketa xume baina polita izan zen: hamabost bat lagunek parte hartu zuten giro onean; ikusleak ikuskizunarekin harrituta geratu zirela esango nuke. **Hitzordua non egingo dugu?**

Ekainaren 25ean, zapatuan, 17:00etan txosnagunean elkartuko gara. Bi orduren bueltan, herriko hainbat toki esanguratsutan hainbat proba egin beharko dituzte.

**Txapelketak zein egitura edo ezaugarri izango ditu?**

Txapelketak zortzi bat bloke edo *arazo* izango ditu ebazteko; txosnagunean hasi eta, seguruenik, gaztetxean amaituko da zirkuitua. Blokeak zailtasun eta ezaugarri ezberdinetakoak izateko gura dugu: batzuk teknikoak; beste batzuk originalak; beste batzuk indarrezkoak... Ahal den eta bariatuen izatea gurako genuke, alegia.

**"Eskalada kalera ateratzea eta jaiak girotzea ditugu helburu nagusi"**

**"Ezaugarri ezberdinetako zortzi proba ebatzi beharko dituzte"**

**Nork har dezake parte? Baldintza edo maila zehatzik eskatzen da?**

Asmoa herri txapelketa bat egitea da; hau da, eskalatzeko gaitzen zaien neska eta mutil guztientzako izan dadila. Helburua eskalada kalera ateratzea da; eta, bide batez, jaiak girotu eta partaidetza bultzatzea.

Izen-ematea egunean bertan egingo da. Parte-hartzailea izatea gura dugun heinean, doan izango da.

**Zer espero duzue aurtengotik?**

Lagun arteko txapelketa bat izatea nahiko genuke, ondo pasatzea eskalada kalera aterata. Jaiak herriatik eta herriarentzat.

Batez ere bailarako zaleak etortzea nahiko genuke; bakoitzak duen maila duela. Kanpokoentzako ere, baina, atek zabalik daude, nola ez. Berrikitza moduan, lehiakideentzako kamisetak izango dira aurten.



Joannes Irizar, San Juan Bataiatzailea parrokiako atarian. | JOKIN BERZIARTUA

**Amaitzeko, aterako diguzu Arrasateko eskaladaren argazkirik?**

Arrasaten, Debagoienera eta orokorrean Euskal Herrian zaletasun eta maila handia dagoela esango nuke. Antzinatek natura eta mendiarekin daukagun harreman estuaren eragina izan daiteke.

Azkenengo urteetan, baina, eskaladak kirol moduan hedapen handia izan du, materiala edota instalazioak direla-eta. Arrasaten bada eskalada talde bat eta udal rokodromo bat ere bai, neguan txiki gelditzen bada ere.

Oraindik eskalatzaile gehienak gizonezkoak badira ere, gero eta neska gehiago ikusten dira eskalatzeko, maila onean.

Nire ustez, gure bailaran eskaladaren inguruan egiten den inbertsiorako, oso maila handia dago, kantitate eta kalitate aldetik ere bai.

**Zerbait gaineratu gura baduzu...** Herriko eta inguruko eskalatzaileak parte hartzera animatu gura nituzke, mereziko duela uste dugulako. Ikusleei ere gonbita egingo nieke, aurrekoan ikuskizun ederra izan zen-eta.



**Zatoz triLINGUA Komunitatera!**

Zatoz hiru hizkuntzatan bizi eta komunikatzen den komunitatera!  
**ZATOZ PRESTATUENEN KOMUNITATERA!**

**LINGUA**  
Komunitatea

**ingelese, euskara, frantsesa, alemana...**

Ane

triLINGUA da

join us!  
únete!  
zatoz!



2011ko uda

**Trinkoak**



Ekainean, uztailan eta irailan... ez duzu ordu mugarik izango.

**Udaleku irekiak**



Haurrek jolasean eta ondo pasatzen duten bitartean ingelese ikasteko aukera daukate. Horretaz gain, gurasoentzako zerbitzua da, uztailan euren seme-alabek ekintza batean esku hartzen dute eta.

**Ikastaroak atzerrian**



Informazioa eskatu.

jai zoriontsuak





matrikula zabalik

[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

ARRASATE  
Araba etorbidea, 4  
943 71 20 55

OÑATI  
Olakua, 14  
943 71 60 00



*Paraje eder  
baten kokatua*

*Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina  
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat*



♦ Menu bereziak  
aukerari: 18 €

♦ Karta

**Arteaga**

Landetxea

Arteaga baserria  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel.: 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82

**ONDO PASA JAIK!**

**Zure diseinua gauzatzeko dugu.**

■ Serie laburrak

■ Prototipoak

■ Kontrol tresnak



Serie laburren fabrikazioa erronka handia da enpresa askorentzat. Ekide, ordea, espezialista da serie laburretan.

Gure elkar-ingeniaritza zerbitzuak, bezeroen lantaldeekin batera lan eginda, prozesuak eta materialak optimizatzea posible egiten du emaitzarik hoberenak eskainiz.

12 teknologiatik gora integratzen dugu eta prototipoak eta kontrolerako tresnak ere fabrikatzen ditugu.  
Honela, sektore ugarietako enpresen beharrei erantzuten diegu.

Ondo Ibili  San Juanetan!





**1981** Danborrada egiten hasi eta hogeitazero, danborradak jaietako izarra izaten jarraitzen zuen. Urte haietan lau elkartetan antolatzen zuten: Udalpe, San Isidro, Casino eta Danobatek.



**1986** Ospe handiko danborrada zen Arrasatekoa eta inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen ikuskizuna ikustera. Plaza jendez gainezka egoten zen.



# 50 urte eta ehunka istorio kontatzeko

Aurten, Gaztetxeko lagun asko batu dira danborradara

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Udalpe elkartearekin hasi zen danborradaren historia. 50 urteko historia, 50 urteko ibilbidea eta 50 urteko eskarmentua. Gaur egun danborradaren antolakun-

tzan buru-belarri dabiltzanek ilusioz eta nostalgia pixka batekin gogora ekartzen dituzte hasierako garaiak. Urteetan atzera egin, eta danborradak izandako bilakaera nolakoa izan den erre-

pasatzeko argazki album zaharrak zabaldu dituzte.

Udalpe hasi zen danborrak astintzeko lanarekin. Hiru edo lau urte geroago beste hiru elkarte batu ziren danborradaren

antolakuntzara: Danobat, Casino eta San Isidro. Handik, Udalprekin bat eginda, SUDC taldea sortu zuten laurek.

## Urteotako bilakaera

Urte batetik bestera, danborrada ospea hartzen joan zen. "Ni Aretxabaletakoa naiz eta gogoratzen dut nola inguruko herrietan Arrasateko danborradari buruz hitz egiten zen. Irratian ere entzuten zen", dio Juan Luis Arkauzek, gaur egun danborrada antolatze-lanetan laguntzen diharduen herritarra.

Hasierako urteetako oihartzunik gaur egun ez dagoela dio Arkauzek. "Lehen, kaleak jendez beteta egoten ziren danborrada pasatu aurretik. Orain, egoera

bestelakoa da. Herritarrek parte hartzen dute, baina ez dago lehen besteko girorik; dena apalagoa da".

Bide beretik, orain ez bezala, lehen, elkarte guztietako banderak ateratzen ziren. "Urteotan ohitura hori galtzen joan da".

Gaur egun egiten dena eta hasiera batekoa alderatzen jarrita, lehengo "zirrarragarriagoa" zela dio Arkauzek. "Orain, jendeak ez du denbora luzerik ere, eta tartetxo bat daukanean kanpora ihes egiten du. Lehen, herriko jaietan ez zen inor joaten; herritarrek herriarentzako lan egiten zuten, orain ez bezala".

Hala eta guztiz ere, parte-hartzea beti handia izan dela dio Arkauzek. "Inoiz ez gara herri-

S  
SABURDI

harategia • urdaitegia  
gourmet

HARATEGIA

URDAITEGIA

Eta orain, baita  
**AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JANARIAK** ere



**LEKUZ ALDATU GARA!**



Otalora Lizentziatua (UARKAPE ONDOAN)

Tel.: 943 79 86 15





**1992** Hasieran danborradan elkarteetako bandera guztiak ateratzen ziren eta gero, urteek aurrera egin ahala, ohitura hori baztertu egin zen. Aurten, aldiz, berriro aterako dira, urteurrenaren harira.



**1999** Gainerako herrietan ez bezala, emakumeak beti egon izan dira presente Arrasateko danborradan. Kantinera papera betetzeaz gain, danborra jotzen ere parte hartzen zuten.



**2010** Gaur egun ere danborradak herritar asko erakartzen ditu, baina, antolatzaileen esanetan, "lehen jaia danborradaren bueltan egiten bazen, orain alderantziz da".

tarren faltan egon. Parte-hartzaileak beti egon dira hor".

Izan ere, guztira, nagusien danborradan urtero 200 lagun inguruk parte hartzen dutela dio antolatzaileak.

#### 50 urte eta sei zuzendari

50 urteko ibilbidean, zuzendariak ere aldatzen joan dira. Horrela, guztira sei zuzendari egon dira danborradan, gaur egun dagoena barne: Rafa Fernandez, Aitor Zeziaga, Luis Mari Maidagan, Luis Maria Muruamendiaratz, Mentxaka eta gaur egun dagoen Nestor Maidagan.

Egoera aldatu bada ere, Arrasateko danborradak, oraindik orain, badu indarra. Eta horren adibide da umeen danborrada.

"Umeen danborrada duela 35 edo 40 urte hasi zen egiten eta gaur egun ere umeek ilusioz parte hartzen dute".

Urte txarrei buruz galdetuta, Arkauzek dio ez dela urte oso txarrik egon. "Orokorrean nahiko ibilbide ona izan da eta ez da urte txarrik egon".

Hala ere, urte baten danborradak ia ez irteteko erabakia hartu zuen. "Gogoratzen dut, zaparrada handia zen, eta erabaki bat hartu behar zen. Azkenean, kalera atera ginen, aterpeetan danborra jotzen ibili eta gero, goitik behera bustita amaitu genuen. Gogoan dut nire arropa guztia tantaka zegoela".

Orain, momentua pasatuta, irribarrez kontatzen du orduan

gertatutakoa baina etxera bidean egindako lanaz harro joan zela dio.

#### Azken prestaketak egiten

Urtero bezala, aurten ere bi hilabete aurretik hasi dira antolatzaileak danborrada antolatzen. "Hasiara baten, bilerak egiten

ditugu, eta gero, hortik aurrera dena lotzen joaten gara. Baina jendeak aurretik ere parte hartu izan duenez, badakite gauzak nola egin".

Aurten, gainera, gaztetxetik gazte asko danborradara gehitu direla dio: "Horrek poza ematen dit eta espero dut etorkizunean

ere gazte horiek danborradan aurrera jarraitzea".

Azken prestaketak direla-eta, ia dena prest dago egun handirako. "Nork bere arropa prest dauka, ea urteurrena ondo joaten den".

Oihartzun handiagoarekin edo txikiagoarekin, jende gehiagorekin edo gutxiagorekin, danborradarik gabe jairik ez dagoela argi dio Arkauzek: "Danborrada beti egongo da hor, ezinbestean". Eta, bide horretatik, aurten, 50. urteurrena bete-betean ospatuko dute antolatzaileak, herritarrekin batera. "Berriro elkarteetako banderak aterako ditugu kalera eta guztion artean hasierako urteak gogora ekarriko ditugu berriro".

#### ESANAK

"Urte baten ia ez zen danborrada ospatu, zaparradagatik"

JUAN LUIS ARKAUZ | DANBORRADA ANTOLATZAILEA

"Aurten elkarteetako banderak aterako ditugu"

Produktuak kopiatu eta  
teknologiak eros daitezke.  
Marka, ordea, bakarra da.

Gora San Juanak!

azk

Branding  
eta Komunikazioa

Arrasate - Mondragón  
Osinaga 2, 1º  
20500 Arrasate - Mondragón  
Tel: 943 712 108 Fax: 943 712 132

Vitoria-Gasteiz  
Parque Tecnológico de Álava  
Hermanos Lumiere 11-Oficina 6  
01510 Miñano  
Tel: 945 33 41 22 Fax: 945 33 45 57

[www.azk-taldea.com](http://www.azk-taldea.com)



# Carrefour

## GORBEIA



# Zorionak guztioi San Juan Jaietan

Jai hauetan ere, zure ondoan gaituzu.



[carrefour.es](http://carrefour.es)

\*60€ baino gehiagoko erosketan eginda,  
Carrefour Gorbeiarantz etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.  
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.  
-Zenbatekoa opari-txartelean ordainduko da.

2011. urtea amaitu arte baliagarria



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro erakiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** Erdigunean, Seber Altuben. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru ligela, bi komun, sukalde, jangela-egongela, trasteleku eta igogailua. Azken solairua. Komunitateko terrazarekin. Garajetik ez. 270.455 euro. Deitu 9:00etatik 13:00etara bitartean. Kristina.635 75 50 36 edo 943 79 24 59

**Arrasate.** Zigarolan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. Hiru terraza. Oso eguzkitsua eta dena kanpoaldera begira. Jantzia utziko genuke. 687 11 08 92

**Bergara.** Atiko duplexa, 140 metrokoa, salgai San Lorentzo, Madinan. 6. solairuan. 18 metro koadroko terraza egongelaren eta 4 metrokoa sukaldean. Beheko sua egongelan. Sukalde guztiz hornitua. Bi logela eta bi komun. Loft moduko 44 metroko duplexa. 665 71 48 30

**Bergara.** Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukalde. Igogailua eta sotoa. Prezia: 162.000 euro. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 625 70 84 55

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trasteleku terrazekin. Urbanizazio pribatua. 138.200 €. 629 45 58 51

**Elgeta.** Etxebizitza 80 metrokoa, salgai: hiru gela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Prezio interesgarria. Deitu 658 75 84 58 zenbakira.

**Oñati.** 68 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, komuna, sukalde guztiz hornitua eta egongela handia. 258.000 euro. Erdigunean. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. 659 72 06 64

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. 656 79 88 12,

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukalde, trasteleku, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02,

**Peñiskola.** Bungalow-a saldu edo errentan ematen da Peñiskolar II auzoan. Prezio onean. 600 89 47 75

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da. Udala enparantzaren inguruan (unibertsitate 200 metrora). Hiru logela, bainu bi, egongela. Jantzia. Deitu 669 70 85 88 zenbakira.

**Eskoriatza.** Baseria ematen da errentan. Berritzua. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean. 693 80 40 47

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. 639 96 01 21

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Olakua auzoan. Hiru logela, sukalde, egongela eta komuna. Ikasleendako egokia. 627 34 96 03

**Oñati.** Olakua 1.A-n, lau logeletako etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. 619 18 07 44 edo 943 78 01 67

**Peñiskola.** Apartamentua ematen da errentan. Igelileku, aparkaleku, igogailua eta guztiz hornitua. 2-5 pertsonarendako moduko. Urbanizazio pribatua, ondartzeta eta itsas pasealekutik 50 metrora. 670 66 64 13

**Peñiskola.** Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Beheko solairuan, lorategiarekin eta txirristadun igerilekuarekin. Uztaierako. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 948 41 00 79, 616 95 04 00

**Torrevejan.** atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. 2 logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteoko garaje eta igerileku. Telefonoak: 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, pertsona bakarrentzat. Kontratuarekin bada, hobeto. 622 53 51 25

**Elgeta edo Bergaran.** etxebizitza adaptatua errentan hartuko nuke. Gurgildun aukia ibiltzeko moduan. Igogailuarekin eta komunean dutzarekin. 677 17 77 77 edo 627 89 55 41

**Errentan hartu.** Bergaran, bi edo hiru logelako pisua hartu nahiko nuke errentan. Kontratuarekin eta presazkoa. 697 62 59 57

**Oñati.** Hutsik dagoen etxea (altziririk gabea) errentan hartu nahi da Oñatin. Ahalik eta azkarraren. 637 00 10 80

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Erguin inguruan. 670 59 73 62

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko erdigunean. Iñaki. 608 49 89 93

**Arrasate.** Uriburu kalean, unibertsitate 200 metrora, pertsona bat behar da beste birekin batera etxebizitza osatzeko. 699 49 87 89

**Erasmus ikasleentzat gelak.** Erasmus ikasleentzat gelak behar dira Arrasaten, irailaren hasieratik gabonak arte. 943 71 41 57 luz. 206

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bila nabil. Deitu 652 71 52 50 zenbakira.

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 28 metro koadroko garaje itxia ematen dut errentan Uriburu kalean. Deitu 610 33 67 04 zenbakira.

**Arrasate.** Garaje bat ematen da errentan Arrasaten. Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzaren), unibertsitate oso gertu. 60 euro hilabetean. Idatzi soliveira@hotmail.es helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara: 678 53 82 48 (Sergio)

## 4. LANA

## 402. ESKAERA

**Antzuola.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko. Deitu 669 36 17 82 telefonora.

**Aretxabaleta.** Ikasle euskalduna gertu hainbat lan egiteko: umeak zaindu, nagusiekin paseatu, etxeko garbiketa edo lanak egin eta abar. Deitu 617 91 17 06 zenbakira.

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebeteko gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## Arrasate edo Aretxabaleta.

Emakumea, eskarmentuduna, nagusiekin umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. 685 21 24 89 edo 662 57 53 46

**Arrasate.** Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Neska gertu ile-paintzaile laguntzaile jarduteko edo garbiketa lanetarako. 685 21 24 89 edo 662 57 53 46

**Arrasate.** Erizaina gertu nagusi edo gaixoa zaintzeko gauean. Ospitalean edo etxean. 639 97 02 86

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen edo etxeko garbitzen lan egingo nuke. 681 27 99 54

**Arrasate.** Neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edo manikura, pedikura edo ilean trentzak egiteko umei. Maria. 617 66 70 05 edo 943 77 10 99

**Arrasate.** Umeak zaindu edo eskola partikularrek emango nituzke. 696 78 75 71

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87

**Bergara.** Neska gertu nagusiak zaintzeko astelehenean egubakoitzean. Eskarmentuduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko gertu: eda-detuak zaindu, etxea garbitu. Deitu 610 99 70 46 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, edo etxean bertan bizi izaten. Egunez ere lan egingo nuke. 674 93 20 47

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, etxean eta ospitalean, eta garbiketa lanak egiteko. Deitu 620 68 05 89 telefonora.



**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Sanantonabat, 75 m<sup>2</sup>, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m<sup>2</sup>, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m<sup>2</sup>.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m<sup>2</sup>, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparagirre, 190 m<sup>2</sup>.
- San Antonio, 65 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokan, San Lorentzen eta Lorentxokon.
- San Lorentzen aukera ona.
- Basarte. 69 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m<sup>2</sup>. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale. 48 m<sup>2</sup>. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m<sup>2</sup>. Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.

## ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska, ikasketa soziosanitarioduna, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko gertu. 649 15 72 47

**Debagoiena.** Legezko paperak dituen emakumezkoa gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe edo atariak garbitu eta tabernetan lan egiteko gertu nengoko. Rosa Maria. 673 47 53 74

**Debagoiena.** Legezko paperak dituen emakumezkoa lan bila. Esperientzia dut etxeko lanetan eta nagusiak zaintzen. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe eta atarien garbiketan ere jardungo nuke. Juana. 695 75 42 45

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zainkarako gertu nago. Hiru urteko esperientzia daukat. Jose Zamora. 680 75 14 88

**Debagoiena.** Legezko paperak dituen gizonzkoa lan bila. Esperientzia daukat pertsona nagusiekin. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe zein atarien garbiketarako ere egungo nituzke. Armando. 682 35 90 60

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, nagusiak edo umeak zaindu, zerbitzari eta abarretarako. 943 79 76 54

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa zein etxeko lana egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 648 46 90 51 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu tabernetan sukaldean lan egiteko. Elikagaien manipulazio titulua daukat. Ume edo nagusiak zaintzen ere jardungo nuke. Orduka. Edo garbiketara. 600 20 55 43

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zainkarako gertu nago. Hiru urteko esperientzia daukat. Jose Zamora. 680 75 14 88

**Eskola partikularrek edo umeak zaintzea.** Psikologia bigarren maila ikasten ari den neska prest dago umeak zaindu edota eskola partikularrek emateko (batxilerr mailara arte). 663 73 49 95 edo 943 79 31 93

## 5. IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Antzuola.** Ekinean eta uztailean klase partikularrek emateko prest egongo nintzateke. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik. 6. mailara arte. 669 36 17 82

**Aretxabaletan udan.** Klase partikularrek emateko eta etxekolanak egiten laguntzeko prest. 2. batxilergorarte klaseak ematen ditut udan eta urten zehar jarraitzeko aukerarekin. 653 01 76 67

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrek emango nituzke. Uztailean ikastaro trinkoak. 618 91 32 89

**Debagoiena.** Batxilergoko bi mailetako filo, gazte, euskara eta historiako eskola partikularrek ematen ditut. 618 12 86 48

**Debagoiena.** Informatika eskolak ematen dira: programazioa, weborriak eta blogak. Ordenagailuen konponketa ere bai. 679 74 00 61

**Eskola partikularrek.** Eskola partikularrek ematen ditut udan. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo arte. Esperientziaduna naiz. Deitu: 671 41 22 17

**Eskola partikularrek Oñatin.** Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrek emango nituzke udan, maila guztietan. Esperientzia handia daukat. 666 21 73 48

**Klase partikularra ematen ditut.** Goi mailako arkitektoa, udan klase partikularrek emateko prest. Edozein maila eta ikasgai. 661 09 35 00 edo 943 78 31 62

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**BabyCook-a.** Oso egoera onean dagoen Babycook-a salgai. Arroza egiteko osagarria eta galdara garbitzeko likidoa ere bai. Babycook-ak bapareaz prestatu, txikitu eta desizoztu egiten du janaria. Haurtxoaren elikadura osasuntsuagoa egiteko. Dana 70 eurogaitik. Deitu 606 21 37 18 zenbakira.

**Bebe Confort.** etxeko kapazoa eta aukileko salgai. 2009koak. Oso gutxi erabiliak. Debagoienean. 629 18 40 63

**Bizikleta tolesgarria.** Folding 08 Street. 2008koa. Erabili gabea. 50 euro. Deitu 679 32 60 38 telefono zenbakira.

**Gimnasiorako bonoa.** Arrasateko gimnasio baterako bi urteko bonoa salgai. 298 euro. Klaseak (pesak, spinning...), makinak, sauna eta Pilates. Interesatuok marysea15@hotmail.com helbidera idatzi edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54

**Karabana.** salgai. Bustner etxekoa. Oso ondo zainduta. Bi abanzerekin: negukoa eta udakoa. 4.500 euro. Interesatuok deitu. 660 98 37 05 telefono zenbakira.

**Karbonozko bizikleta.** Flanders etxekoa. 56 neurrikoa. 750 euro. 637 29 66 79

**Mendi bizikleta.** Trek Fuel EX6. 2007koa. Suspentsio bikoitza, berriak. Transmisio berriak. 800 euro. Debagoienean. 675 70 67 39

**Umeendako.** kotxe kapotasalgai. Silver-cross modeloa. Urdina. la-ia berria. Deitu 615 74 13 47 telefonora.

## 802. EROSI

**Erleak ipintzeko lursaila.** Erosiko nuke partzela bat hektarea bat eta lau artekoa, erleak ipintzeko. Tokiak behar du kotxez igotzeko bidea eta ur apur bat erleentzat. Deitu iluntzean mesedez: 626 01 19 07

## 806. GALDU

**Audifonoa Antzuolan.** Audifonoa galdu nuen Antzuolan maiatzaren 14an. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu telefono honetara. Mila esker alde aurretik. 619 43 48 53

**Betaurreko graduatuak.** galdu nituen Eskoriatzan, maiatzaren 22an (hauteskunde eguna) kultur etxean edo Azkoagaenea hotelean. Armazoi beltza dute eta kaxa urdina. Udaletxera eroan edo deitu. 656 75 30 57 telefonora

**Motxila Aretxabaletan.** Eguzki taberna osteko kolunpilotan lauki motxila gris bat ahaztuta utzi genuen ekainaren 10ean, ostiralean. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu dezala. Eskerrik asko. 605 77 56 66 edo 688 80 04 79

**Motxila desagertuta.** Aurreko astelehenean Arrasateko Gaztelupen (Arizmendi), klase aldatetan, lauki berdedun motxila desagertu zen. Hartu duenak mesedez utz dezala idazkaritzan. 653 41 13 06

**Ordenagailua Aretxabaletan.** Ordenagailu eramangarria galdu nuen Aretxabaletako plaza inguruan ekainaren 8 edo 9an. Zorro granate batean zegoen. Familiako argazkiak dauzkat bertan eta eskertuko nuke itzuliko balidate. 652 73 31 48

## 807. AURKITU

**Aretxabaletan Umeen erloju-a aurkitu.** Maiatzaren 20 inguruan, Iralabari plazan, umeen erloju gorri bat aurkitu genuen. Galdu duenak dei dezala 615 79 20 66 . telefono zenbakira. Bittoriano

## EMAKUME TXOKOAREN DINAMIZATZAILEA

Emakume Txokoaren dinamizatzaile bat bitarteko funtzionario izendatu nahi da aldi baterako.

**Izena emateko epea:** ekainaren 18tik 30era arte (biak barne)

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta udaletxeko webgunean jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila ■






### Bittoriano eta Jesusa

Bittoriano Etxagibel eta Jesusa Alberdi 1961eko ekainaren 17an, orain dela 50 urte, ezkondu ziren Bergarako San Pedro elizan. Urrezko ezteiak ekainaren 18an ospatuko dituzte Garagartzan familiarekin. "Zorionak, bikote, familia guztien partetik eta egun ederra eta zoriontsua pasatu zapatuan Garagartza aldean".




### Ainara eta Oskar

Ainara Osinaga Herraiz eta Oscar Martinez Remedios ekainaren 18an Dorletako Santutegian ezkonduko dira. Ostean, Gure Ametsa jatetxean ospatuko dute eta eztei-bidaian Estatu Batuetara eta Polinesiar joango dira. Familia eta lagun partetik, "ondo-ondo pasatu" eta Nahiaren partetik muxu handi-handi bat!




### Amaia eta Aitzol

Amaia eta Aitzol ekainaren 18an ezkonduko dira. "Zorionak! Zuen betiko lagunok onena opa dizuegu elkarrekin ilusioz hasiko duzun etapa honetan! Ederki ospatuko dugu denok! Unax, Ekaitz eta Ekainen partetik zorionak eta ea koadrila txiki hau handitzen dugun!"



### Virginia eta Borja

Virginia Molina eta Borja García bihar, ekainak 18, Eskoriatzako parrokian ezkonduko dira. Bazkaria Zumaia Marina Berri jatetxean ospatuko dugu, eta eztei bidaian Vietnametik zehar ibiliko dira. Egun bikaina izango dela ziur gaude. Zuen kuadrilakoen partetik "zorionak eta zoriontsuak izan!"



### Itxasne eta Javi

Itxasne Lazkano eta Javi Rodriguez bergararrak bihar, ekainaren 18an, Bergarako Mariaren Lagundia elizan ezkonduko dira. Eztei bidaian New York eta Mexikora joango dira. Familiako guztien partetik "ondo pasatu eta zorionak, bikote!"



### Paki eta Eneko

Paki eta Eneko bihar, ekainaren 18an, ezkonduko dira. "Zorionak, pareja! Nerbiuak kendu eta ea ondo-ondo pasatzen doazuen bihar-ko eguna! Disfratatu bidaian eta zorion pila lagun eta familixaren partetik!"



### Lorena eta Pablo

Lorena Canales Arribas eta Pablo Errasti. "Ekainaren 18an ezkonduko zarete azkenean, eh! Muxu handi bat Alazne, Aitor eta Juneren partetik. Ondo pasatu bidaian Mexikon eta ekarri opari bat. Patxo!"



### Joxe eta Saioa

Joxe eta Saioa bihar, ekainaren 18an, ezkonduko dira. "Zorionak, pareja! Azkenian heldu da horrenbeste esperotako fetxia. Egun eta bidai zoragarri bat opa dotzue zuen lagun eta familixak".



### Joseba eta Jaione

Joseba eta Jaione bihar, ekainaren 18an, ezkonduko dira. Zorionak, bikote. Egun zoragarri bat izan dezazutela opa dizue zuen familia eta lagunak.



### Miren eta Carlos

Miren Bikuña eta Carlos Elorza oñatiarrak ekainaren 21ean ezkondu ziren orain 25 urte. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak Arrasateko lagun partetik. Juan eta Vica.



## HILDAKOAK

**Carmen Garcia Rodriguez.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 89 urte.

**Felix Santa Cruz Beloqui.** Oñatin, ekainaren 11n.

**Dionisio Pagaldai Leibar.** Arrasaten, ekainaren 11n. 81 urte.

**Felix Gonzalez Uribarren.** Arrasaten, ekainaren 11n. 84 urte.

**Jose Luis Maiztegi Orueta.** Arrasaten, ekainaren 13an. 73 urte.

**Juan Antonio Fernandez Estevanez.** Arrasaten, ekainaren 13an. 83 urte.

**Laureano Ascargorta Inchausti.** Bergaran, ekainaren 14an. 68 urte.

## URTEURRENA

## Ixabel Altuna Letamendi



Gazteizen hil zen 2006ko ekainaren 15ean, 44 urte zituela.

Bosgarren urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 18an, 19:00etan,  
Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.

*Egunero pizten da  
zure argia gure bihotzetan  
zure invidia, hitzak eta maitasuna  
gurekin ditugu beti.  
Urrun egon arren, aldoan zaitugu.*

Zure familia.  
Oñatin, 2011ko ekainaren 17an.

## URTEURRENA

## Iker Uribetxeberria Azurmendi




Seigarren urteurreneko meza eguenean,  
ekainaren 23an, 19:00etan, Arrasateko  
San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

## Laureano Ascargorta Inchausti



2011ko ekainaren 14an hil zen, 68 urte zituela.

Lerro hauen bidez Laureanoren sendiak  
eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste  
eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko ekainaren 17an.

## URTEURRENA

## Pio Cid Conde




Donostian hil zen 2010eko ekainaren 22an, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan,  
ekainaren 19an, 12:00etan, Bergarako  
Santa Marina parrokiari ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Felix Biaín Betozke



Donostian hil zen 2010eko ekainaren 22an, 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 19an, 12:00etan,  
Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

*Betiko izango zaitugu gogoan.*

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

## Felix Santa Cruz Beloqui



2011ko ekainaren 11n hil zen.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali  
dizkizuzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza bihar, ekainaren 18an,  
19:30ean, Oñatiko Agustinoen elizan izango da.

Oñatin, 2011ko ekainaren 17an.

## URTEURRENA

## Felix Garay Santa Cruz



Francisca Suinagaren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko ekainaren 17an, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan,  
ekainaren 19an, Angiozarko  
San Migel elizan ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Valentin Arriaran Ciaran



Aramaion hil zen 2010eko ekainaren 18an, 83 urte zituela.

*Lehen urteurreneko meza domekan,  
ekainaren 19an, 12:00etan,  
Aramaioiko San Martin elizan ospatuko da.*

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

## Dionisio Pagaldai Leibar



2011ko ekainaren 11n hil zen, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak  
bidali dizkizuzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.  
Muxu bat, aitteitte!*

Ibai, Sandra eta Ane.  
Arrasaten, 2011ko ekainaren 17an.

## OROIGARRIA

## Dionisio Pagaldai Leibar



Amaia Pagaldai lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2011ko ekainaren 11n, 81 urte zituela.

*Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.*



Arizmendi ikastolako lankideak.  
Leintz bailaran, 2011ko ekainaren 17an.

## OROIGARRIA

## Izaskun Bengoa Arakama



2009ko ekainaren 20an hil zen.

*Bi urtetan  
hainbat hitz esan ditugu  
eta horien artean  
sarritan dugu zure izena ahotan.*

*Hainbat istorio  
etengabe errepikatzen dira  
eta oraindik ere  
horietaz barre egiten somatzen zaitugu.*

Zure kuadrillia.  
Aretxabaletan, 2011ko ekainaren 17an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.  
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.  
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

**Euskalduna**  
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net





**ARAMAIO** Parradust

Hamaika lekutako eraginek osatutako folk musika kolorez oparoa ekarriko du Gasteizko taldeak. Parradustek berezotasun osoz lotzen ditu euskal tradizioko kantuak, Irlandako erritmoak eta zelten tradizioko beste aire batzuk. Hain zuzen, gaelikoz, euskaraz, ingelesez eta eskoziarrez abesten dute.

Gaur, Sastiñan, 20:00etan.



PARRADUST



GOIENA

**ARRASATE** Estricalla eta Kop

Estricalla taldea Fer Apoa (El Corazon del Sapo) eta Kloakao taldeko musikariek osatzen dute. Amorrur, abiadura eta tentsio handiko hardcorea egiten dute. Eurekin Kataluniako aspaldiko ezagun batzuk igoko dira agertokira: Kop.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**MUSIKA****BERGARA** Musika eskolako diploma banaketa

Musika eskolako diploma banaketa egingo da Zabalotegin. Ondoren ikasleek kontzertua eskainiko dute. Sarrera doan da.

Ekainaren 22an, eguaztena, 19:00etan.

**ARRASATE** Biolin kontzertua

Arrasate Musikaleko biolin ikasleek emanaldia egingo dute.

Ekainaren 20an, astelehena, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

**OÑATI** The Screamin' Targets

Nuevo Catecismo Catolicoko Arturo Ibañezek eta Black Diamonds eta Supertrooper taldeetan abeslari izandako Gisela sortutako rock-and-roll taldea. Bateria NCCko Arturo Zumalabe eta baxuan Beñat izango dira.

Ekainaren 19an, domeka, Antton tabernan, 19:00etan.

**ARAMAIO** Maldita Sea eta El Exterminio de la Raza del Mono

Santurtziko Maldita Sea eta Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono taldeek jardungo dute. Punk-rock musika, udari ongiertoria emateko.

Ekainaren 18a, zapatua, Iturrieta sagardotegian, 22:30ean.

**ARETXABALETA** Musika eskolaren 25. urteurreneko ospakizuna

Leizarra musika eskolak ikasurte bukaerako kontzertua aprobetxatuko du 25. urteurrena ospatzeko. Sortzaileei omenalditxo eskainiko diete bertan.

Ekainaren 18a, zapatua, Herriko Plazan, 12:30ean.

**ARRASATE** Arrasate Musikaleko kurtso amaierako kontzertua

Kurtso bukaerako kontzertua Amaia antzokian. Haurrek abestu egingo dute, baina horrez gain ballet taldeak ere jardungo du.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

**IKUSKIZUNAK****ELGETA** Eskolako umeen ikuskizuna

Ikasturte amaierako ekitaldia egingo dute Herri eskolako umeek. Dantzan, kantuan... sarrera doakoa da.

Gaur, egubakoitza, kafe antzokian 15:00etan.

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

EKAINAK 17  
EKAINAK 23

**DANTZA****BERGARA** Dantza ikuskizuna Bergaran

Dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen duen taldea izango da. Gaztetxearen urteurren jaiaren barruan.

Ekainaren 18a, zapatua, Bergarako gaztetxean 19:00etan.

**ELGETA** Erromeria Arrabots taldearekin

Koadrilen egunaren baitan antolatutako ekitaldia.

Ekainaren 18a, zapatua, Herriko plazan, 17:30ean.

**JAIK****ARRASATE** Arrasate Musikaleko banda, haur danborradan

Arrasate Musikaleko bandak danborradan parte hartuko du.

Ekainaren 18a, zapatua, 19:00etan.

**OÑATI** Corpusetako barrakak merkeago

Hilaren 18an, zapatua, Oñatiko barrakak merkeago egingo dira.

Txartelak euro baten salduko dituzte.

Ekainaren 18a, zapatua, Oñatin.

**OSPAKIZUNAK****ANTZUOLA** San Juan bezperako ospakizuna

Arbola jasotzea, Oinarin dantza taldearen saioa eta ostean sua piztuko dute.

Ekainaren 23a, eguena, herriko plazan, 20:00etan.

**ARETXABALETA** San Juan bezpera

San Juan bezpera ospatzeko egitaraua: 18:00etan plazan dantzak musika eskolakoekin, 18:30ean buruhandiak txistulariekin, 21:00etan dantzaldia Imuntzo eta Beloki taldearekin. 22:20ean kalejira eta ondoren San Juanetako zortzikoa plazan. 22:30ean San Juan sua eta ondoren dantzaldia.

Ekainaren 23a, eguena, herriko plazan 18:00etan.

**OÑATI** San Juan sua Oñatin

Olaiturrin egingo dute sanjuan sua aurten.

Ekainaren 23a, eguena, Olaiturrin 00:00etan.

**ARRASATE** Haurren danborrada

Arrasate musikaleko bandak girotuta, haurren danborrada.

Ekainaren 18a, zapatua, Arrasateko kaleetan 19:00etan.

**ELGETA** Herri bazkaria

Koadrilen eguneko herri bazkaria. Herriko plazan. Udalak ipiniko ditu mahaia eta aulkiak.

Ekainaren 18a, zapatua, Herriko plazan 14:30etan.

**ELGETA** Koadrilen eguna

Ekainaren 18an, zapatua, ospatuko da aurten. Gisatu lehiaketa, herri bazkaria eta erromeria egongo dira.

Ekainaren 18a, zapatua, plazan, 10:30etan

**IKUS-ENTZUNEZKOAK****BERGARA** Gaztetxeari buruzko saio berezia Txapa irratian

Txapa irratian Sasi guztien azpitik saioa eskainiko da, gaztetxeari buruzko saio berezia. Gaztetxearen urteurren jaiaren barruan.

Ekainaren 21a, martitzena, Bergarako gaztetxean 21:00etan.



MYSPACE

**BERGARA** Fight to life

Fight to Life eta Ziggy and Koustic taldeen kontzertua. Bergarako gaztetxeko urteurren jaiaren barruan. Bi taldeak, hain zuzen ere, Arrasatekoak dira; lehenek, baina, dagoeneko herriko marka den oi! eta punk musika egiten dute eta bigarrenek, aldiz, saio akustikoa eskainiko dute Bergaran.

Bihar, gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA** 'Mi mejor enemigo' filma

Gaztetxearen urteurren jaiaren barruan.

Ekainaren 19a, domeka Bergarako gaztetxean 22:30ean.

**BERTSOLARITZA****ARRASATE** Bertso jaialdia Arrasaten

Bertsolariak: Unai Iturriaga, Amaia Agirre, Jokin Labayen eta Manex Agirre. Gai jartzailea Maite Berriozabal izango da. Sarrera doan.

Ekainaren 18an, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean.

**ESKORIATZA** Gazteen bertso afaria

Bertso afaria egingo dute gaztelekuan.

Ekainaren 18an, zapatua, Gaztelekuan 19:00etan.

**BERGARA** Bertso bazkaria

Bertso bazkaria Eneritz Zabaleta eta Unai Gaztelumendi bertsolarien eskutik. Tiketak 7 euroren truke Arrano, Korta-zahar eta gaztetxean egingo dira salgai. Gaztetxearen urteurren jaiaren barruan antolatuta.

Ekainaren 18a, zapatua, Bergarako gaztetxean 14:30ean.

**LITERATURA****ARETXABALETA** Ilunabar literarioa: Karmele Igartua eta Tere Irastortza

Ilunabar literarioen barruan bi emakume izango dira protagonistak. Hona: *Eta orain badakit*, Karmele Igartuarena eta *Itsaso kontra bat*, Tere Irastortzarena.

Gaur, egubakoitza, Arkupeko Zeraia aretoan 19:00etan.

**IRTEERA****ELGETA** Erretiratuak, Lizarrara

Egun pasa egingo dute Lizarra aldean. Izena emateko epea ekainaren 17an amaitzen da. Prezioa da 27 euro bazkideendako eta 35 euro izango da ez bazkideendako.

Argibideak: Pedro Mari Ubera. Ekainaren 23a, eguena, Herriko plazatik irteera. 08:00etan.





ARTXIBOA

**ARRASATE Bertso jaialdia**

Sanjuanetarako girotzen hasteko urteroko bertso jaialdia egongo da zapatuan. Unai Iturriaga, Amaia Agirre, Jokin Labayen eta Manex Agirre bertsolariek jardungo dute. Sarre-rra doan da.

Bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean.

**HITZALDIK****BERGARA Saskibaloiarekin lotutako mahaingurua, Irizarren**

Saskibaloiarekin lotutako mahaingurua egingo da 19:00etan Irizar jauregian. Antolatzailea: BKE saskibalo saila.

Ekainaren 23a, eguena, 19:00etan.

**BERGARA 'Musika zuzenean' atariaren aurkezpena**

*Musika Zuzenean* webgunearen aurkezpen tertulia herriko musikariek. Bergarako gaztetxearen urteurren jaiaren barruan.

Ekainaren 21a, martitzena, Bergarako gaztetxean 18:30ean.

**BERGARA 'La ternura de los pueblos' hitzaldia**

*La Ternura De Los Pueblos* hitzaldia Jesus Valenciaren eskutik. Angiolillo liburutegiak antolatuta. Bergarako gaztetxearen urteurren jaiaren barruan.

Ekainaren 20a, astelehena, Bergarako gaztetxean 18:30ean.

**BESTELAKOAK****BERGARA Didjeridoo Laino skate parkean**

Iban Nikolai musikariak Didgeridoo instrumentua jotzen du; bada, Bergarako Skate parkean emanaldia eskainiko du. Doan izango da.

Gaur, egubakoitza, 22:30etan.

**ZINEMA****BERGARA Saskibaloiarekin lotutako filme baten emanaldia**

Hilaren 21ean saskibaloiarekin lotutako filme baten proiektzioa egingo da, 19:00etan, Irizar jauregian. Antolatzailea: BKE saskibalo saila.

Ekainaren 21a, martitzena, 19:00etan.

**LEHIAKETAK****ARRASATE Sanjuanetako mus txapelketa**

Herri mailako urteroko txapelketaren 15. edizioa izango da aurtengoa.

Bihar, Aldapen tabernan, 16:30ean.

**ELGETA III. Gisatu lehiaketa**

Koadrilen egunaren barruan. Kazuelek 10 lagunendako behar dute izan. Lehiaketa 10:30ean hasiko da eta 14:00etan amaituko da. Sari banaketa 14:30ean.

Ekainaren 18a, zapatua, plazan, 10:30ean.

**IKASTAROAK****ARETXABALETA Bagara, iraunkortasunaren inguruko hezkuntzaldia**

Bagara egitasmoak, *Iraunkortasunerako hezkuntzaldia* izeneko tailerra antolatu du ekainaren 18an Aretxabaletan. Iraunkortasuna ardatz gisa hartuta, komunitate bezala ditugun erronka eta aukerak aztertu eta hausnartzea da zortzi orduko tailer honen helburua. Saio luze samarra da beharbada, baina oso modu dinamiko eta irekian lantzen dira gaiak, talde txikian eta partaide guztien parte hartzearekin: petrolioaren gailurra, aldaketa klimatikoa, herritarron ekimenak, trantsizio eredu (ikuspegia eredu iraunkorretara egokitzen hasi beharra), eta abar. Plaza mugatuak dira. Izena emateko [bagara@bagara.net](mailto:bagara@bagara.net) helbidera idatzi edo 943796848 telefonora deitu. Bagara egitasmoaren blegean hezkuntzaldiaren inguruan gehitutako postaren amaieran, Trantsizio ereduaren ezagutzeko esteka interresgarriak aurkituko dituzue.

Ekainaren 18a, zapatua, Loramendiren egoitzan 09:30ean.

**KIROLA****OÑATI Gipuzkoako plater-tiroketa txapelketa**

Txopekua tiro zelaian egingo dute hilaren 19an 10:30ean. Foso olimpiko modalitatean egingo dute. Ekainaren 19a, domeka, Txopekua tiro zelaian 10:30etatik 14:30etara

**ESKORIATZA Txikirri-Txikirri**

Hildako mendizale eskoriatzarren oroimenez irteera egingo dute. Horren gaineko informazioa gura dutenek 943 71 43 27 telefono zenbakira dei dezakete. Egunean bertan eman beharko da izena 06:00etatik 07:00etara. Prezioa: 5 euro.

Ekainaren 19a, domeka, plazan 07:00etan.

**ZINEMA****ELGETA****ESPALOIA**

**El americano**  
Egubakoitza: 21:30.

**EIBAR****COLISEO ANTZOKIA**

**Kung Fu Panda 2 3D**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 1**

**Miel**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**El inocente**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ****GURIDI**

**Un cuento chino**  
Egubakoitza: 17:30.

**Kung Fu Panda 2 3D**  
Egubakoitza: 20:00, 22:30.  
Zapatutik egunera: 16:45, 18:40, 20:20, 22:30.

**X-Men: Primera Generación**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

**En un mundo mejor**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

**Sin identidad**  
Egubakoitza: 20:00.

**Hanna**  
Egubakoitza: 16:30, 19:15, 22:15.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:50.

**Insidious**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

**Algo prestado**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**  
Egubakoitza: 17:00, 19:40, 22:20.

**FLORIDA**

**Un cuento chino**  
Egubakoitza: 20:15, 22:30.

Zapatutik egunera: 18:00, 20:15, 22:00.

**Midnight in Paris**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.

**Naufragio**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.

**Kung Fu Panda 2**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.

**No mires atrás**  
Egubakoitza: 22:30  
Zapatutik egunera: 17:30, 22:30.

**Los colores de la montaña**  
Egubakoitza: 20:00.

**Pequeñas mentiras sin importancia**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15.

**Micmacs**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

**BOULEVARD**

**X-Men Primera Generación**  
Egubakoitza: 16:30, 19:15, 22:15.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:50.

**Kung Fu Panda 2**  
Egubakoitza: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:00.

**Arthur y la guerra de los mundos**  
Egubakoitza: 16:15, 18:15.

**¡Qué dilema!**  
Egubakoitza: 20:20, 22:35.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:45.

**Kung Fu Panda 2 3D**  
Egubakoitza: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:30.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**  
Egubakoitza: 15:45.

**El sicario de dios**  
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:30.

**Algo prestado**  
Egubakoitza: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:50.

**Insidious**  
Egubakoitza: 16:00, 18:05, 20:30, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:55.

**Kung Fu Panda 2**  
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**  
Egubakoitza: 16:30, 19:30, 22:20.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 01:00.

**Don Mendo Rock ¿La venganza?**  
Egubakoitza: 17:00.

**Fast & Furious 5**  
Egubakoitza: 19:15, 22:00.

**Rio**  
Egubakoitza: 16:05, 18:05.

**Agua para elefantes**  
Egubakoitza: 20:10, 22:35.

**Hop**  
Egubakoitza: 16:10, 18:10.

**Sin identidad**  
Egubakoitza: 20:10, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:45.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**  
Egubakoitza: 15:45.

**Kung Fu Panda 2**  
Egubakoitza: 17:30, 18:30, 20:40, 19:40, 21:50.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 23:00.  
Zapatu eta domekan, baita: 16:20.

**Kung Fu Panda 2 3D**  
Egubakoitza: 19:10, 18:00, 20:10, 21:20, 22:20.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 23:30.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:50, 17:00.

**Pequeñas mentiras sin importancia**  
Egubakoitza: 18:35, 21:30.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:25.

**Algo prestado**  
Egubakoitza: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:50.

**Insidious**  
Egubakoitza: 16:00, 18:05, 20:30, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:55.

**Algo prestado**  
Egubakoitza: 18:05, 20:20, 22:10.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:20.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:40.

**Harry Potter Maratoia**  
Eguaztena: 19:00, 22:00.

**Insidious**  
Egubakoitza: 17:50, 20:00, 22:10.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:20.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:40.

**Hanna**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatuan, baita: 00:45.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**X-Men: Primera generación**  
Egubakoitza: 18:20, 21:30.

**Sin identidad**  
Egubakoitza: 20:10, 22:30.  
Zapatu eta domekan, baita: 00:45.

**A todo gas 5**  
Egubakoitza: 18:45, 21:30.

**El sicario de dios**  
Egubakoitza eta zapatuan: 23:15.

**Código fuente**  
Egubakoitza eta zapatuan: 00:15.

**Thor 3D**  
Zapatu eta domekan: 15:30.

**Arthur y la guerra de los mundos**  
Zapatu eta domekan: 16:30.

**Hop**  
Zapatu eta domekan: 16:10.

**Gnomeo y Julieta**  
Zapatu eta domekan: 16:00.

**Rio**  
Zapatu eta domekan: 16:45.

**KRITIKA****INSIDIOUS ★★★★★**

**Zuzendaria:** James Wan.

**Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak.

**Urtea:** 2010.

**Aktoreak:** Patrick Wilson, Rose Byrne, Lin Shaye.

**Iraupena:** 103 minutu.

**Iluntasunetik sortutako mamuak**

*Insidious* iazko filma bada ere, zerikusi handiagoa du 70eko eta 80ko hamarkadetan egiten ziren beldurrezko filmekin gaur egungoekin baino. Orain, odolaz eta irudi ezatseginekin apaindutako irudiak behin eta berriz erakusten dira, dena da oso nabaria, eta zuzendariak irudi latzen azalpenarekin gozatu egiten dute. Hori dela-eta, ongietorriak dira hain esplizituak ez diren filmak. Eta honekin ez dut esan nahi James Wanen filmak tentsioa eta beldurra eragiten ez duenik, datuak gutxika-gutxika ematen dira eta hasieran normala ematen duen istorio baten gaudela ematen badu, musikak, soinuek, irudien iluntasunak eta

kamera-mugimenduek inguruan zerbait arraroa dagoela ematen dute aditzera; geroago, zaratek eta pertsonaia batzuen agerpen motzak hasierako kezka beldur bihurtuko dute. Istoriaren azkeneko zatian lehenago izandako arrastoak bistako izango dira, hasieran entzundako zaratak nondik datozen eta zeharka ikusitako pertsonaia ezagutuko ditugu, eta orduan bai, hortik bukaera arte ikusleak ez du aukerarik izango ia arnasik hartzeko ere. Istoriaren mamuak, dimentsio ezberdinetako pertsonaia, mediumak, amesgaiztoak eta gordetako sekretuak agertzen dira. *The exorcist* eta *Poltergeist* filmak burura etortzen zaizkigu *Insidious* ikusterakoan. Azalpen

zaileko osagaiak agertzen dira eta horiekin batera gure haurtzaroko beldurrak eta amesgaiztoak. Filmean iluntasunak garrantzi handia du. Txikitan iluntasunak beldurra ematen du eta oso giro aproposa sorrarazten du mamuen istorioei bizitza emateko. Izan ere, filmak haurtzaroen izandako fantasiak eta sentsazioak ekartzen dizkigu gogora. Istoriaren hari-harian mugitzen da, errealismoa eta bitxiegiak izan daitezkeen osagaiak ondo moldatzen dira, eta, horrela, filmak nahiko ondo funtzionatzen duela esan daiteke.

ANTONIO ZABALA





# goiena

2011-06-17

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

## Bederatzigarrena bai, baina ez azkena

- ▶ Ana Kortabarriak eta Mikel Lopezek Santiago bidea amaitu berri dute; itzuli ere oinez itzuli dira aurten
- ▶ 1999a ezkerro urtero egiten dute bidea eta aurten 'Baionako bidea' moduan ezagutzen dena egin dute

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Ezusteko galanta hartu zuten eguazten eguerdian Ana Kortabarriak eta Mikel Lopezek bidegorritik Arrasatera iristen zutelako, Goienako kamerak gerturatu zitzaizkienean. Haien zain geunden.

"Galderak guri?", zioten. Bai, noski. Horixe merezi dutela elkarriketa bat. Santiago biderearen azken txanpa zuten eguaztenekoa. Aurtengoa bederatzigarren aldia dute, eta oraingo honetan joan bakarrik ez, itzuli ere oinez itzuli dira: "1999an egin genuen lehengo aldiz Santiago bidea eta ordutik hona urtero-urtero errepikatu dugu, beti bide edo ibilbide ezberdinetik".

### Arrasate-Santiago-Arrasate

Aurten San Adriango bidea edo *Baionako bidea* izenez ezagutzen dena egin dute: "Arrasatetik Gasteizera joan ginen eta handik Argantzona. Han bidea bi zatitan banatzen da. Joan Burgosko bidetik joan gara eta itzuli, berriz, Santo Domingo de la Calzadatik".

Ibilbide hori guztia zenbait ipinita honelako zerbait litzaiteke: 46 egun, 35 kilometro eguneko, 8 ordu oinez egunero.



Ana Kortabarria eta Mikel Lopez, Arrasatera iristen. | JAIONE CARPINTERO

### Ibiltari amorratuak

Jendea esaten diotenean Santiago bidea bederatzigarren bider egin dutela, denarik entzuten dutela esan digu bikote arrasatearrak: "Batzuek uste dute zorrotza gaudela, adar-jotzeak ere maiz aguantatu behar izaten ditugu. Askok uste dute erlijio kontuagatik egiten dugula urtero bidea, baina gureak ez dauka erlijioarekin zerikusirik. Ibilteza gustatzen zaigu. Egunero-egunero bi ordu baino gehiagoko paseoak egiten ditugu eta aste bukaeretan gehiago".

### Iaz baino jende gehiago aurten

Joatea baino, bueltatzea gogorragoa izan dela kontatu digute: "Aldapak gogorragoak dira bueltan, eta, gainera, bidean bakarrik zoaz. Guztien kontrara zoaz eta ez duzu horrenbeste jendekin hitz egiten". Dena dela, joaterakoan jende askorekin topo egin dutela azaldu dute: "Jende asko dabil aurten. Iaz Xacobeo urtea izan arren, aurten jende gehiago dabil: frantsesak, alemaniarak eta korear asko ere ikusi ditugu".

Bederatzigarrena amaitu barik zutela aurreratu ziguten datorren urtean Ebroko bidea egingo dutela. Zorionak, eta datorren urtean hamargarrena!

### AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

### Xala

Aste honetan ikusi dut egungo pilotaririk onenetakoa prentsaurrekoan komunikatua irakurri ezinean, malkoak begietan eta nahigabea gorputzean. Erabat hunkituta geratu naiz. Kirolari zintzoa, zintzoa hitzaren zentzu osoan, gizon bikaina gorputzez eta buruz, zeharo lurjota ikusteak jendearen egunerokotasunaren hoztasuna alde batera utzi eta askoren barruak astindu ditu. Ez naiz pilota munduan trebatua. Neu bezalaxe, beste asko ere ez, baina kirolaren eta pilotaren beraren gaitetik jendeak pertsona ikusi du. Xalari, ebakuntza bat jasan ondoren, bere enpresak ez dio eskuz banakako pilota txapelketaren finala jokatzeko utzi. Araudi eta legeen gaitetik, pilota enpresen interesen gaitetik, historia bat dago. Historia honen protagonista ilusioz betetako kirolaria dugu. Bere burua behin eta berriz gainditzen saiatzen den kirolaria.

Ziur naiz kasu honetan ez dagoela Xalaren nahigabea baretzeko moduko dirurik. Baina Xalaren nahigabeak sortu duen erreakzioak optimismo puntu bat ematen dit. Azkenean, Xala finalean izango da. Gizartea bizirik dago eta, gainera, badu bihotzik.

## FORD FOCUS BERRIA

### 14.900 eurotik aurrera

ekipamendu honekin guztiarekin:

Bi aldeko aire-girogailua, argi eta euri sentsorea, barruko ispilua autokromikoa, 16"-ko aleazlozko hagunak, Premium Kontsola zentrala eta askoz gehiago.



ETORRI ETA PROBATU  
IRTEERA-ESKAINITZA

Batez besteko kontsumoa 4,6-6,9 l/100 km. CO<sub>2</sub> igorpenak 119-159 g/km.  
Salneurria: Focus Trend 1.6 TI-VCT 105ZP 5 ate. BEZA, garrakoa, matrikulazio zerga, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria. Eskaintza ez da baliagarria langileentzako eta flotientzako. Ikusten den modeloak ez du zertan izan eskaintzen dena.

## MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g.  
ARRASATE



Feel the difference